goiena
Zu hemen zaude.
2023-06-23 EGUBAKOITZA / 998. ZENBAKIA / 23. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM




\+ Sexu Askapenerako Nazioarteko Eguna

Mauricio Anton paleoartistari elkarrizketa




## ARRASATE KIROL SARIAK

# URTEKO AITORTZA HERRIKO KIROLARI

Saioa Karate Klubak, Arrasate Rugby Taldeko Pirolitikak taldeak, Sasoibidek eta Karmelo Bergaretxek irabazi dituzte aurten sari nagusiak / 12

Kulturolako atarian egindako ekitaldiaren ostean ateratako argazkian, saritutako kirolariak udal ordezkariekin. JOKIN LARRAÑAGA

**2022an 384 haur jaio ziren Debagoienean, 2021ean baino 26 gutxiago; %6,34ko jaitsiera** / 3

**Makalaren igoera, sua, dantzak eta danborrada, Arrasateko sanjuanei hasiera emateko** / 8



**Bea Asurmendi musikari aramaioarra herrian lehen aldiz, zapatuan, taldearekin batera** / 43



**ESKORIATZAKO ETA ELGETAKO JAIAK** / 18 ETA 31

**SINADURAK**


IÑAKI UGARTEBURU / 6


ENERITZ URRUTIA / 11


ASIER UGARTE IMAZ / 37


IZAR ODRIOZOLA / 48



# Osasun-karpeta digitala, herritarren eskura

Osakidetzaren webgunean kontsultatu daiteke norberaren osasun-karpeta, eta plataformaren erabilera eta xehetasunak azaldu zituzten Debagoieneko ESIko langileek martitzenean, Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatutako hitzaldian

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARRASATE

Osasun-karpetari buruzko hitzaldia egin zuen martitzenean Debagoieneko Ospitaleko administrarien zerbitzuburu den Carmen Jimenezek, eta harekin batera izan ziren Debagoieneko ESIko lehen mailako arretako erizaintzako koordinatzaile Rosa Domingo eta erizain erreferente Carlos Sanchez. Arrasateko Nagusien Kontseiluak antolatu zuen solasaldia, beste hitzaldi baten ostean, osasun-karpetaren gaiak duen garrantzia ikusita.

Osasun-karpeta 2013an sortu zen, herritarrei euren historia kliniko digitalaren zati bat erraz eta modu seguruan eskuratzeko aukera emateko. Edozein leku eta unetan izan daiteke norbere osasunari buruzko xehetasunen berri, *osakidetza.euskadi.eus* atariaren bidez. Gainera, osasun sistematik kanpoko profesionalen esku ere jarri daiteke hango informazioa. Sarbidea izateko ziurtagiri digitala behar da –B@kQ edo antzerakoa–, eta udaletxean, osasun etxean eta KZgunean eskuratu daiteke, besteak beste.



Debagoieneko ESIko langileak, osasun-karpetari buruzko hitzaldian. I.A.A.

### Zer kontsulta daiteke?

Xehetasunez azaldu zituen Jimenezek egin daitezkeen kontsultak eta eskura dagoen informazioa. 2000. urtetik gaur arteko datuak zeudela aurreratu zuen, eta egindako odol-analisien, erradiografien eta bestelakoen txostenak irakur daitezke; adierazi zuenez, odol-analisien txostena laborategitik atera bezain laster; erradiografiena, profesionalak informea baliozkotu eta zazpi egunera. Halaber, erabiltzaileak ikus dezake aktibo daukan tratamendua, eta, botikaren bat hartzekotan, dosifikazioaren pauta. Jakinarazpenak jaso daitezke, eta osasun langileekin hitzordua ere handik hartu daiteke.

2000tik gaur arte jasotako txertoen historia ere badago: "Deskargatu egin daiteke. Hori, batik bat, Erasmusera doazen ikasleek erabiltzen dute, beste herrialde batzuetan sartzeko txertaketaren informea eskatzen baitiete. Hortaz, hemendik deskargatuz gero, ez daukate osasun zentro batera joan beharrik".

Bestalde, medikuak mezuak bidali ditzake –ezin dira erantzun–; pazienteak zalantzak galdetu diezazkioke medikuari eta hark erantzun –hori medikuak gaitu behar du–; eta, azkenik, pazienteak profesionalarekin adostutako egunerokoa idatzi dezake jarraipena egiteko.

### Gehitutako informazioa

Osakidetzatik kanpo pazienteari egin dizkioten osasun dokumentu edo informeak eta norbere medikuarentzat esanguratsuak izan daitezkeenak gehitu ditzake erabiltzaileak. Jimenezek esan zuenez, ordea, medikuak balioztatu egin behar du igotako artxiboa: "Litekeena da medikuari ez iruditzea beharrezkoa; hartzen duen erabakia ikusi egiten da".

### Informazioa QR batean

Beste aukeretako bat QRa sortzea da, erabiltzaileak irizten dion informazio baliagarriarekin: "Odol-taldea, kontakturako pertsonak... 150 karaktere idatzi daitezke. Kodea sortzen da, eta inprimatu eta moztu egin dezakegu poltsikoan emateko".

### Osasun-karpeta partekatua

Jakinarazi zuen beste erabiltzaile batzuen osasun karpeta norbere profilean agertu daitekeela; betiere, titularrak baimena ematen badu: "Kasu batzuetan, plataformatik eman diezaiokegu beste bati gure osasun-karpeta ikusteko baimena; bestela, osasun zentrora joan eta dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko da".

**ZIURTAGIRI DIGITALA BEHAR DA OSASUN-KARPETARA ETA OTI DIGITALERAKO SARBIDEA IZATEKO**

## Osasun-txartela, eskuko telefonoan

Astelehena ezkero deskarga daiteke Osasun Sailak eta Osakidetzak ezarritako formatu digitaleko Osasun Txartel Indibiduala (OTI) eskuko telefonoan. Txartel digitalarekin, ohiko txarteleko egiaztagiriak lor daitezke eskuko telefonoan, baina, Carmen Jimenezek azaldu duenez, ez du ordezkatzen txartel fisikoa: "Ez dugu plastikozko txartela bota behar". Zerbitzu gehigarria da, eta osasun zentroetan identifikatzeko balio du –profesionalen aurrean, QR kodeen irakurgailuetan, totemetan eta bestelako gailuetan–, baita farmazietan medikuak errezetatutako botikak eskuratzeko ere. Osasun Sailak gehitu duenez, OTI digitalaren eraginkortasuna Osakidetzako osasun etxeetara zabaltzea aurreikusten dute, eta OTI digitala indibiduala eta pertsonala da, oraingoz: "Hurrengo fasean, familia bereko kideen osasun-txartelak gailu bakar batean izateko aukera ezarriko da".

Txartel digitala lortzeko ezinbestekoa da ziurtagiri digitala izatea –B@kQ edo antzekoa izan daiteke–; adibidez, osasun-karpetara sartzeko erabiltzen dena. Ziurtagiririk ez dutenek udaletxean, osasun zentroan eta KZgunean eskuratu dezakete, besteak beste. Ziurtagiria lortzean, Eusko Jaurlaritzaren *Nik* aplikazioa deskargatu behar da AppStoren edo PlayStoren. Horrela, nahikoa izango da eskuko telefonoa erakustea.

# Ordutegi aldaketak udan bailarako osasun etxeetan

Bergara, Oñati, Eskoriatza eta Antzuolako anbulatorioek bakarrik mantenduko dituzte ordutegiak ekainetik irailera

**I.A.A.** DEBAGOIENA

Debagoieneko zenbait osasun etxek ordutegi murrizketak izango dituzte datozen hilabeteetan zehar. Arrasateko anbulatorioko ordutegia 08:00etatik 17:00etara izango da ekainaren 26tik irailaren 15era bitartean. Aramaioko kontsultategian ekainean eta uztailean betiko ordutegia mantenduko da; hau da, 08:00etatik 15:00etara. Abuztuaren 1etik 25era, ordea, astelehenetan, eguaztenetan eta egubakoitzetan 11:30etik 15:00era egongo da zabalik eta martitzen eta eguenetan, aldiz, 08:00etatik 12:00etara eskainiko dute zerbitzua.

Elgetan erizaintza-zerbitzuak ez du aldaketarik izango, baina mediku-zerbitzua uztailaren 19tik abuztuaren 11ra 08:00etatik 11:00etara izango da martitzen eta eguenetan.

Aretxabaletako anbulatorioan ohiko ordutegia izango du, 08:00etatik 17:00etara, abuztuaren 17ra arte, behintzat; izan ere, Osakidetzatik jakinarazi dutenez, oraindik zehaztu gabe daukate abuztuaren 17tik irailaren 1era bitarteko ordutegia zein izango den.


Oñatiko osasun etxea. O.E.

Osakidetzak adierazi duenez, Leintz Gatzagako kontsultategia itxita egongo da ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean. Azkenik, Bergaran, Oñatin, Eskoriatzan eta Antzuolan ez da aldaketarik egongo udan: Bergaran eta Oñatin 08:00etatik 17:00etara egongo da zabalik; Eskoriatzan eta Antzuolan, 08:00etatik 17:00etara.

# Jaiotza-tasa %6,3 jaitsi da urtebetean bailaran

Eustat-ek eman ditu datuak, eta 2021ean baino 26 haur gutxiago jaio ziren 2022an Debagoienean; beheranzko joera du jaiotza-tasak, orokorrean, EAEn, eta Xabier Aierdi soziologoak gaineratu du 5-10 urtean, behintzat, ez dela egoera aldatuko

**Idoia Aranbarri Arzuaga** DEBAGOIENA

Debagoienean 384 haur jaio ziren 2022an, 2021ean baino 26 gutxiago –%6,34 jaitsi da urte batetik bestera–, Eustat Estatistika Erakundearen datuen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoko beheranzko joera jarraitu du ibarrak; izan ere, 2022an 13.636 jaiotza izan ziren, 2021ean baino %4,4 gutxiago –2021ean 14.257 izan ziren–. Hiru lurraldeei dagokienez, Gipuzkoan gertatu da jaitsierarik handiena, %8,6koa izan baita.

EAEko eta bailarako datuei dagokienez, azken 10 urteetan beheranzko joera izan du jaiotza-tasak, zenbait herritan gorabeherak egon badira ere; Bergarako eta Oñatiko kasuak dira, esaterako. Eskoriatzari dagokionez, berriz, jaiotza-tasan nabaritu da goranzko joera 2020tik 2022ra bitartean. Datu horiei erreparatu die Xabier Aierdi soziologoak. "Hemen denek egin dute behera azken urteetan, Eskoriatzak izan ezik. Baina, orokorrean, mantendu egiten dira datuak". Soziologoak azaldu duenez, normala da kasu zehatzetan gorakadak izatea, baina tendentzia beherantz doa, eta hori izan behar da kontuan: "Halako punta bat egon daiteke, baina ez da esanguratsua. Esanguratsua litzateke behin behea jota gorantz egitea; hiruzpalau urtean kopurua haztea".




### Jaitsieraren kausak

Beheranzko joera horretara gizarteak "ohitu" egin behar duela dio: "Neurri batean, esan behar da eszenatoki honetan planteatu behar dugula geure burua, ze hau ez da aldatuko 5-10 urtean. Atzerantz joango gara".

Jaiotza-tasaren jaitsieraren arrazoien artean, "gizarte modernoaren eraldaketa" eta "aldaketa kulturala" nabarmendu ditu: "Uste dut gizarte modernoa dela esaten dugunean zer-nolako aldaketa kulturalak dauden eta aldaketa kultural horien artean bat garrantzitsua dela emakumearen eboluzioa lan arloan eta enpleguetan, emakumearen eraldaketa pertsonala eta identitate feminista". Gizartea moderno, aurreratu eta aberatsa bezala definitu du, eta seme-alabak izatea baztertu edo atzeratu egiten dela: "1,2ko erreposizio-tasa ez da betetzen".

Arazo ekonomikoan ere jarri du azpimarra, eta lan prekarioak eta etxebizitza batera sartzeko zailtasunak aipatu ditu, eta horiek gainditzeko "oso politika sozial sendoak" ezarri beharko direla dio: "Politika sozial indartsuetan uztartu beharko dira, eta neurri ekonomikoak, neurri sozialak eta portaerak bultzatu beharko dira. Baina horrek guztiak dirutza dezente beharko du jaiotza-tasa errekuperatu nahi badugu. Pentsatu behar da hartzen diren neurriek demografian fruitua eman dezaketen edo ez; baina fruituak hemendik 20 urtera eman ditzakete".

### Beherakada 2020a baino lehen

COVID-19aren eraginagatik galdetuta, "aldez aurretik" zetorren beheranzko dinamika batean eragin duela dio: "Koronabirusak eragin dezake, baina afekzio hori gertatzen da jakinda duela urte batzuetatik beherantz doala jaiotza-tasa. Hor areagotu egiten dela jaiotza-tasa beherantz? Agian, bai, baina pentsatu beharko genuke koronabirusarena azken hiru urteetako kontua dela; aldez aurretik beherakada berdin-berdin zetorren. Eragina izango du, baina kasu gutxitan".

# 2022a ontzat jo du Goiena Komunikazio Taldeak

Kazetaritza egiten jarraitzeko konpromisoa hartu zuten, eta kalitatean indar berezia jarri

**I.A.A.** ARRASATE

Hilaren 15ean egin zuen Goiena Komunikazio Taldeak batzar orokorra. Iban Arantzabal zuzendari nagusiak eta Monika Belastegi presidenteak hitz egin zuten, eta ontzat jo zuten 2022a; zehazki, hiru arrazoirengatik: publizitate arloan hazkundea izan delako, kanpo zerbitzu gehiago eman direlako eta proiektu berriak sortu direlako.

Inbertsioen kasuan, adibidez, telebista digitalizatzeko 100.000 euro inguru inbertitu dituzte, eta *Zut* eta *Ttap* aldizkari digitalen diseinuak hobetu egin dituzte –*Ttap*-en weba sortu dute–.

2023ko aurrekontua eta kudeaketa plana onartu zituzten eta kazetaritza egiten jarraitzeko konpromisoa hartu zuen Goienak, eta kalitatean indarra jarri. Iaz bezala, memoriarekin lotuta, biktimen ahotsak jasotzeko elkarrizketak egiteko asmoa agertu zuten.

Elkarlanari ere garrantzia eman zioten: EITBrekin eta Tokikomekin batera *Saretzen* egitasmoan daude sartuta. EITBren Primeran plataforman ere izango du lekua Tokikomek, eta Goiena telebistako hainbat saio ikusi ahal izango dira telefonotik edo urrutiko agintea erabilita.



# "Gogoz egindako lanaren emaitza da sari hau"

**IANIRE RABANETE GONZALEZ** GRADU AMAIERAKO PROIEKTU ONENAREN IRABAZLEA

Mondragon Unibertsitateak eta Mondragonek gradu bukaerako euskarazko lan onenak saritu dituzte asteon. Ianire Rabanete eskoriatzarrak jaso du lehenengo saria

**Miren Arregi Amasorrain**
ESKORIATZA

Industria Antolakuntzako Ingeniaritza ikasketak egin ditu Ianire Rabanete eskoriatzarrak Mondragon Unibertsitatean, eta Ulma Packagingendako egindako *Ulma Packaging mekanizazio-tailerrean 5S garapena eta ezarpena* lanagatik 1.500 euroko saria jaso du. Mondragon Unibertsitateak eta Mondragon Korporazioak eman diote saria, gradu bukaeran euskaraz egindako lan onena harena dela iritzita. Asteon egin dute sari emate ekitaldia, Otaloran.



Ianire Rabanete Gonzalez. I.R

**Zorionak, Ianire! Pozik?**
Bai, noski; errekonozimenduak beti dira gustukoak. Deitu nindutenean, egia esan, harrituta gelditu nintzen. Ni dagoeneko ez nago Ulman; proiektua joan den ikasturtean bukatu nuen eta ez nuen espero gradu bukaerako lanarengatik deituko nindutenik.

**Euskaraz egindako zure lana saritu dute. Euskaraz egitea zerbait naturala izan da?**
Egia esan, Shanghaira joatekoa nintzen gradu bukaerako proiektua egitera, baina pandemia zela-eta, ez genuen bisa lortzerik izan. Noski, kanpora joaten zarenean proiektua egitera ingelesez esleitzen dizute lana, eta nire asmoa ere horixe zen, ingelesez egitea. Baina bidaiatzeko arazoak zirela-eta, azkenean, hemen gelditzea egokitu zitzaidan. Proiektuarekin hasi baino astebete lehenago esleitu zidaten Ulmako lana, eta euskaraz edo gazteleraz egiteko aukera eskaini zidaten. Hasiera batean, gazteleraz egitea pentsatu nuen, baina Ulman euskarak pisu handia zuela ikusi nuen eta, gainera, pentsatu nuen euskaraz egiten banuen C1en baliokide bat lortuko nuela; izan ere, batxilergoan ez nuen EGA gainditu. Bi arrazoi horiengatik lana euskaraz egitea erabaki nuen. Gainera, masterra kanpoan egingo nuela banekien; Valentziako unibertsitate baten ari naiz orain masterra online egiten, eta, master bukaerako lana gazteleraz egingo nuela jakinik, bada, euskararen alde egin nuen.

## "KONTUZ IBILI NAIZ EUSKARAREKIN, EZ NITUEN GAUZAK EDOZEIN MODUTAN EGIN NAHI"

**Zer moduz moldatu zara lana euskaraz egiteko?**
Nik lan egiteko metodologia japoniar bat aplikatu dut, eta zailtasunak bai izan ditut; bereziki, metodologiaren gaineko informazio guztia ingelesez eta gazteleraz dagoelako. Halere, esan dezaket asko ikasi dudala. Eta nahiz eta egunerokoan euskaraz hitz egin, euskaraz zuzen idazteko eta euskara teknikoa ezagutzeko oso baliagarri egin zait. Bereziki, kontuz ibili naiz hizkuntzaren kontuarekin, ez nuen nahi-eta gauzak edozein modutan egin.

**Nolakoa izan da prozesua?**
Zortzi hilabetez egon nintzen Ulman, mekanizazio-tailerrean zegoen behar bati erantzuten. Azken urteetan asko hazi da Ulma Packaging, eta, horren ondorioz, makina mordoa ekarri dira azken urteotan tailerrera. Makina horiek guztiak ordena jakin barik sartu dira eta, hain zuzen, bazegoen, alde batetik, espazio falta, baina baita ordena falta ere. Ulmak *5S*-en metodologia aplikatuta eman nahi zion konponbidea egoerari, eta horretan hasi nintzen.

**Zertan datza metodologia hori?**
Bost fasetan, inguru bateko beharrezkoak eta ez-beharrezkoak diagnostikatu, beharrezkoa ez den hori kendu eta beharrezkoa dena antolatzen du *5S*-en metodologiak. Beste fase batzuetan, berriz, beharrezkotzat jotzen den hori guztia estandarizatu eta denborak aurrera egin ahala horrek iraungo duela bermatu behar du. Hain zuzen ere, horretarako, tailerra zein espaziotan banatu genezakeen ikusi eta hori nola antolatu genezakeen aztertu genuen.

**Zer-nolakoa izan da Ulmako lantaldearekin izan duzun harremana?**
Autonomia handia izan dut lanerako, baina lantaldearekin ere harremana izan dut; izan ere, proiektua garatzeko ezinbestekoa zen hango taldearen ideiak jasotzea. Egunero biltzen ginen, eta bertan transmititzen ziren erabakiak eta abar. Asko lagundu didate; nik gauzak modu batera ikus nitzakeen, baina han 10 urte lanean daramatzan pertsona batek beste modu batera ikusi ditzake gauzak; alde horretatik, elkarlana sortu da, eta aberasgarria izan da.

**Zer eman dizu proiektuak?**
Batez ere, nabarmenduko nuke profesionalki garatzeko eman didan aukera. Izan ere, ez naiz mugatu esan didaten hori egitera. Ideiak transmititzeko gaitasuna, talde-lanean lan egiteko gaitasuna, erabakiak hartzeko gaitasuna eta besteen iritziak filtratzeko gaitasuna landu ditut, eta autonomia handia eman didate erabakiak hartzerakoan. Libre sentitu naiz pentsatzen nuena transmititu ahal izateko. Asko ikasi dut eta oso gustura egon naiz.

**Zer esan nahi du sari hori irabazteak?**
Ba, egia esan, ondo egindako lanak emaitzak ematen dituela; gogo eta ahalegin handia ipini nion lanari, eta uste dut hori garrantzitsua dela. Nik ez nuen EGA atera batxilergoan, baina ez gai ez naizelako, baizik eta gogorik ipini ez niolako. Eta, beraz, gauzak gogoz egiten direnean emaitzak ematen dituela ikustea oso pozgarria da. Etxean ere asko poztu dira, eta polita izan da.

**Eta orain zertan diharduzu?**
Gureak-en nabil lanean, Eibarren. Iazko ikasturtea bukatuta, masterra egiten hasi nintzen. Online ari naiz; izan ere, masterra lanarekin uztartu nahi nuen. Irailean hasi nuen masterra, eta, ikusirik lanarekin uztartu nezakeela, otsailean hasi nintzen Gureaken lanean. Logistikaren gaineko master batekin ari naiz eta asko ikasten dihardut. Gainera, Gureaken logistika arduraduna naiz orain. Egia da asko gustatzen zaidala eremu hori, eta oso gustura dihardut. Ulmako proiektuarekin ez du inolako zerikusirik; hangoa ere gustatu zitzaidan, baina logistika probatu gura nuen, eta oso gustura nago.

## Gorteetarako zerrendetan badira debagoiendarrak ere

Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeetarako hilabeteren faltan, talde politikoek hautagaien berri eman dute, eta Gipuzkoako zerrendetan badira bailarako herritarrak ere. EH Bilduri dagokionez, bailarakoak dira hirugarren, laugarren eta bosgarren doazen hautagaiak; hurrenez hurren, Maddalen Urzelai eta Larraitz Ugarte oñatiarrak eta Pello Urizar arrasatearra.

EAJk ere baditu hautagai debagoiendarrak, baina ez Kongresurako, Senaturako baizik; Gipuzkoako zerrendetan hirugarrena da Rafael Uribarren. Anoetan (Gipuzkoa) bizi da, baina arrasatearra da jaiotzez.

PSE-EEn ere badira bailara-kideak, Rafaela Romero arrasatearra baita Gipuzkoako zerrendaburua Kongresurako. Are gehiago, Sumar-ek ere badu ordezkaritza, lurraldeko hirugarren hautagaia izango baita Juan Luis Merino arrasatearra Kongresurako.

## Azaroaren 30ean izango da greba feminista orokorra

Euskal Herriko Mugimendu Feministak grebarako dei egin du azaroaren 30erako. Nabarmendu dutenez, "zaintza sistema publiko eta komunitario baten alde" aterako dira kalera bost hilabete barru: "Pribatizazioaren eta merkantilizazioaren aurka, zaintza lanetan eta sektore feminizatuetan baldintza onartezinetan bizi garen emakumeon eskubideen alde, egungo sistema mantentzen dutenei ardura eta erantzukizuna eskatzeko... Eta beste hamaika aldarri jarriko ditugu erdigunean". Mugimendu Feministatik ohartarazi dute horri erantzutea "guztion ardura" dela, "bizitza duinen" aldeko borroka dela erantsita. "Bizitza osoan zainduak izateko eta konpromiso berberaz zaintzeko eskubidea lortzeko".

Orain, beraz, egunari begira jarrita daude Mugimendu Feministako kideak, eta auzo eta herrietan egingo diren deialdietara batzeko dei egin diete herritarrei.

# Ikasturte bukaerako diploma jaso dute hamar ikaslek Gomiztegin

Zortzi dira gizonezkoak eta bi emakumezkoak; lapurtar bat, arabar bat eta gainerakoak gipuzkoarrak

**Miren Arregi Amasorrain** OÑATI

Gomiztegiko Artzain Eskolak artzainen hogeita seigarren prestakuntza-ikastaroa amaitu du, ikasketak bukatu dituzten hamar ikasleri diplomak eta makilak emateko asteon egindako ekitaldiarekin. Artzain eskolak ardi eta ahuntzen sektorea gaztetzearen aldeko apustua egiten jarraitzen du, belaunaldien arteko erreleboa bermatu dadin. Eguaztenean diplomak jaso zituzten zazpi pertsona 30 urtetik beherakoak dira eta lauk oraindik ez dituzte 20 urte bete. "Profilari dagokionez, hamarretik zazpik dagoeneko artaldea dute etxean, oso errelebo zuzenak, beraz, eta alde horretatik, oso talde potentea", azaldu du Gomiztegiko formakuntza arduradun Ane Gartziandiak.

## Politikarien errekonozimendua

Ekitaldian parte hartu zuten hamar ikasleek, artzain eskolako irakasleek eta arduradunek, bai eta ordezkari politikoek ere. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako sailburuorde Bittor Orozek balioa eman zion Arantzazuko eskolak artzaintza bizia mantentzeko eta Latxa ardi-arraza kontserbatzeko egiten duen lanari, eta, bereziki, etorkizuneko lehen sektoreko kide izango diren haien formakuntzan Gomiztegik duen garrantzia azpimarratu zuen. Oñatiko Udaleko zinegotzi Xabier Igartuak ere eskerrak eman nahi izan zizkien ikasleei, sektorearen jarraikortasuna ziurtatzeko hartu duten konpromisoagatik.

## "Oso egoera zailean"

Ikasleek ekitaldia baliatu zuten sektorearen egoeraren berri emateko, eta dituzten zailtasun eta oztopoez mintzatu ziren; bereziki, esnearen ekoizpen kostuen eta salneurrien arteko desorekaz. "Eskatzen dugu, gutxienez, oztoporik ez jartzeko", zioten ikasleek, besteren artean. Sailburuorde Bittor Orozek onartu zuen egoera ez dela ona, eta sektorearen jarraikortasuna bermatzeko ahaleginak egingo dituztela azaldu zuen: "Kostuen eta prezioen arteko erlazioarekin arazoa dago sektorean, eta katearen legea bete beharra dugu zorrotz. Gu horretarako gaude, sektoreari hori bideratzen laguntzeko".



**Argazkioinaxxx.** ARGAZKIJABEAXXX

# Leintz Bailarako Ekiola, bazkide berriak erakartzeko fasean

Asteon egin dute batzar orokorra bazkideekin, eta "sozializazio kanpaina" izan dute bergabai

**Miren Arregi Amasorrain** ARRASATE

Eguaztenean egin du Leintz Bailarako Ekiolak batzar orokorra, eta, bereziki, "sozializazio kanpainari" begirakoak izan dituzte berbagai; izan ere, bazkide berriak erakartzeko kanpaina jarri du abian. Horrekin lotuta, asteon Arrasateko BAZeko bulegoan izan dira teknikariak, interesdunei informazioa helarazten, eta laster egingo dute beste batzar bat, herritarrak animatzeko. "Dagoeneko badaukagu finantzaketa, baina gure helburua da ahalik eta jende gehienek gure instalazioetatik energia berriztagarria hartu ahal izatea", azaldu du Kontseilu Erretoreko presidente Iñaki Aranburuk.

## Parke fotovoltaikoa

Eguzki-plakak jartzeko lanak hasita daude dagoeneko, Garaia ondoko eremuan. 2.300 panel fotovoltaikoak abuztu inguruan jarriko dira, eta, konexioak amaitu ondoren, irailaren amaierarako instalazioa amaituta egotea espero da. Bazkideak urritik aurrera hornitu ahalko dira parkeko energiarekin.


Mondragon Unibertsitatea

Gure ikasleen ahotan



## "Garatu ditugun ia proiektu guztiek pertsonengan eragiteko eta gizartea hobetzeko asmoa dute"

**Maia Odriozola Ballestero oñatiarra Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza graduaren bigarren maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.**

**Zergatik aukeratu zenuen LEINN (Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntzan) gradua ikastea?**
Betidanik deigarria egin zait gradu hori, baina metodologia hain desberdina izateak eta ulertuko ez duzun beldurrak atzera botatzen zaitu. Marka bat sortzen hasi nintzen lagun batekin, eta sortze-prozesuan jakin nuen LEINN ikasi nahi nuela.

**Nola baloratzen duzu LEINNen bizitako esperientzia?**
Bi urte hauetan milaka abentura bizi izan ditut nire taldearekin. Pertsonalki asko ikasi dugun prozesua izan da, baina, batez ere, taldeka.

**Zer gustatzen zaizu gehien Mondragon Unibertsitatetik?**
Mondragon Unibertsitateak duen kultura kooperatiboa eta enpresa-munduarekin duen lotura, praktika eta esperientzia eraginkorrean oinarritutako ikaskuntza eskaintzen baitu.

**Lehen egunetik enpresa bat sortu duzue LEINN graduan; nola egiten da hori?**
Lehen ikasturtearen hasieran, denon artean ezagutzeko dinamikak eta jarduerak egiten ditugu. Ondoren, bi taldetan banatzen gaituzte, eta Junior Enpresa Ikasle Elkarte gisa eratu behar dugu. Hasieran zaila egiten zaigu eratze-prozesua ulertzea, baina legezko aholkularien, finantzetako aholkularien eta aholkulari digitalen laguntzarekin dena errazagoa da.

**Ze proiektu mota garatu izan dituzue zuen enpresarekin/ekipoarekin LEINNen barne?**
Garatu ditugun ia proiektu guztiek pertsonengan eragiteko eta gizartea hobetzeko asmoa dute. *Ikasiz eragin*, eskoletako ziberjazarpena amaitzeko helburua duen proiektua, Guuk-ek antolatutako bigarren *hackaton*-a irabazi ondoren sortu genuen proiektua da. E-events kooperatibismoa ezagutarazteko ekitaldiak antolatzen dituen proiektua da eta, hartara, kooperatibista gazteak, nazioarteko kooperatibak eta interesa duten pertsonak gonbidatzen ditugu. *Mendiz* proiektuarekin, sukalderako taulak diseinatu eta ekoizten ditugu, mendien diseinu serigrafiatuekin.

**Zer iruditzen zaizkizu atzerriko esperientziak? Non izan zara?**
Lehen urtean Berlinen izan ginen, eta han talde gisa ezagutu genuen elkar, eta enpresa beste lurralde batean kudeatzen ikasi genuen, gure erosotasun-eremutik at. Otsailean Costa Rican izan gara hilabetez, eta esperientzia aberasgarrienetako bat izan da taldearentzat.



ZABALIK

IÑAKI UGARTEBURU

# Sustapena eta iraunkortasuna

Esango nuke gaur egun inork ez duela zalantzan jartzen kirolak eskaintzen dituen onurak. Horregatik, eta legeek esaten dutelako, udalek kirol zerbitzuak eskaintzen dituzte.

Ez dut ezer berririk esan behar, baina kirol arloan aritzen diren arduradun politiko zein teknikoei proposatuko nieke beren lan-jardunean izenburuan aipatutako bi kontzeptuak kontuan izateko.

Sustapena. Kirola modu egokian egiteak makina bat abantaila eta onura dakarkigu, eta horrek sustapena justifikatzen du. Duela hamarkada batzuk, asko zabaldu zen *denontzako kirola* kontzeptua; gaur egun, gutxiago erabiltzen da, eta nik berreskuratu egin nahiko nuke, *denontzako* hori azpimarratuz. Kirola sustatu beharra dago, baina ahalegin berezia eginez arrazoi ezberdinengatik zailtasunak dituzten pertsonengana hurbiltzeko. Sasoi batean logika izan zuen gehienentzako kirola sustatzeak, nahiz eta *denontzako kirola* deitu, gizarte multzo handienean pentsatuz planifikatu baitziren instalazioak eta kirol programak. Orain, haratago joatea proposatzen dizuet, eskaintza fintzen eta beharra dutenei erraztasunak emanez.

**ERRONKA HANDIAK DITUGU : KONTSUMOA MURRIZTEA, ENERGIA GARBIAK ERABILTZEA...**

Iraunkortasuna. Ugari dira kontzeptu horren abizenak: ingurumenekoa, energetikoa, ekonomikoa, soziala… Egiten duguna egiten dugula, gure premiak edo nahiak asetzeko ez dugu etorkizuna kaltetu behar. Adibidez, kirol instalazioen arloan erronka handiak ditugu: kontsumoak murriztea, energia garbiak erabiltzea eta ahalik eta gutxien kutsatzea. Instalazio edo ekipamendu bat egiterakoan aztertu beharra dugu zein eragin izango duen naturan, zein kostu izango duen mantentzeak, zelako lanak ekarriko dituen zabalik mantentzeak. Eta antzera abian jartzen ditugun ekimenekin: jarduerak iraunkorrak nahiz puntualak izan, horien iraunkortasuna ikuspuntu ezberdinetatik presente izatea proposatzen dizuet.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

## Azaroak 30

EIDER GOENAGA LIZASO
'BERRIA'-N ARGITARATUA
HTTPS://LABUR.EUS/C9WKU

Azaroak 30.

Datozen hilabeteetan asko entzungo dugu data horren inguruan.

Asko baitago hitz egiteko, asko lantzeko, asko pentsatzeko, asko egiteko, asko eztabaidatzeko, jende asko borrokara batzeko...

Greba feminista orokorrerako deia egingo zuela iragarria zuen Euskal Herriko Mugimendu Feministak, eta atzo jakinarazi zuten data: azaroak 30.

2018ko martxoaren 8an egin zen Euskal Herrian lehen greba feminista, arrakasta handiz egin ere.

Baina, ordutik bide bat egin da, eta bizitzak eta zaintza erdigunean jartzearen inguruan artikulatu dira mugimendu eta diskurtsoak.

Izan ere, zaintza erdigunean jartzeak guztiari eragiten dio: eragiten dio gizon eta emakumeen arteko berdintasunari, sistema heteropatriarkalari, eragiten dio soldata arrakalari, komunitatearenak behar luketen lanen merkantilizazio eta pribatizazioari, eragiten dio sistema kapitalistari... "Zaintza sistema aldatzea dena aldatzea baita", arrazoitu du Mugimendu Feministak, data zehazteko plazaratu duen mezuan.

Badu data, beraz: azaroak 30.

Eta dena aldatze horren onurak ez direnez soilik emakumeentzat izango, gizonak ere bat egitera deituko dituela iragarri du Mugimendu Feministak, bat egite hori nolakoa izango den eta zein rol beteko duten eztabaidagai izango den arren.

Gizonak, beraz, egon daitezela prest protagonista izango ez diren borroka batera batzeko, eta borobildu dezatela data agendetan: azaroak 30.

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**
Monika Belastegi.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.
**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**
Igone Osinaga.

**Saileko arduradunak**
Xabier Urzelai (Kirola), Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
**Maketazioa**
Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Amaia Martinez de Arenaza.
**Publizitatea**
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*publi@goiena.eus*
**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp: 688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.500 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

## GUTUNAK

### A zer-nolako 'turrada' Frantziako Tourrarekin

**MIKEL ARANTZABAL**
EIBAR

Ziklismo-zaleentzako sekulakoa izango da uztail hasieran Euskal Herriko errepideak zeharkatuko dituen Frantziako Tourra bertatik bertara ikustea. Aste bukaera betea, ekitaldiz bustia. Batzuek kanpaldiak ere antolatu dituzte; Mikel Lizarraldek eta haren lagunek Oñati eta Udana artean egingo dutena, esate baterako: lo egiteko gunea, ekintza ugari... Alegia, Frantziako Tourra Pirinioetatik pasatzen denean egiten dutena, baina, oraingoan, herrian bertan. Tourra, Euskal Herrian.

Gainera, munduan gehien ikusten den hirugarren kirol ekitaldia da, Olinpiar Jokoen eta Munduko Futbol Txapelketaren ostean. Debagoieneko paisaiek munduari bira emango diote.

Hala ere, bada horrenbesteko *turrada*-rekin gogaituta egongo direnak ere. Izan ere, han eta hemen daude kirol ekitaldi horri lotutako albisteak, horma-irudiak, ikus-entzunezkoak... Haiek hobe dute aste bukaera horretan kanpora joan. Gainera, tropela pasatu aurretik, bide guztiek garbi egon behar dute. Garbi, bai ibilgailuz, bai bestelakoez ere. Nork ez ditu azkeneko egunotan udal brigadak edo Aldundiko errepideen mantentze-lanetakoak jo eta su ikusi bide bazterrak txukuntzen, errepideak asfaltatzen... Dena polit-polit, Tourra dator eta. Orain arte ez zegoen beharrik errepideak asfaltatzeko eta bide bazterrak txukuntzeko, ezta? Ja... Bueno, positibotzat har dezagun hori. Biba Tourra! Eta *turrada!*

### Zer da zilegi? Zer da etikoa?

**PITER ENCINAS**
ARRASATE

Dirudienez, EAJko politikari batzuek egiten eta esaten dituztenak justifikatzeko ea zilegi den galdetzen dute. Nire ustez, politikari horiek askotan ez dute ikusten zer desberdintasun dagoen zilegi izatearen eta etiko izatearen artean, eta, hobeto azaltzeko, hasieratik abiatu nahi dut.

Zer da zilegi izatea? Legearen barruan dagoena.

Zer da etikoa? Giza portaerari ematen zaion balio positiboa edo negatiboa da.

Nire ustez, bi erantzun horiek oso funtsezkoak dira gai hori lantzeko.

Hori esan eta gero, adibide batzuk jarri nahi ditut:

-Polizia bidaltzea eta indarkeria erabiltzea adineko pertsona bat etxetik ateratzeko. Hori zilegi izan daiteke, baina etikoa al da?

-Euskadi hondatzea AHT proiektu faraoniko eta alferrikakoarekin. Hori zilegi izan daiteke, baina etikoa al da?

-Bat egitea Coviteren diskurtsoarekin, EAJk EH Bilduren zerrenda batzuei buruz egin duen bezala? Espetxetik irten garenok ez daukagu eskubiderik? Egin dugunagatik *ordaindu* eta gero, bizi osorako kondenatuta egon behar dugu? Gai horretan EAJ konplize bihurtu da, eserlekuak lortzeko. Hori zilegi izan daiteke, baina etikoa al da?

-Etikoa al da? Fiskalak onartu eta gero mendietako diputatu arduradun batek legea hautsi duela, hiru urteko espetxe-zigorra ezartzea, akordio batera iristea, eta kartzelara ez joateko lanpostutik kaleratzea, baina handik gutxira antzeko kargu batean berriro egotea eta hura salatu zuen basozaina tratamendu psikologikoan egotea, *bullying*-a jasateagatik. Hori zilegi al da? Eta etikoa?

-Andoni Ortuzarrek bere diskurtsoetan gezurrak eta Trumpen estrategia erabiltzea aurkari politikoari izen ona kentzeko. Hori zilegi izan daiteke, baina etiko al da?

Agian, EAJri barkamena eskatu beharko genioke hauteskundeak irabazteagatik.

Portzierto, adibide gehiago dauzkat: De Miguelen kasua, politikari batzuen soldatak, ate birakariak, Osakidetzaren eta Hezkuntzaren suntsipena... Zilegi edo etiko, hor dago koska.

**Salaketa-gutuna**
**Eskertza-gutuna**
**Eskari-gutuna**

Idatzi zure gutuna eta bidali
***gutunak@goiena.eus*** helbidera!

**Erantzun-gutuna**
**Aldarrikapen-gutuna**
**Kexa-gutuna**

### Ondo bereizi sortzen dituzun zaborrak

**JOSU GARITAONANDIA**
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA
BERGARA

Zaldibarren eroritako zabortegiaren epaia atzeratzen dihardute.

Orain, hamahiru dira inputatuak; haiek dira gertatutakoaren arduradun nagusiak, baina guk ere gure arduratxoa daukagu zaborrak sortzen ditugun unetik; gure ganora faltagatik, errefus larregi sortzen dugu, eta horiek zabortegira doaz edo errauskailuan erretzen dituzte.

Egin ditzagun gauzak ondo eta ahalegindu gaitezen *zero zabor* helburua lortzen; sortzen ditugun apurrak gure herriko San Juan suan erre ditzagun.

Espiritu gaiztoak uxatzeko ohitura horrekin ea gure herritik bidaltzen ditugun zabortegi eta errauskailu guztiak.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

## HAUXE BAI JENEROA!

**GARBINE UBEDA**















# Asteburu betea arrasatearrentzat

Arrasateko Bilgune Feministaren pregoiarekin eta txupinazoarekin abiatuko dituzte 2023ko sanjuanak, eta ekintzaz betetako asteburu luzea dute aurretik arrasatearrek; jaiak "elkartasunez eta errespetuz" ospatzeko dei egin du Maider Morras alkateak

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE

Joan den asteburuan motorrak berotu ostean, gaur egingo dute eztanda herriko festa nagusiek eta, txupinazoa botatzearekin batera, kolorez eta kulturaz jantziko da Arrasate astelehenera arte. Alkate kargua hartu eta astebetera iritsi zaizkio jaiak Maider Morrasi, eta, lehenik eta behin, eskerrak eman nahi izan dizkie kultura arloko talde, eragile eta langileei, eta baita Arrasateko Txosna Batzordeari ere, "egiten duten lan guztiagatik". Horrekin batera, nola ez, alkatearen zortzikoa egitea dagokio aurten, eta entseatzen aritu dela aitortu du: "Zorionez, gure zinegotzi Jaime Bengoa oso dantzari ona da eta hura aritu zait irakasten". Beraz, Iñaki Barrena txistulariaren laguntzarekin, "ahalik eta ondoen" egiten saiatuko dela dio. "Egia esan, urduri nago; azken batean, oso hunkigarria den momentu bat baita, plaza guztiaren aurrean".

Era berean, jaiak "elkartasunez, errespetuz eta alaitasunez" ospatzeko dei egin du Morrasek. "Espero dugu inolako erasorik ez gertatzea, ezta diskriminaziorik ere. Itxuraz, eguraldi ona dator; beraz, ondo pasa ditzagun jaiak".

**Indarkeria matxistaren aurka**

*Indarkeria sexistarik gabeko gunea* jarriko dute Arbolapetan, eta indarkeria sexistan eta autodefentsa feministan adituak diren emakumeak egongo dira han, joan nahi duten emakume eta neskak artatzen. Halaber, LGTBI+fobia pairatu dezaketen pertsonen askotariko erasoen gaineko bizipenak eta iritziak ere jasoko dituzte. Gaurtik domekara arte egongo da erabilgarri, Arbolapetan, 20:00etatik 00:00etara.

Bestalde, jaietarako propio sortu duten arretarako telefono-zerbitzua egongo da, gaurtik domekara, 20:00etatik 08:00etara. Beraz, jaietan gertatzen den edozein eraso sexistaren aurrean, informazioa eta aholkularitza eskainiko dute zerbitzu horretako langileek. Era berean, beharrezkoa balitz eta erabiltzaileak hala eskatuz gero, aurrez aurreko arreta eta laguntza eskainiko dute. Telefono-zenbakia 688 80 91 37 da eta hainbat lekutan egongo da ikusgarri.

## Jarraipen zabala Goiena telebistan

**Makalaren igoera**
- Ekainak 23, 17:45. Zuzeneko kontakizuna, Herriko Plazatik.

**San Juan gaua**
- Ekainak 23, 22:15. EITBrekin elkarlanean, San Juan sua piztea eta errementari dantza, zuzenean.

**Entzierroa**
- Ekainak 24, 08:45. Entzierroa eta plazako saioa, zuzenean.

**Hemen Debagoiena**
- Ekainak 26, 18:00; 20:00 eta 22:00. Jaien gaineko kontakizuna.

**Saio berezia**
- Ekainak 27, 21:00 eta 23:00. San Juan jaien errepaso zabala.

**Dragoi jan euskaldunagoa**

Bihar, zapatua, egingo dute dragoi jana, 20:30ean hasita. Sortu zutenean, jaietan euskararen presentzia bultzatzeko helburuarekin sortu zuten, euskal giroa indartzeko. Antolatzaileak AED eta AEK izanik, hasierako helburu hori mantentzen saiatu dira urtez urte, eta aurten indar berezia jarriko dute hor.

Orain arte ere askotariko ekintzak egin izan dituzte, euskal giroa sustatze aldera; besteak beste, tribialean euskarari eta euskal kulturari buruzko gaiak jarri, pegatinak eta pankartak jarri eta abar. Aurten, halere, beste aurrerapauso bat egin gura izan dute.

Hala, batetik, *Euskaraz jo ta fuego!* leloa berreskuratu dute. "Hau izan da hainbat urtez erabili izan dugun leloa, eta aurrerantzean mantentzea da asmoa, erakargarria bezain esanguratsua iruditzen baitzaigu". Horrekin lotuta, leloa modu nabarmenean irakurgai jarriko dute eta AED-ko eta AEK-ko pegatinekin eta banderatxoekin apainduko dute plaza. Azkenik, afaltzera doan herritar bakoitzari orri bat banatuko diote, bertso batekin, euskaraz aritzeko gonbidapena eginez. Arrakastatsua izango da; izan ere, dagoeneko 350 txartel saldu dituzte.

**San Juan gaua, zuzenean**

Goiena telebistak jarraipen zabala egingo die sanjuanei, gaurtik. *Hemen Debagoiena* saioa

**'INDARKERIA SEXITARIK GABEKO GUNEA' JARRIKO DUTE ARBOLAPETAN, DOMEKARA ARTE**



Iazko makalaren igoeraren lehen indar kolpeak. Gaur, 18:00etan hasiko dira lan horretan, Herriko Plazan. GOIENA

## "Hasi nintzenean, udaletxeko ganbaran entseatzen genuen"

**EVA ROMERO** HELDUEN DANBORRADAKO ZUZENDARI NAGUSIA

6 urterekin hartu zuen parte lehenengoz danborradan Eva Romerok (Arrasate, 1977). Aurten 40 urte dira ordutik eta izan diren danborrada guztietan hartu du parte orain arte.

**Nola gogoratzen dituzu hasierako urte haiek?**
Oso presente dut hasiera hura, eta garai goxoak eta politak izan zirelako izango da hori. Entseguak udaletxeko ganbaran egiten genituen, eta gero, San Frantziskon, klaustroetan.

**Hasi zinenetik danborrada guztietan egon zara, ezta?**
Bai, eta denetik egitea egokitu zait. Barril-jotzaile, kantinera, eskoziar eta abar. Gainera, bazegoen Konpainia Berria zeritzona, eta hango zuzendari ere izan nintzen, 14 urterekin. Gero, nagusien danborradara pasatu nintzen, barril-jotzaileen zuzendari, eta, ordutik, urte guztietan zuzendari izan naiz, bi urtetan izan ezik. Haietan, zaldian irten nintzen.



E.A.B.

**2017an izan zinen zuzendari nagusi lehenengoz, eta lehen emakumea izan zinen.**
Nestor Maidaganek utzi egin zuen eta niri esan zidaten ordezkatzeko. Sorpresaz hartu nuen hasieran, baina oso modu naturalean egin genuen aldaketa, emakume izate horri askorik erreparatu gabe.

**Zer da sanjuanetako danborrada zuretzat?**
Modu naturalean hartzen dudan hitzordua da; gustura aritzen naiz saltsan, eta oso ondo pasatzen dut urtero.

**Zenbat izango zarete aurtengo danborradan?**
280 parte-hartzaile eta bandako musikariak; beraz, ia 300 lagun. Konpainiei dagokienez, hamaika egongo dira danborrak astintzen.

**Horietako bi, berriak: Elma eta Mondrauko Gaztiak.**
Bai, eta oso pozik hartu ditugu. Danborradak beti izan ditu ateak irekita eta SUDC elkarteak beti animatu izan ditu herritarrak parte hartzera. Bi konpainia berri izateak esan gura du danborrada osasuntsu dagoela eta ari dela jende berria ere batzen.

**Badirudi aurten eguraldia lagun izango duela danborradak.**
Bai; iaz zerura begira ibili ginen eta zaparrada batzuk ere izan genituen. Aurten, badirudi lasaiago egongo garela, danborradaz behar moduan gozatzeko moduan.

**Beste 40 urtean parte hartuko duzula uste duzu?**
Gorputzak aguantatzen duenera arte, behintzat, bai. Beste 40 urte badira, primeran, eta beste bi badira ere, gustu handiz.

Herriko Plazan grabatuko dute, zuzenean, 17:45ean hasita. Hala, makalaren igoeraren zuzeneko kontakizuna egingo du Larraitz Zeberio aurkezleak, Aitor Agirianok eta Oihan Loitik lagunduta. Gazteek makala plazara zelan eroaten duten ikusi ahal izango dute ikus-entzuleek, eta baita osteko igoera ere. Ondoren, 22:15ean hasita eta ETBrekin elkarlanean, San Juan gaua ere zuzenean jarraitu ahal izango da, Goienako kazetari Txomin Madinaren eta Xabier Urzelairen eta ETBko Ilaski Serranoren eskutik. Era berean, biharko entzierroa eta zezen-plazako saioa Goiena telebistan eta *Goiena.eus*-en jarraitu ahal izango dira, 08:45ean hasita.

**Entzierroa, neurriak indartuta**

Jon Garai Kultura teknikariak azaldu du iazko entzierroko pilaketa dela-eta neurriak indartu dituztela aurten; bereziki, prebentzio eta komunikazio mailan. "Egitarauan zehatzago adierazi dugu parte hartzeko baldintzak zeintzuk diren. Era berean, ahoz ere gogoraraziko dugu hori, grabatutako ahots batekin". Azkenik, ibilbideko segurtasuna bermatzeko, "leku konkretu batzuetan" hesiak indartuko dituzte. "Urtero egiten da azterketa bat, eta aurten, iazkoa ikusita, are gehiago", dio.

Esan moduan, askotariko ekintzak egongo dira asteburuan, eta, jaien egitura betikoa den arren, badaude izen propio batzuk jaiei "kolore berezia" ematen saiatuko direnak (Ikus egitaraua, beheko QRa eskaneatuta).

Egitaraua ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.













# Momentuz, ezingo dute Amaia antzokia zabaldu

Domeka arratsaldeko euri-zaparrada mardulen ondorioz, itoginak izan ziren antzokian eta pandero jaialdia bertan behera utzi behar izan zuten; orain, kalteak kuantifikatzea dagokie perituei, baina "esku-hartze garrantzitsuak" egin beharko dituzte, ia seguru

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE
Itoginak atzeman bezain pronto, segurtasun neurriak hartu eta antzokia hustu behar izan zuten, eta ordutik itxita dago Amaia antzokia. "Zorionez, igandean ez zen kalte pertsonalik izan; bai, ordea, kalte materialak. Oraindik erabat kuantifikatu gabe badago ere, kalteak nabariak izan dira koadro elektrikoetan, ezkerraldean azken urteetan dagoeneko agerikoak ziren hezetasun arazoak zabaldu dira, eta eszenatokiko zorua kaltetua izango dela aurreikusten da hezetasunarekin batera", azaldu dute Udal Gobernuko ordezkariek. Gaineratu dute gaur-gaurkoz "hezetasun handia" dagoela antzokian eta, momentuz, ezingo dutela zabaldu.


Amaia antzokiko hormetako bat, hezetasunak janda. IMANOL SORIANO

Orain, kalteak aztertu eta kuantifikatzea dagokie aseguru etxeko perituei. Edozelan ere, Gobernutik aurreikusten dute "esku-hartze garrantzitsuak" egin beharko dituztela antzokia bere onera itzultzeko, eta "ezinbestekoa" izango dela antzokian hobekuntzak egitea. "Orain gertatutakoak urteetan konpondu gabeko arazoak kronifikatu ditu, eta haiei erantzuna eman beharko diegu", nabarmendu du.

**Uda sasoia, gakoa**

Kalteak sasoi honetan gertatu izanak bere alde ona ere izan du, udal ordezkarien arabera; izan ere, Amaia antzokiaren egitaraua asko murrizten da uda garaian eta programazio gehiena kalean egin ohi da. "Horrek aukera ematen digu kalteak kuantifikatzen joateko eta gertatutakoaren azterketa sakona egiteko. Modu horretan, uda garaiko *impasse*-a aprobetxatuko dugu kalteak ondo aztertu eta konponketak egiteko. Bide batez, sakoneko arazoak identifikatzeko aprobetxatuko dugu eta aurrera begirako esku-hartzea diseinatzen hasiko gara, Arrasatek merezi duen antzoki duina izan dezan".

**Beste hainbat kalte ere bai**

Amaia antzokian ez ezik, Kulturate eraikinean eta zenbait garajetan ere sartu zen ura, eta Uribarri eta Musakola auzoak ere kaltetu zituen. Azken hartan, erretiratuen etxean sartu zen ura, eta hango erabiltzaileek azaldu dute, gainera, ez dela lehen aldia. "Estoldak erabat zikin daude eta sekulako putzuak sortzen zaizkigu halako ekaitzak dauden aldiro. Ondo garbitu beharko lirateke estolda guztiak", azpimarratu zuten erabiltzaileek.

**Data berriaren bila**

Arrasate Trikitixa Eskolakoek esker mezuak izan dituzte jaialdiaren bueltan lanean aritzen diren guztiendako, eta aurreratu dute data berriaren bila ari direla dagoeneko. Sarreren dirua, berriz, erositako bide beretik bueltatuko diete herritarrei. "Ibai-arteko zozketan lortu duzuenok, gorde sarrera", diote.

## Martxan da udalbatza

Joan den zapatuan egin zuten udalbatza berria eratzeko osoko bilkura, eta EH Bilduko Maider Morrasek hartu zuen alkate kargua, EH Bilduren eta Elkarrekin Arrasateren aldeko botoekin eta EAJren eta PSE-EEren boto zuriarekin. Duda bakarra da Elkarrekin Arrasate Gobernuan sartuko ote den. Negoziazioak "bide onetik" doazela diote.


E.A.B.














NIRE USTEZ

ENERITZ URRUTIA

## Ederra bezain gogorra

Egunetik egunera ohartzen zara bizitzak dituen aldaketez, bizitzako joan-etorriez, bizitzako jirabirez. Tamalez, astean notizia izan da txirrindulari profesional baten galera. Beti bezala, beste edozein lasterketatarako bezala prestatu eta abiatu zen hura; nork jakingo zuen haren azkena izango zela, ez zuela eguneko jirabirak kontatzeko aukerarik izango, lasterketa osteko anekdotak, autobuseko lekualdaketa orduak, familiarekin hitz egiteko uneak... Notizia goibela izan da, eta zenbat eta zenbat gertatzen diren notizia izaten ez direnak baina bizitzako testuinguru berean aurkitzen direnak. Gogorra da askotan bizitza, eta gatozen bezala bagoaz, goazen bezala amaitzen da dena.

Askotan, ez dagoen tokian ere zerbait ikusten dugu, eta horrelakoen artean gaudenean konturatzen gara egunero bizitza bat hasten dugula, egunero aukera bat dugula. Irribarre batekin lanera joaten bagara, hobeto, edo atzoko istilua gaur ahazten badugu, ederto. Umore onez, errealitatea beste begi batzuekin ikusten baita.

Denborak, bizitza, aukerak, uneak, hizketaldiak, poteoak, kirol momentuak... denak dira bakarrak, denak bereziak. Hitzez erraz esaten ditugunak, baina askotan ahazten ditugunak, batzuetan gogoratzeak laguntzen digutenak. Maixa eta Ixiarren *Paradisua basamortu* nire kanta gogokoenetako batek dioen bezala: *Ez dela asko kostatzen maitasun paradisua basamortu bilakatzen.*



EDURNE ELKORO

## Dominekin itzuli dira Arrasatera

Tarragonako Cunit herrian asteburuan jokatu zen Espainiako Aerobikeko Txapelketan izan ziren Arrasateko Dragoi gimnasia taldeko kideak. Aerodance, step, gazte eta infantil kategorietan emaitza bikainak lortuta, dominekin itzuli ziren Arrasatera. Egindako lana "txalotzekoa" dela nabarmendu du Arrasateko *dragoien* arduraduna Edurne Elkorok.

## Tourraren harira, ikurrinak salduko ditu Gure Eskuk

Uztailaren 2an Arrasatetik pasako da Tourraren bigarren etapa, eta hori baliatu gura dute "herri baten borondatea eta determinazioa" nazioartean erakusteko: "Gure ikurrak errepidera ateraz". Hala, Gure Eskuko ikurrinak eskuratzeko, salmenta mahaiak jarriko dituzte Portaloian.

Bost eurotan salduko dituzte, ekainaren 26tik uztailaren 1era. Horiek erosteko aukera 19:00etatik 20:30era bitartean egongo da. Tartean, ekainaren 24ko dragoi jana ere horretarako baliatuko dute. Gure Eskuk herriko bazter guztiak "gure ikurrez" betetzeko dei egin die herritarrei.















# "Lan onak izan ditu bere fruituak, azkenean"

**CARLOS SANCHEZ BERRIO** SAIOA KARATE KLUBEKO ENTRENATZAILEA

Saioa Karate Klubak irabazi du AKS Arrasateko kirolaririk onenaren saria, botoen %38 eskuratuz. "Harrituta eta pozik" jaso dute saria klubeko kideek

**Miren Arana Pagaldai** ARRASATE

Arrasateko Udalak bigarrenez antolatu ditu Arrasateko kirolari onenak eta kirol ibilbide aipagarrienak saritzea eta errekonozitzea helburu duten Arrasate Kirol Sariak. Kulturolan eginiko ekitaldian, Saioa Karate Klubak eraman du kirolari onenaren saria; herritarrek klubak izan duen "denboraldi bikaina" nabarmendu du, boto guztien %38 klubari emanez.

**Urte paregabea izan duzue eta herriak jakin du nori eman merezitako sari hori. Nola jaso duzue saria? Espero zenuten?**

Ez genuen espero; ehunekoa atera denean pentsatu dugu geunden izendatu guztiontzat asko zela, eta oso zaila zela gu izatea irabazleak. Orduan, sorpresa izan da. Gutxiengoen kirola izanik, publikoaren saria lortu dugu, eta oso harro gaude; esker ona adierazi nahi diegu botoa eman diguten guztiei.

Kirolari asko daude Arrasaten, oso onak eta maila handikoak; eta guztien gainetik herritarren aukera onena gu izateak harrotasunez betetzen gaitu. Publikoaren sariaren irabazle izateak asko poztu gaitu, eta baita urtean zehar egindako lana erakusteko aukera izateak ere.

**Kirola oinarri hartuta, nola joan da urtea? Zein da egin duzue feedbacka?**

Lehiaketaz betetako urtea izan dugu eta oso emaitza onak lortu ditugu. Txapelketetara joan eta emaitza onik ez izatea frustragarria da, eta, hori kiroletan asko lantzen den arren, zaila da eramaten, egiten duzun saiakerak erantzunik ez duela ikustea gogorra da benetan. Urte bikaina izan dugu, hala ere, kideek izandako ardura eta esfortzuagatik: ikaragarria izan da entrenamendu guztietan erakutsi duten borondate indarra; eta lan onak izan ditu, azkenean bere fruituak.



Saioa Karate Klubeko kideak, kirolari onenaren saria jasotzen. ARRASATEKO UDALA

**"KIROL MINORITARIOA IZANIK, PUBLIKOAREN SARIA LORTU DUGU, ETA OSO HARRO GAUDE"**

**Urteko helburuak bete dituzuela esango zenuke?**

Bete, eta baita gainditu ere. Helburu nagusia dominen arteko borrokan egotea zen, eta lortu egin dugu. Argi eduki dugu hasieratik ez dela beti irabazten, baina egunero entrenatzen eta saiatzeak badu bere meritu eta saria, eta guk, behintzat, nabaritu dugu hori. Maiatzean Valentzian jokatutako kyokushin txapelketatik lau txapeldunekin itzuli ginen, bakoitza bere kategorian: Xavier Varteniuc, Danel Izurrategi, Aratz Ezpeleta eta Aitor Madinabeitia.

**Behin kurtsoa amaituta, hurrengora begira jarri behar. Zer duzue aurretik?**

Datorren ikasturtean ere txapelketa asko ditugu. Azaroan Munduko Txapelketara joateko aukera izango dugu, Espainia mailan postu ona lortu dutenek joateko aukera dute, eta abuztuan entrenamenduekin hastea pentsatzen ari gara. Saioa Karate Klubeko sei kidek, behintzat, Europako Txapelketan parte hartzeko aukera izango dute, Espainiako lehiaketan goreneko postuak lortu baitzituzten: Xavier Varteniuc, Danel Izurrategi, Aitor Madinabeitia, Irati Izurrategi, Leire Valor eta Josu Madinabeitia.

Bestela ere, Gipuzkoa mailako eta Estatuko txapelketak ere izango dira; beraz, uztailean atseden hartuko dugu, baina berehala jarriko gara berriz ere martxan. Iraileko entrenamenduak abuztukoak baino gogorragoak izateko ideia dugu.

**Bigarrenez Munduko Txapelketan lehiatzeko aukera izango duzue, ezta?**

Bai; 2021ean ere egon ziren taldeko hiru lehiatzen: Leire, Danel eta Aitor. Polonian egin zen Munduko Kyokushin Txapelketan lehiatu ziren, hain zuzen. Aurten hiru horiek ere parte hartzeko aukera izango dute, baina eurena eta euren kideena da erabakia.

## Udalaren errekonozimenduak



Errugbiko amen taldeak Udalaren aitortza jaso zuten. ARRASATEKO UDALA

**Errugbiko amen taldea** Amek aitortu zuten oraindik ez dutela barneratu saria jaso izana. "Ahaldundu egin gara emakumeak, eta errekonozimendua ez da Arrasate Rugby Taldearentzat bakarrik, Arrasateko ama guztiendako da", adierazi zuten ekitaldian.




Sasoibide taldeko bi kidek jaso zuten saria. ARRASATEKO UDALA

**Sasoibide taldea**. Sasoibideko taldeko kideek harriduraz jaso dute Udalak emandako saria. "Errekonozimendu honek gure lana aintzakotzat hartzen dela erakusten du, merezi duela, eta alferrikako lana ez dela", azaldu zuten AKS sarietan.



Karmelo Bergaretxe, kirol ibilbidearen sariaren irabazle. ARRASATEKO UDALA

**Karmelo Bergaretxe**. Kirol ibilbidearen saria jasotzea "ohore hutsa" dela aitortu du Karmelo Bergaretxek. Hauxe zioen: "Sari hau ez da nirea bakarrik, Besaide Mendizale Elkartean lanean ibili diren guztientzako da saria".


LHko seigarren mailako ikasleak agur ekitaldian. MIREN ARANA

# Ibilbide berria ilusioz hasteko, agur ekitaldia

Aramaixo Herri Eskolako ikasleek eta komunitateak agur ekitaldia izan zuten eguaztenean; LHko seigarren mailakoek Haur eta Lehen Hezkuntzako ibilbidea amaitu dute, eta agurra izan zuten. Ikasturte berrirako, obrak egingo dituzte hirugarren zikloan

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO
Eguaztenean amaitu zuten ikasturtea Aramaixo Herri Eskolako neska-mutikoek; eta, ohitura den moduan, LHko seigarren mailako ikasleen agurra izan zuten kultura etxean egindako ekitaldian. Aramaioko eskolan egindako 10 urteko ibilbidea bukatu eta Arrasaten hasiko duten ibilbide berrirako indarrak hartzeko unea izaten da aipatutakoa. Eskolako komunitatearen babesa izaten zuten; ikasle, langile, irakasle, guraso... elkartu ziren kultura etxean.

**Bertsotan agurra**
Ekitaldia bertsoz jositakoa izan zen. LHko seigarren mailako ikasleak eurak izan ziren oholtza gainera igotzen lehenak; ondoren, bertsotan egin zieten bosgarren mailakoek, eta banan-banan agurtu zituzten. Gainera, eskolako ibilbidea iruditan ikusi zuten, 10 urteak laburbiltzen dituen bideo batean; protagonistek azken bertsoa bota zuten eta irakasleengandik opari bana jaso zuten.

Saioa Uriarte zuzendaria: "Gure ikasleak eta komunitatea oso ohituta gaude elkarrekin bizitzen, gure arteko ezagutza sakona izaten. Oso ohituta gaude adin ezberdinetakoen artean gauzak egiten, parte hartzen... Kultura hori errotuta daukagu eskolan. Gaur agur esan dutenek hori eramaten dute Arrasatera: ondokoa errespetatzea, onartzea... ". Aramaioko eskolarendako egun handia izaten dela gaineratu zuen zuzendariak.

"Nerabezaroan hasita daude ikasle horiek. Erabiltzen dugu gaurko eguna indarrez begiratzeko datorrenari, ez beldurrez. Izan ere, oso etapa aberatsa izan liteke: nork bere burua ezagutu eta topatzeko, eta munduan norberaren lekua topatzeko". Uriartek gehitu zuen ez dela agurra, gero arte bat baizik: "Irailean etortzen dira berriro; autobusetik jaitsi eta ilusioz esplikatzen digute zer egiten duten, ze irakasle tokatu zaien, egin dituzten lagun berriak...". Horrez gain, eskolako ekintzetan ikasle ohiek badutela lekua zioen: "Jarraitzen dute parte hartzen; adibidez, *Ir a kurrin kurrin* ekimenean, eskolako jaian... Bai eurek eta baita erretiratutako irakasleek ere".

**Obrak egingo dituzte**
2022-2023ko ikasturtean ez da irakaslerik erretiratu Aramaixo Herri Eskolan. Beraz, ez zuten agurrik egin eguaztenean. Ikasleek dagoeneko jai hartu duten arren, irakasleak azken lanak egiten dabiltza; besteak beste, ikasturte berria prestatzen. Uriartek azaldu du ekain amaieran lan batzuk egingo dituztela hirugarren zikloan. "Bi gela batuko ditugu, eta espazio bat sortu", azaldu du zuzendariak. LHko bosgarren eta seigarren mailak batuko dituzte udan egingo duten lanarekin.

## Serigrafia tailerra izango dute Gazte Uda! eskaintzan

12 eta 16 urte artekoendako egitaraua prest dute; izena eman behar da uztailaren 4rako

**A.E.G.** ARAMAIO
Uztaileko Gazte Uda! egitaraua prest dute Udalak eta Txirritola Euskara Elkarteak. Bi eskaintza mota antolatu dituzte: batetik, 12 urtetik gorakoendako Musika eta Artea udalekuak egongo dira. Uztailaren 10ean, 11n, 12an eta 13an abesti bat sortuko dute Pello Heriz eta Mikel Arriaran dinamizatzaileekin; 10:00etatik 14:00etara izango da, kultura etxean. Sortutako abestiaren irudi-diseinua sortu eta serigrafia egingo dute Edur Kortabarriarekin eta Beñat Zalakainekin; uztailaren 14an eta 15ean, Sastiñan. Beste eskaintza Natura eta Lagunartea izango da: uztailaren 6an eta 26an hondartzara txangoa egingo dute; uztailaren 18tik 20ra ekintzak, arratsaldeetan; eta uztailaren 21ean eta 22an Albinara joango dira. Izena eman daiteke uztailaren 4ra arte, udaletxean. Hain zuzen, eskaintza bakoitza 40 euro da.


A.E.G.

## Kargua hartuta, lanerako prest

EH Bilduko sei zinegotzien babesarekin izendatu dute Iban Herrarte Arana Aramaioko alkate. "Legeak hala behartuta" formula erabili zuen karguaren zina egiteko, baita gainerako zinegotziek ere: Martin Arriolabengoak, Amaia Pavonek, Libe Ramilak, Igor Iker Ezpeletak, Asier Agirrek, Alberto Amenabarrek, Jonatan Morenok eta Teresa Moniluevok. Herritarren esku utzi zuen aginte-makila Herrartek; herriarendako lan egiteko daudela esan zuen. Gainera, Lierni Altunak hunkituta eta eskertuta utzi zuen alkate kargua.

## Dantza taldera animatu nahi dituzte herritarrak

Lagun Artean dantza taldea ikasturte berrira begira lanean hasita dago jada. Dantza taldean parte hartzeko gonbita egin die herritarrei; hala, izen-ematea zabalik dute. Interesa duten herritar guztiak animatu nahi dituzte, heldu zein ume. Interesa duenak idatz dezala mezua *lagunartean60@gmail.com* helbidera.

Astean zehar ordubeteko entsegua egiten dute, eguenetan edo barikuetan –ikasturtea, 90 euro–. Adinaren arabera taldeka sailtzen dituzten dantzariak. Betiko dantzak eta koreografiak erakusten dituzte; gainera, herriko jaietan dantza egiteko aukera eskaintzen du taldeak.

## San Juan jaiak ospatuko dituzte Azkoaga auzoan

San Juan jaiak ospatuko dituzte Azkoagan. Gaur, 18:00etan, txopoa igoko dute; ondoren, umeendako jolasak izango dituzte, eta baita parrillada ere. Sua piztuko dute 22:00etan, Sorgin Kalejirie trikitilariek lagunduta. Aste bukaerako ekitaldi nagusia Bea Asurmendi musikari aramaioarraren kontzertua izango da, bihar, zapatua, 19:30ean. Boskote formatuan igoko da taula gainera. Zapatuan, gainera, trikitilariek lagunduta parrillada egingo dute, eta 17:00etan briska eta mus txapelketa eta umeen jolasak. Domekan, meza esango dute 13:00etan, eta, ondoren, auzo bazkaria eta erromeria izango dute.




Loramendi elkarteko zuzendaritza batzordeko kide ohiak eta berriak hainbat langilerekin. LORAMENDI ELKARTEA

# Loramendi gertu dago 30. urteurrenari heltzeko

Batzar orokorra egin zuen euskara elkarteak martitzenean, eta, iazko jarduna onartzearekin batera, aurtengo aurreikuspenen berri eman zuen; zuzendaritza batzordea berritu egin du, eta Lierni Zangituk hartu du presidente ardura

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Loramendi elkarteko zuzendaritza batzordeko kideak, langileak eta hainbat bazkide elkartu ziren martitzenean egindako batzar orokorrean. Gaur egun abian dituzten proiektuen berri eman zuten, hiru arlotan banatuta.

Aisialdiaren baitan ludoteka zerbitzua eta Loratu ekimena daude; hori, udalekuei bideratuta, bereziki.

Euskararen erabilera eta hurbiltzea helburu dituen alorrean umeei eta helduei bideratutakoak daude: herrira iritsi berri diren umeendako hizkuntza errefortzua, batetik, eta aniztasunaren bueltakoak, bestetik: Barriketan, Auzoko eta Bihotza Ulersaioak, besteak beste. Azken horien arduradun Miren Igartuak agur esan zuen, eta datorren irailean bideratzaile berria hautatuko dute. Azkenik, jarduera orokorren barruan, Toponimia eta Kultura taldeak daude. Gorka Madinabeitiak aurreratu zuen 2022ko urtarrilean aurkeztutako *Aretxabaleta. Hamaika ibilaldi eta istorio* liburua moldatzen dihardutela eta udazkenerako argitaratu gurako luketela.

Iazko jardueren berri ere eman zuten –besteak beste, Euskaraldia eta Korrika–, eta diru-kontuak onartu.

### Hainbat erronka

Aurtengo erronken artean bada bat potoloa: 30. urteurrena. Abenduaren 10ean izango da hori, eta hari begira asmoa da hilabete guztietan antolatzea ekintzaren bat edo beste herritarrekin batera ospatzeko.

Horrekin batera, euskararen kale erabileraren gaineko lanketak egin gura dituzte, eta hausnarketa-prozesua abiarazi. "Erabilerak kezkatzen gaitu, eta horri heldu gura diogu. Saiakeraren bat edo beste egin da, gurasoekin, esaterako, baina ez du arrakasta handirik izan", azaldu zuten.

**ZUZENDARITZA BATZORDEA BERRITU EGIN DUTE; LIERNI ZANGITUK HARTU DU PRESIDENTE ARDURA**

### Zuzendaritza batzorde aldaketa

Azken bederatzi urteetan lanean jardun duen zuzendaritza batzordeak –Iñigo Iñurrategi, Marga Garmendia, Gorka Madinabeitia, Aiora Filarmendi, Miren Arietaleanizbeaskoa eta Unai Bengoa, besteak beste– kide berriei pasatu die lekukoa. Hala, honako hauek osatuko dute: Lierni Zangitu –presidentea–, Julen Perales, Olaia Etxenagusia, Amaia Berezibar, Xabi Antxia eta Mirari Altube. Haiei besteren bat batuko zaie. "Lasai uzten dugu kargua, proiektu politak daudelako abian eta atzetik datozenek jarraipena emango dietelako", adierazi zuten; eta agurra bertsotan egin zuen Iñurrategi presidente ohiak.

## Dantzek, suak eta tantaiak girotuko dute San Juan bezpera

Plaza Dantzarekin hasiko dute ospakizuna, eta tantaia altxatuta bukatu; eta iratzeak jarriko dituzte atarteetan

**M.A.** ARETXABALETA

Udako solstizioak eta San Juan bezperak bat egingo dute gaur, ekainak 23, eta horren bueltako ospakizunik ez da faltako, beste behin. Ekitaldiak hasiko dituzte Leizarra musika eskolako kideek, Dantza Plaza eskainita; 18:00etan izango da, Herriko Plazan, eta edonori irekia izango da. Ondoren, buruhandien kalejira izango da, txistulariek lagun eginda, 19:15ean; eta gero, 20:45ean, Bide Batez taldeak dantzaldiari ekingo dio. Kalejira egingo dute dantzariek, 22:15ean, eta Herriko Plazara iritsitakoan sanjuanetako zortzikoa dantzan egin eta sua piztuko dute.

### 2005ean jaiotako kintoak

Tantaia altxatuko dute gauerdiaren bueltan, ohiturari eutsita. 2005ean jaiotako neska-mutilek izango dute aurten horren ardura: 95 inguruk.

Bestetik, boluntario talde batek herriko atarte guztietan iratzeak zabalduko ditu aurten ere; horietako batzuetan, gainera, gurutzeak jarriko dituzte.



MIRARI ALTUBE

## Gari Iturbe buru, lanean hasita

Joan den zapatuan eratu zen udalbatza datozen lau urteetarako, eta alkate ardura hartu zuen EH Bilduko Gari Iturbe Etxebarriak. Agintaldi berriari ekin zioten orduan, eta lehenengo osoko bilkura, ezohikoa, astelehenean egingo dute; Gobernu Batzordea eratu eta alkatearen eta zinegotzien dedikazioak zehaztuko dituzte, besteak beste.

### Gu Haziak Gara elkarteak hainbat ikastaro antolatu ditu

Uztailean zehar hainbat ikastaro eskainiko ditu Gu Haziak Garak; besteak beste, honako hauek: joskintzan murgiltzeko bi, estanpazioaren gainekoa, kakorratz-lanak egiteko, muralak margotzen ikasteko eta eskumuturrekoak egiteko. Izena emateko elkartera jo behar da: *guhaziakgara@gmail.com* eta 681 65 59 39.

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

# "Hassania ezinbestekoa da gure izaerari eusteko"

**SALMA AHMED** IKASLEA

Errioxan jaio eta Aretxabaletan bizi da 2012a ezkero gazte sahararra. Etxean ikasi du hassania hizkuntza, eta horri eustea du helburu, jakin arren samurra ez dela izango

**Mirari Altube** ARETXABALETA

Salma eta Embarka Ahmed (2006) ahizpa bikien gurasoak, biak sahararrak, Espainian ezagutu ziren eta ezkondu. Errioxan jaio ziren gazteak, eta 5 urte inguru zituztela Aretxabaletara etorri. Amarekin bizi dira eta Arrasateko Institutuan batxilergoa ikasten dihardute. Hassania dute hizkuntza etxean, baina hori galduko ote duten kezka agertu du oraintsu Salmak, GOIENA aldizkarian argitaratutako gutun batean.

**Kezka hori baduzu.**

Etorkinek eta haien seme-alabek bizi duten egoera erakutsi gura nuen. Ez dut esan gura izan hassania ez didatenik erakutsi, baizik eta herrialdetik kanpo bizita eta beste hizkuntza asko erabilita egunerokoan, hemengo komunitatean egokitzeko ahalegin horretan, gurea galduaz doala. Eta horri eusteko laguntza behar dugu, berandu izan aurretik. Orokorrean, nerabe elebidunok bizi dugun egoera dela ere esango nuke.

**Etxean hassania erabiltzen duzue?**

Bai; amarekin beti. Hori bultzatu izan digu umetatik. Esaten digu gure herrialdetik urrun bizita eutsi egin behar diogula eta hura ez dela gurekin betiko egongo. Ahizpok, gure artean, hirurak nahasten ditugu: euskara, gaztelera eta hassania.



Salma Ahmed, Durana kalean. M. ALTUBE

**Eta zu ere iritzi berekoa zara.**

Bai, uste dut saharar izaerari eusteko garrantzitsuak direla bai hizkuntza eta bai kultura. Umetan ez ginen konturatzen, baina orain badakit horiek direla nire izaeraren ardatzak. Eta, saharar herrialdearen egoera zein den jakinda, ezinbestean bultzatu behar dira.

**Saharar komunitatea badago Debagoienean.**

Bai, baina hemen bizi diren gazteek gaztelerara jotzen dute.

**Saharan izan zarete sekula?**

Birritan. Lehenengoz, 4 urterekin, eta gero, 12rekin. Azken bidaian hilabete pare bat egin genituen Tinduf inguruko errefuxiatuen kanpamendu batean.

**Zelako esperientzia izan zen?**

Hasieran, sekulako txokea: bero handia egiten zuen, argindarra sarri joaten zen, eta pobrezia. Baina gero, buelta eman genion: umeak oso eskertuta zeuden eta senideekin egotea handia izan zen. Izugarri ikasi genuen eta asko gustatu zitzaigun.

**Etorkinen bigarren belaunaldikoak zarete zu eta ahizpa.**

Bai; hemen esaten digute: "Sahararra zara, e? Eta, gainera, badakizu hassania!". Eta han egon ginenean: "Euskal Herritik etorritakoa, e, igartzen da zure hizkeran". Hemen jaio nintzen eta hazi, Euskal Herria asko maite dut eta hemengoa naiz, baina sahararra ere banaiz eta hala sentitzen naiz.

**Etorkizuna zelakoa irudikatzen duzu zuk zeuk?**

Batxilergoa bukatu eta unibertsitatera joan gurako genuke bi ahizpok. Eta, noski, Sahara libre batekin amesten dugu; umetatik erakutsi digute gure Sahara okupatuta dagoela, eta lurralde askera itzultzeko nahia dute gurasoek eta guk.




M.A.

## 'Katarsi feminista' ikusgai

Presio estetikoaren eta lodifobiaren aurkako *Katarsi feminista* erakusketa ekaina bukatu arte egongo da Arkupen. Bartzelonan bizi den Amaia Txabarri arrasatearrarena da, eta argazki bidez agerian utzi gura izan du presio estetikoa indarkeria mota bat dela. Autoestimua eta gorputz-onarpen kolektiboa sustatzeko sortu du proiektu hori.

### Lau eta erdiko mendebaldeko finalak jokatuko dira gaur

Lau eta erdiko Mendebaldeko Txapelketa iritsi da bukaerara, eta kadete mailan UDA kirol elkarteko pilotari bi izango dira nor baino nor gehiago. Iturrigorri pilotalekuan jokatuko dituzte bi finalak, gaur, egubakoitza, 18:30ean hasita.

Kadeteen bigarren mailan Gonzalez Lazkaoko Landaren aurka lehiatuko da; eta lehenengo mailan, Otazu gatzagarra Azkoitiko Arregiren aurka.

Ahsan eta Ibabe infantilek, ostera, Errendimenduko Udaberri Txapelketako finala jokatu zuten joan den astean, Intxurreren aurka, eta, "gogotsu borrokatu" arren, ez zuten irabazi (18-7).

### Andramaixak iragartzeko kartel lehiaketa abian da

Andramari jaiak iragarriko dituen horma-irudia lehiaketa bidez hautatuko du Udalak, beste behin, eta proposamenak jasotzeko epea zabalik dago, uztailaren 7a arte. Edozein teknika erabili ahal izango da horretarako, eta DIN-A3 neurria izan beharko du; testua, ostera, honako hau: *Andramaixak 2023; Abuztuaren 13a, 14a, 15a, 16a eta 17a; Aretxabaleta*. Lanak posta arrunt bidez bidali ahal izango dira udaletxera edo posta elektroniko bidez helbide honetara: *kultura@aretxabaleta.eus*. Uztailaren 18an emango dute aditzera kartel saritua zein den, eta haren egileak 300 euro jasoko ditu.





Bi haur igerilekuan, urpean jolasten. ESKORIATZAKO UDALA

# Uztailean kirol jarduera ugari probatzeko aukera

Manuel Muñoz kiroldegian zumba, pilates, body tono, indoor txirrindularitza eta aquagym saioei ekingo diete, uztailaren 3an hasita; 12 urtez azpikoak, ostera, igeriketan trebatu ahalko dira. Izen-ematea martitzenean amaituko da, hilak 27

**Hasier Larrea** ESKORIATZA

Irakasleen laguntzarekin jarduteko sei kirol modalitate eskainiko ditu Eskoriatzako Udalak Manuel Muñoz kiroldegian uztailean zehar. Oraindik ikastaro guztietan eman daiteke izena, ekainaren 27ra arte. Horretarako, bi modu daude: kiroldegira deitu edo bertaratzea; eta egoitza elektronikoaren bidez apuntatzea.

**Txikienentzat, igeriketa**

Barruko igerilekua 5 eta 12 urte arteko haurrek erabiliko dute gehien. Hasiberriek oinarrizko igeriketa ikastaroari atera diezaiokete etekina eta gutxieneko maila dutenek, ikastaro aurreratuari. Modu intentsiboan parte hartzekoak dira biak, astelehenetik ostegunera, arratsaldero baitaude igeriketa eskolak, 17:30etik 18:30era hasiberrientzako eta 18:30etik 19:30era aurreratuentzako. Eskola horiek bi aste iraungo dute; hortaz, neska-mutilak zortzi orduz ibiliko dira uretan.

**Aquagyma ere bai**

12 urtetik gorakoen igerilekuko eskaintzari dagokionez, asteazken eta ostiral goizetan 09:30etik 10:30era daude programatuta aquagym saioak. Kiroldegitik adierazi dutenez, "harrera ona" izan ohi duen modalitatea da: "Musikaren erritmora gorputza eta erresistentzia lantzeko aproposa da".

**Lehorreko saioak**

Aerobika eta dantza uztartzea gustuko dutenek zumba saioak dituzte eskura. Goizeko eta arratsaldeko talde bana antolatuko dute alor horretan, ikastaroak astelehen eta eguaztenetan 09:30etik 10:30era eta martitzen eta eguenetan 17:30etik 18:30era programatu baitituzte. Aldiz, gimnasia, balleta eta yoga nahastu gura dituenak pilates saioetan eman dezake izena. Goizeko txandak martitzen eta eguenetan izango dira, 09:30etik 10:30era, eta arratsaldekoak astelehen eta eguaztenetan, 18:00etatik 19:00etara bitartean.

**TALDEAK OSATZEKO GUTXIENEKO KOPURUA BETE BEHAR DELA ADIERAZI DUTE KIROLDEGITIK**

Gantza kentzeko eta indarra hartzeko beste modu bat body tonoa praktikatzea da. Barrak eta diskoak altxatzean datza, eta, proba egin nahi izanez gero, ikastaroak astelehen eta eguaztenetan 19:00etatik 20:00etara izango dira.

Azkenik, barruko txirrindularitza edo *ziklo indoor* delakoa ere aukera daiteke. Aktibitate horretarako egokitutako bizikleta estatikoekin egiten da, eta arlo kardiobaskularra lantzea du ardatz. Saio horiek martitzen eta eguenetan izango dira, 10:30etik 11:30era, batetik, eta 18:00etatik 19:00etara, bestetik.

Bestela, ohiko ordutegian egongo da zabalik kiroldegia uztailean.

## Zabalik dago Itsaraz proiektuari alegazioak jartzeko epea

Parke eolikoaren gaineko informazioa publikatu dute, eta alegazioak uztailaren 4ra arte aurkeztu daitezke

**H.L.** ESKORIATZA

Espainiako Ministerioak Itsaraz Parke Eolikoari buruzko datuak publikatu ditu. Hain zuzen, aurretiazko administrazio-baimenen eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozeduraren tramitazioaren berri eman du. Eskoriatzako udal webgunean dago informazio hori deskargatzeko esteka. Modu presentzialean ere eskura daiteke, Arabako, Gipuzkoako zein Bizkaiko gobernuen ordezkariordetzetako Industria eta Energia bulegoetan, aurrez hitzordua eskatuta.

Alegazioak aurkezteko bi modu daude: euskarri fisikoan, idatziz, ordezkariordetza horien erregistro orokorrean aurkeztu ahal izango dira; eta elektronikoki, berriz, Estatuko Administrazio Orokorraren erregistro elektronikoaren bidez.

Norvegiako Statkraft enpresak 2026rako aurreikusi du Eskoriatza eta Aramaio arteko parke eolikoa eraikitzea. 42 milioi euroko aurrekontuarekin, 201 metroko altuerako eta 172 metroko errotazio diametroko zortzi aerosorgailu jartzea da asmoa.



MIREN ARREGI

## Lanerako gertu

Joan den zapatuko udalbatzaren eraketan Edorta Zubizarreta izendatu zuten alkate, EH Bilduren aldeko zazpi botoekin. EAJkoak abstenitu egin ziren eta Joserra Zubizarretak uko egin zion zinegotzi kargua hartzeari; haren ordez Josu Ezkurdia sartu da udalbatzan. Hala, hamaika zinegotzietatik zazpi EH Bildukoak izango dira eta lau, EAJkoak.

## OHARRAK

### San Juan bezpera

Gaur, hilak 23, 2006an jaiotakoek 22:00etan tantaia jaso eta 22:30ean sua piztuko dute plazan. 18:00etan, *Txorimaloaren bila* jolasean hartuko dute parte gaztetxoek.

### Kontzejupe pilota txapelketa

Binakako esku pilota torneoa bihar, zapatua, jokatuko dute. 10:00etan hasiko dira 16 urtez azpikoak eta 14:30ean nagusiak.

### Eskoriatzako II. Rallysprinta

Uztailaren 15ean egingo du Eskomotorrek, eta komisarioak behar ditu. Interesa dutenek, bikoteak osatu eta idatzi mezua 680 63 85 41 zenbakira –Gorka Urrutia–.

# Orain da lan gogorraren uzta jasotzeko unea

Haizeder eta Nahia Arguiz Vita ahizpek Espainiako Gimnasia Erritmikoko Txapelketa jokatuko dute uztailaren 6tik 9ra, Ourensen. Aste honetan zehar pare bat erakustaldi egin dituzte Eskoriatza eta Aretxabaletako kiroldegietan, "lehiarako berotzeko"

**Hasier Larrea** ESKORIATZA

Kantxa estaliko kirol gehientsuenak geldirik dauden asteotan iristen zaizkie gimnastei urteko hitzordurik garrantzitsuenak. Gimnasia erritmikoa sakrifizio handia eskatzen duen jarduera dela ondo dakite arguiztarrek. Haizederrek, ahizpa gazteenak, Nahiak egindako pausoak jarraitu ditu txikitatik, eta, elkarri sei urte atera arren, kategoria berean, seniorretan, jokatzen dute biek. "Izan ere, gimnasia erritmikoan 15 urtetik aurrera bihurtzen da bat senior mailakoa", adierazi dute Eibarko Ipurua taldeko kideek.



Haizeder eta Nahia Arguiz gimnasta eskoriatzarrak, Ibarra kiroldegian. H.L.

**Sabairik ez**

Urte dezente daramatzate herri armaginean entrenatzen; sekulako ibilbidea egin dute jadanik, ahizpa zaharrenak hamaseigarren aldiz parte hartuko baitu Espainia mailako lehia batean eta gazteenak zazpigarren aldiz, EAE mailakoetan nabarmentzearen ondorioz. Biek dakite zer den Espainiako Kopan urrea janztea, eta, eman dezaketen mailaren jakitun, helburu argi batekin joango dira bi aste barru Espainiako Txapelketara: "Podiumera igotzen bagara, lehen mailara egingo dugu salto; maila nagusira, alegia".

**AHIZPA GAZTEENAK UZTAIAK ETA ZINTAK ERABILIKO DITU; ZAHARRENAK, BERRIZ, MAZOAK**

Haizederrek uztai eta zinta modalitateetan hartuko du parte Ourenseko hitzorduan; Nahiak, ostera, mazoekin egingo ditu jauziak. Bakarka eta taldeka lehiatuko dira, eta, nabarmendu dutenez, norberak bakarka lortzen duen notak besteari ere eragingo dio, klub berekoak direlako.

**Egunotan, lasaiago**

Bi ahizpek gonbidatu moduan hartu dute parte asteon UDA eta Eskoriatza gimnasia taldeen ikasturte bukaerako jendaurreko ekitaldietan. Azaldu dutenez, "patxada handiagoz" kantxaratzen dira halako hitzorduetan, "lehiak dakarren tentsioa alboratuta eta gozatzera irtenda". Atzetik datozen ikasleentzako, gainera, eredu aparta dira.

## Erakustaldiz erakustaldi

Astelehenean eta eguaztenean Eskoriatzako gimnasta gazteenak ere izan ziren protagonista Ibarra eta Manuel Muñoz kiroldegietan. Irudian agurtzen dabiltzanak Ane Sanz, Amina El Houari, Arantzazu Ruiz de Eguino eta Iraide Garcia dira. Aretxabaletan egindako saioaren ostean, harmailetan zegoen publikoarekin esker oneko agertu ziren.



Lau gimnasta, esker oneko, saioa bukatu ostean. H.L.



Iaz San Migel plazan egindako San Juan sua. GOIENA

# San Juan sua piztuko dute gaur, espiritu txarrak uxatzeko

Udari ongietorria egingo diote plazan, ekainaren 23ko gauero legez; egunean zehar ere badaude ekintzak

**H.L.** LEINTZ GATZAGA

Gatzagako etxeetan urtebetez egon diren irak berriekin ordezkatuko dituzte gaur, eta zaharrak sutara bota. Horrela agintzen baitu espiritu txarrak uxatzeko asmoz egiten den usadioak. Boluntario batzuek goizeko hamaiketarako banatuko dituzte atariz atari basoan batutako iratze-sortak, eta gura duenak horiek batu, etxean ipini eta sorta zaharrak sutan erreko ditu. Une hori 22:30etik aurrera iritsiko da, orduan piztuko baitute San Migel plazako San Juan sua.

**Arratsalde ludikoa**

Horixe izango da eguna borobiltzeko ekitaldia, musikak lagundutakoa. Aurrez, 17:00etan hasita, herriko neska-mutilek ezkutuan dagoen altxorra topatu beharko dute; Gurel guraso elkarteko kideek herrian zehar ondo gordetako altxorra, alegia. Erretiratuek, bestalde, laugarren bola-joko txapelketa herrikoia antolatu dute bolatokian 18:00etarako. Iluntze aldera, 21:00etan, txistorraz eta hirugiharraz osatutako otorduarekin beteko dute tripa plazara bertaratzen diren gatzagarrek.



JOSU BILBAO

# Eskarmentua eta haize freskoa

Joan den zapatuan, udalbatza eratzeko ekitaldian, Hautesleen Elkarteko bost kideen babesarekin izendatu zuten alkate Dorleta Elkorobarrutia. Eneka Zankada, Aiora Elkorobarrutia, Juan Bengoa eta Idoia Armendariz izango ditu aldamenean. Emozioz betetako ekitaldia izan zen, 24 urtez alkate izandako Eugenio Otsoa gogoratu baitzuten.

# JAIETAKO EGITARAUA

## EGUAZTENA 28
### SAN PEDRO BEZPERA

**11:00** Umeentzako MARRAZKI LEHIAKETA, plazan (4-12 urte).

**12:00** BURUHANDIAK, plazan.

**17:00** 2022an JAIOTAKOEI ONGIETORRI EKITALDIA, udaletxean.

**17:00** KUADRILLEN ARTEKO JOKOAK, Zaldibar antzokiaren kanpoaldean (8-12 urte).

**18:30** Jai KANPAIAK.

**19:00** Jaiei hasiera emateko, TXUPINAZOA eta PREGOIA herriko plazan. Aurtengo pregoia Atama kenpo taldeak egingo du.

**19:15** MUSIKA ESKOLAKO BANDAREN KALEJIRA eta txistulari taldearen kalejira.

**19:30** SALBEA, parrokian.

**19:30** OIHAN VEGA DJa, plazan.

**22:30** NAGUSIEN DANBORRADA.

**00:30** OIHAN VEGA DJa, plazan

## EGUENA 29
### SAN PEDRO EGUNA

**08:00** SOKAMUTURRA, plazan –16 urtetik gorakoentzat–.

**10:00** DIANA Eskoriatzako TXISTULARI TALDEAREKIN.

**11:45** ELIZBIRA.

**11:50** KORPORAZIOA ELIZARA joango da, txistulariek lagunduta.

**12:00** MEZA NAGUSIA, San Pedro elizan.

**12:00** AXTROKI ARKU TIRO taldearekin erakustaldia, BUZTINATE taldearekin buztin tailerra eta Andoni Bastarrikarekin hondarrezko eskulturen tailerra Ibarraundi museoaren kanpoaldean.

**13:00** Musika Eskolako BANDAREN KONTZERTUA, Gorosarri plazan.

**16:00** LASERTAG (12-16 urte), Gorosarri plazan.

**18:00** Kale antzerkia: *Mesede bat egitearren,* Trapu Zaharra talderekin, Gernika plazan.

**18:00** ESKUPILOTA partidak, Joseba Iñurrategi pilotalekuan. Sarrera: 5 euro –16 urtetik behera, doan–.

1. partida: ZUGASTI-GARTZIA vs ETXANIZ-CONDE.

2. partida: URIBE-MERINO II.A vs ARTEAGA II.A-LADIS GALARZA.

**19:00** UMEEN DANBORRADA, kiroldegitik hasita.

**20:00** Arrasateko SAMBAMAÑA BATUKADA TALDEA kalez kale.

**22:30** ROCK CON Ñ, 1980ko hamarkadako rocka, plazan.

## EGUBAKOITZA 30

**11:00** DIANA Eskoriatzako TXISTULARI TALDEAREKIN.

**12:00** Herriko hildakoen aldeko MEZA.

**12:00** PARKOUR eta AKROBAZIA tailerra, Gorosarri plazan (8-16 urte).

**13:00** PARKOUR ERAKUSTALDIA, Gorosarri plazan.

**13:00** LOS TENAMPAS, mariatxi hirukotea, plazan.

**16:00** 30. MUS TXAPELKETA, Gernika plazan. Izena ematea: 30 euro bikoteko (15:30 - 16:00). Sariak: 1. Jasotako diruaren %50, txapela eta bertako produktuen sorta. 2. Jasotako diruaren %25 eta bertako produktuen sorta ertaina. 3. Jasotako diruaren %15 eta bertako produktuen sorta txikia. 4. Jasotako diruaren %10.

**18:00** KUADRILLEN arteko JOLASAK, gaztelekutik hasita –12-16 urte–.

**18:30** PLAZA ABORDAIA! Umeentzako ikuskizuna (Zaldibar antzokiaren kanpoaldean).

**19:30** Eskoriatzako AIREAN taldearekin aire akrobazien erakustaldia, Gorosarri plazan.

**20:15** BURUHANDIAK, plazan.

**21:00** AFARIA gaztelekuan.

**22:00** MARKEL GOIKOLEA DJa, biblioteka kanpoaldean.

**22:30** EN ESENZIA ORKESTRA, plazan.

**23:30** SUZKO ERRUBERAK. Gernika plazatik botako dituzte. Ikusteko leku ona: errekaren beste aldea.

**00:00** EN ESENZIA ORKESTRA, plazan.



Sanpedro Egunaren bezperan, eguaztenean, nagusien danborrada. AITOR AGIRIANO

## ZAPATUA 1
### EUSKAL JAIA

**11:00** DIANA Eskoriatzako TXISTULARI TALDEAREKIN.

**12:00** Musika Eskolako EUSKAL DANTZA TALDEA, plazan.

**12:00** TALOGILEAK ETA SAGARDO KUPELA, plazan.

**12:00-14:00** UMEENTZAKO PARKEA –Zaldibar antzokiaren kanpoaldean–: zezen mekanikoa, bola-jalea, artisau jokoak, puzgarri txikia.

**13:00** EUSKAL PENTATLOIKO ERAKUSTALDIA, plazan. Xabier Zaldua vs Aratz Mugarza –harri-jasotzea, giza proba, aizkora proba, txingak, korrika–.

**13:00** TRIKITILARI ESKOLAKO IKASLEEKIN KALEJIRA.

**15:00** HERRI BAZKARIA, Santa Marina plazan. Menua, 12 euro (0-17 urte): urdaiazpiko-kroketak, iberikoak, zero kilometroko hanburgesak parrillan patatekin, izozkia, ogia eta edariak. Menua, 22 euro (+18): entsalada mistoa, baserriko oilaskoa eta txerri-saiheskia parrillan, Eceizako pasteltxoak edo limoi-sorbetea, edariak, kafea eta txupitoa. Edariak: ardoa, sagardoa, freskagarriak eta ura –alkoholdun edariak, 18 urtetik gora–. Txartelak salgai: Inkernu, Urrestilla eta O'Dogherti –ekainaren 25a arte–. Lekua erreserbatzeko: 650 49 51 66.

Ondoren, bazkalosteko DANTZALDIA KITTU TALDEAREKIN.

**16:00** APAR-FESTA Gernika plazan.

**17:00-20:00** UMEENTZAKO PARKEA –Zaldibar antzokiaren kanpoaldean–: zezen mekanikoa, bola-jalea, artisau jokoak, puzgarri txikia.

**19:00** VIII. BURUHANDIEN TXIRRINDULARI LASTERKETA, plazan –16 urtetik gorakoentzat–.




Iaz, Herriko Plaza danbor-jolez beteta, nagusien danborradan. GOIENA

# Inbidia gutxi diote San Sebastian egunari

Jaietako ekintzarik garrantzitsuenetakoa da Eskoriatzan danborrada, Andoni Moto zuzendariaren esanetan: "Agian, garrantzitsuena, 200 lagunek baino gehiagok parte hartzen dugulako". San Pedro egunaren bezperako gaua zaratatsu dator, beste behin

**Hasier Larrea** ESKORIATZA
Datorren martitzenean entsegu orokorra egin eta eguazten gauerako dena prest utziko dute aurtengo nagusien danborradan parte hartzera animatu diren 240 eskoriatzarrek. Urteroko ibilbidea jarraituz, San Pedro auzotik irtengo dira, 22:30ean, Jose Arana egoitzan geldialdia egin, Olazar eta Aranburuzabala zeharkatu, Elixoste elkartean beste geldiune bat egin eta Herriko Plazan amaituko dute martxa. Bien bitartean, zortzi pieza interpretatuko dituzte: *Tatiago, Diana, Iriyarena, Ibilera, Katiuska, Deba, Esko aurrera* eta *Marioren martxa*. Azken bi horiek iaz gehitu zituzten ohiko errepertoriora, eta danborradako zuzendari orokorrak, Andoni Motok, azaldu duenez, entseguetan ahalegin berezia egin dute bi kantuen danbor-kolpeak barneratzeko.

**Hamar batailoi**
Kirol Elkarteak aurten ez du taldetxoa antolatzerik izan, baina, gainontzean, errepikatu egingo dute 2022ko batailoiek. Hartara, Elkartasuna talde gazteak 146 lagun batuko ditu hiru batailoitan, eta beste zazpiak Eguzkilore, Dorleta elkartea, Irrintzi, Elizoste, San Pedro-Intxaurtxueta, Egokiena eta Gu Geu izango dira; batez beste, hamasei danbor-jolerekin.

**Haurrena, datorren egunean**
Aurtengo nobedadeetako bat, haurren danborrada, San Pedro egunean aterako da, ekainaren 29an, eguena. Guraso antolatzaileek ahalegin handia egin dute etxeko txikienak ekitaldira erakartzeko. "Hasieran, 35ek eman zuten izena, eta bukaerarako 106 animatu dira; pozik gaude: zenbat eta danbor-jole gehiago, hobeto!", adierazi du antolatzaileetako batek, Luis Miguel Lekuonak. Lau batailoitan banatuta, 19:00etan abiatuko dira, kiroldegitik; Dorletarantz igo eta Herriko Plazara jaitsiko dira. Bost pieza izango dituzte hizpide, aurreko egunean nagusiek jotakoak denak. Ohar gisa, Lekuonak aipatu du bukaeran danborrak eta jantziak Zaldibar antzokian utziko dituztela, eta ez frontoian, "pilota partiduak egongo direlako jokoan".






# "Egindako lana aitortzea ohorea da guretzat"

**RAFA CARRIET** SAN PEDRO JAIETAKO PREGOILARIA

Atama arte martzial eskolaren zuzendaria arduratuko da festei hasiera emateaz. Ospakizunei begira, errespetuan eta tolerantzian oinarritutako mezua helaraziko du

**Oier Zumarraga** ESKORIATZA

Atama arte martzialen eta borroka kirolen eskolaren zuzendariak hogei urte baino gehiago daramatza mundu horretan murgilduta. San Pedro jaiei hasiera emateko, ekainaren 28an pregoia irakurriko du.

**Erantzukizun handia da jaietako pregoia egitea?**

Ardura garrantzitsua da jaiei hasiera ematea; inoiz ez nuke imajinatuko horrelako zerbait egiteko aukera izango nuenik. Hunkigarria izango da herritarren egutegian gorriz markatua dagoen egun batean pregoia irakurtzea. Urte askoren ondoren, herriaren partetik aitortza garrantzitsua da taldearentzat. Oso eskertuta gaude herriari gugan jarritako konfiantzagatik.

**Nola sentitu zinen pregoilari izendatu zintuztenean?**

Hausnarketara bultzatu ninduen izendapen horrek. Oso harro sentitzeaz gain, nondik natorren eta nor naizen oroitu dut. Pena da balkoira igotzeko aukera soilik nik izatea. Gustatuko litzaidake taldeko kide guztiak han izatea, baina ezinezkoa da. Seguru aski, haiek plazan egongo dira festa giroan.

**Nola pasako dituzu jaiak?**

Urtero bezala, jaietan murgiltzeko gogoa dut. Bat gehiago izatea. Ekintzetan parte hartu, afariren bat edo beste egin eta gertuko jendearekin gozatu nahi dut. Pandemiaren ondoren jendea gogotsu dagoela hautematen dut eta seguru nago herriko kaleek itxura ezin hobea edukiko dutela. Hala ere, inoiz ez naiz parrandazalea izan eta etxera goiz itzultzea gustatzen zait. Adinak ez du barkatzen [Barre].



Rafa Carriet. ATAMA ESKOLA

**Zein izango da eskoriatzarrentzako mezua?**

Beste edozeren gainetik, errespetua, tolerantzia eta enpatia aldarrikatu nahiko nuke. Festez gozatzeaz, baina zentzudunak izaten momentu oro. Horrez gain, Eskoriatza anitza ikustea gustatuko litzaidake. Denok elkarren artean erlazionatzea, sexu, adin, kolore eta ideologiez harago. Hori sentitzea benetan ederra izango litzateke.

**Nolako itxura aurreikusten diozu plazari?**

Ekitaldi garrantzitsua da herriarentzat; hortaz, jendez lepo egotea espero dut. Giro ona izango da nagusi. Dena dela, ez naiz horrelako egoeretan urduri jartzen den horietakoa, oso lasai nago. Irrikan nago balkoira igo eta herri oso baten babesa sentitzeko. Bizitza osorako eramango dudan oroitzapena izango da. Bide batez, Udalari ere eskerrak eman nahi dizkiot aukera hori emateagatik.

**Zertan lagunduko dio taldeari aitortza horrek?**

Gehienbat, herrian arte martzialei ikusgarritasuna eskaintzeko balio izatea espero dut. Kirol horrekiko dauden aurreiritzi negatiboak aldatzeko balio beharko luke. Erakusleiho bikaina izan daiteke jende gehiago kirol hori probatzera animatzeko; batik bat, emakumeak. Albiste bikaina litzateke neska gehiago ikustea taldean. Zeregin hori betetzeke dagoela uste dut.

## Gazteak nor baino nor gehiago ibiliko dira herriko kaleetan

Adin guztietako gazte eta nerabeak festen bueltan lehian ibiliko dira kuadrilla onenaren bila

**O.Z.** ESKORIATZA

Kuadrillen arteko jolasak bailarako jaietan oso errotuta dauden ekitaldiak dira. Eskoriatzarrak ez dira gutxiago izango, eta adin edo eremu askotara egokitutako jolasak antolatu dituzte. Betiere, lagunen artean disfrutatzeko helburuarekin, giro ona eta tranparen bat edo beste ohikoak izaten dira.

Ekainaren 28rako, arratsaldeko bostetan, haurren kuadrilla arteko jolasak antolatu dira San Pedro jaiei hasiera emateko, Zaldibar antzoki kanpoaldean. Parte hartu nahi duten zortzi eta hamabi urte bitarteko haurrek Udalaren webgunean eman beharko dute izena.

Horrez gainera, egubakoitzean, 12 eta 16 urte bitarteko nerabeek kuadrillen arteko jolasak egingo dituzte, gaztelekuan hasita, 18:00etan.



Kuadrillak lehian. AITOR AGIRIANO

**Txosnaguneko jolasak**

Beste urte batez, Txosna Batzordeak kuadrillen arteko jolasak antolatu ditu hilaren 30erako. Egubakoitzean, 17:00etan, lagun taldeek lehiari ekingo diote eta era askotariko probei aurre egin beharko diete gazteek.

## Tripa betetzeko, askotariko herri bazkariak aukeran

Eskoriatzarrek uztailaren 1ean herri bazkaria egingo dute Santa Marina plazan, ohikoa den moduan. Txartelak salgai daude Inkernu, Urrestilla eta O'Dogherti tabernetan, ekainaren 25a arte.

Eskoitzako Txosna Batzordeak, berriz, *Zuk ekarri, zuk jan* bazkaria antolatu du hilaren 29rako, 15:00etan. Baita kuadrillen bazkaria ere, egubakoitzerako.



Bazkaria herriko plazan. AITOR AGIRIANO





Eskoriatzako gazteak buztinarekin jolasean. IMANOL BELOKI



Andoni Bastarrikaren hondarrezko eskultura. ANDONI BASTARRIKA



Axtrokiko arkularia punteria fintzen. IMANOL BELOKI

# Askotariko ekintzak, eta herritar guztiendako

Eskoriatzarrak txundituta uzteko, aurtengo San Pedro jaietako egitarauak ekintza alternatibo asko biltzen ditu: arku tiroketa eta parkour erakustaldia, buztinezko eta hondarrezko eskultura tailerra eta aire akrobazien erakusketa, besteak beste

**Oier Zumarraga** ESKORIATZA

Aurtengo San Pedro jaietan eskoriatzarrek ez dute aspertzeko astirik izango; izan ere, egitarau zabala prestatu dute. Hain zuzen ere, askotariko ekintzak izango dira, herritar guztiendako.

Eskaintza zabal horrek parkourra, aire akrobaziak, harearekin egindako eskultura ikastaroa, arku tiroa erakustaldiak eta buztin tailerra biltzen ditu, besteak beste.

### Punteria findu nahian

Iaz bezala, eskoriatzarrek aurten ere Axtroki arku tiro taldeko kideek antolatutako erakusketaz gozatzeko aukera izango dute. Arku tiroaren nondik norakoak ikasi nahi dituenak Ibarraundi museotik pasatu besterik ez du. Publikoak hainbat arku izango ditu erabilgarri.

### Tela artean dantzan

Airean taldearekin, sabaira lotutako telen artean dantzan egiten duten artistek hilaren 30ean 19:30ean aire akrobazia erakustaldia egingo dute. Urte osoan entseatzen igaro ondoren, landutakoa "plazaratu" nahi dute Gorosarri plazan.

### Salto eta jauzi

Goizerako, nerabeek eta gazteek harri eta oztopo batetik bestera jauzika ibiltzen ikasteko parkour tailerra antolatu dute, Gorosarri plazan, eguerdiko hamabietan. Antolatzaileek hiru ibilbide antolatu dituzte, bakoitzaren mailaren araberakoak. Horrez gainera, akrobazietan ere sakonduko dute, eta, horretarako, ohe elastikoak kokatuko dituzte. Goiza biribiltzeko, berriz, antolatzaileek erakustaldia egingo dute, 13:00etan, toki berean.

### Hondarrezko artelanak

Hareazko eskulturak egiten ikasteko tailerra egongo da ekainaren 29an, Andoni Bastarrikaren eskutik, Ibarraundi museo kanpoaldean. Hondarrari forma ematea izango da helburua. Eskarmentu handiko artistak gazteei beharrezko jarraibideak eta materiala emango dizkie, nork bere artelana egin dezan.

### Eskuak zikintzeko prest

Buztinate taldearen eskutik, buztin tailerra antolatu dute mundu horretan lehen esperientzia izan nahi dutenentzat: San Pedro egunean, eguerdiko hamabietan hasita, Ibarraundi museoan.

**ESKAINTZA ABERATS ETA ZABALA DENON GUSTUETARA MOLDATUKO DEN ESPERANTZA DUTE**





1993an, herritarrak zezenaren aurrean Eskoriatzako plazan. ESKORIATZAKO UDALA

# Ohitura zahar bat berreskuratu dute

Aurtengo San Pedro jaiak bereziak izango dira zezenzaleak diren eskoriatzarrentzat. 30 urteren ondoren, sokamuturra antolatu du Eskoriatzako Udalak. Bergarako Zezenak Ganadutegiko zezenak egongo dira ekainaren 29ko goizaldean

**Oier Zumarraga** ESKORIATZA

San Pedro jaietako berritasun nagusia da. Ekainaren 29an, 08:00etatik 10:00etara, sokamuturra egongo da Eskoriatzako kaleetan. Udalak antolatuta garai batean ohikoa zen jaietan sokamuturra egotea, eta, hogeita hamar urteren ondoren, berriz ere antolatu dute. Aurreko urteetan bigantxekin ikuskizunak egin izan dira gazteenekin, baina aurten legea aldatu denetik ezinezkoa izan da tankera horretako ekitaldiak antolatzea. Ezintasun hori ikusita, sokamuturraren itzuleraren aldeko apustua egin du Udalak. Era horretara, urte askoan eskoriatzarren multzo batek egin duen eskakizunari erantzuna emango zaiola ziurtatu du Udalak.

Herrian jendea gogotsu dago, eguna noiz iritsiko zain. Gazteak, herrian inoiz ikusi ez duten ekitaldi bat ikusteko ilusioarekin; eta zaharragoak, iraganeko oroitzapenak berriz bizi izateko asmoz. Plaza inguruan askatuko dute zezena eta inguruak hesituta egongo dira. Horren harira, Iñigo Almortza Bergarako Zezenen ganadutegiko arduraduna gogotsu azaldu da ospakizunari begira: "Urte askoren ondoren, erronka polita da berriro ere Eskoriatzara bueltatzea".

**Iritzi kontrajarriak**

Dena dela, badaude zezenketak atsegin ez dituztenak ere. "Animaliak gaizki pasatzen duen ekitaldi oro ez dut atsegin, ez zait bidezkoa iruditzen", adierazi du herritar batek. Beste batzuek, ordea, ekimen polita eta interesgarria dela diote, garai zaharretan biltzen zen jendetza oroituz.

Ganadutegiak dagoeneko aukeratu ditu zezenak, eta Almortzak adierazi du zezen arinak eta azkarrak eramango dituela, ikuskizun polita eskain dezaten. Bestalde, herritarrei zezenekin errespetuz jokatzeko dei egin die, denek festaz errespetuz eta bakean disfruta dezaten.

Udalak aditzera eman duenez, 16 urtetik azpikoek debekatuta izango dute sarrera, baita alkoholaren edo legez kanpoko substantzien eraginpean daudenek ere. Udaltzainak publikoaren sartu-irtenak kontrolatzen izango dira.

TXUPINAZOA ZUZENEAN
'GOIENA.EUS'-EN ETA GOIENA TELEBISTAN
EKAINAREN 28AN, EGUAZTENA, 18:45EAN
ESKORIATZAKO HERRIKO PLAZATIK 'HEMEN DEBAGOIENA, JAIETAN' SAIOA
DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!
goiena
Zu hemen zaude.



Ondo ibili jaietan!!
Akeita • Aldatz • Alkazar
Inkernu • Txalaparta



# Musika eskaintza zabala txosnagunean aurten

Eskoitzako Txosna Batzordeak kontzertu eskaintza zabala antolatu du San Pedro jaietarako; beste behin, bailarako taldeen aldeko apustua egin du. Eire bikote gipuzkoarra izango da plater nagusia; lehen aldiz izango da Eskoriatzan

**Mikel Zumalde Etxabe** ESKORIATZA
Urtero moduan, Eskoitzako Txosna Batzordeak kontzertu eskaintza zabala antolatu du San Pedro jaietarako. Beti bezala, inguruko herrietako taldeen aldeko apustua egin dute, eta aurten bailarako hainbat taldek emango dituzte kontzertuak Santa Marinan egongo den txosnagunean: Rebel Noise, Perlata eta Txerrikumeak. Bost eguneko egitarauan, ekainaren 28tik uztailaren 1era arte ibilbide luzeko musikariak eta hasiberriak egongo dira. "Adin askotariko jendea ibili da egitaraua osatzen; gazteak zein ni bezalako zahartxoagoak", adierazi du Mikel Letonak, Eskoitzako Txosna Batzordeko kideak.


Taldea osatzen duten Eire Maia eta Eider Salegi. BADOK

### Musika eskaintza zabala

Egitaraua ekainaren 28an hasiko da, San Pedro egun bezperan. 01:00etan hasita, Andoni Moto DJa arduratuko da hurrengo egunetan etorriko denari ongietorria egiten. Egun horretan, gauean eta lehen aldiz, bikote-jokoa izango da. "Trago bakoitzarekin paper bat emango dute barran, eta haren bikotekidea topatu beharko da; esaterako, Zipi eta Zape", azaldu du Letonak. Kontzertu-sortari, baina, hurrengo egunean ekingo diote, ekainaren 29an (22:00). Eta, beti bezala, bailarako taldeak igoko dira oholtza gainera: Arrasateko Perlata eta Rebel Noise taldeak; eskoriatzarrek eta aretxabaletarrek osatzen duten Oihu; eta, azkenik, Aretxabaletako Txerrikumeak taldea. Hurrengo egunean, hilaren 30ean, bailaratik kanpoko taldeen txanda izango da; urtero egoten den Lizartxo erromeria-taldeaz gain, lehen aldiz joko du Eskoriatzan Eire taldeak (22:00). Eire Maiak eta Eider Salegik osatzen duten bikotearen aldeko apustua azaldu du Letonak. "Bilera batean, proposamen berri bat bezala bota zuten, eta jendeak gogo onez hartu zuen proposamena, zerbait ezberdin moduan", adierazi du.

Jaietako azken egunean hainbat DJ arduratuko dira txosnaguneko giroa berotzeaz; 22:30ean hasita, Aretxabaletako Hotty Doggi arituko da; eta 00:45ean, Pon eta Pin bikote eskoriatzarrari pasako diote testigua. Ondoren, pintxada kolektiboa egongo da.

### Kuadrillen arteko jolasa

Musika kontzertuez gain, hilaren 30ean, 17:00etan hasita, kuadrillen arteko bandera-jolasa egingo dute eskoriatzarrek. Hamargarren aldia izango da, eta, gainera, joko bereziak egongo direla aurreratu dute. Letonak jendea animatu nahi izan du: "Anima dadila jendea kuadrillen arteko jokoak egitera; giro ederra egoten da. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiet lagundu digun jende guztiari". Gauzak horrela, guztia prest dago txosnagunean festak eztanda egiteko.

MIRVAT
ESTALKETA ELEKTROLITIKOAK
Ondo ibili jaietan!

Aingeru Guarda pasealekua 41 - Eskoriatza - Tel.: 943 71 45 06 - www.mirvat.com

maulanda jatetxea
Gora sanpedroak!
943 71 47 20
678 62 74 85
Maulanda auzoa 1 • 20540 Eskoriatza
www.maulandajatetxea.com




Olabarria, kanpainan harrapatu dituen liztor beltzekin, Iparragirre kalean; han batu da liztor asiar gehien herrigune barruan. J.B.L.

# Liztor asiarraren aurkako "kanpaina onenetakoa"

'Vespa velutina'-ren edo liztor beltzaren aurkako tranpatze-kanpaina "oso ona" izan dela dio Erlantz Olabarria erlezain bergararrak: "Irakurri dudanez, Estatuko onenetakoa izan da Bergarako kanpaina. 5.704 liztor harrapatu ditugu; oso datu esanguratsua da"

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA

Liztor beltzaren edo asiarraren aurkako tranpatze-kanpaina oso positiboa izan da Bergaran, Gipuzkoako Erlezainen Elkarteko kide eta Bergarako kanpainaren arduradun izan den Erlantz Olabarriaren arabera. 5.704 liztor asiar harrapatu dituzte martxotik maiatzera bitartean iraun duen ekinaldian, eta horrek esan nahi du azken kanpainaren bikoitza harrapatu dituztela, gutxi gorabehera.

### Akabatutakoen %40, erreginak

Azken urteetako lan-eredu bera mantendu dute aurten ere: 50 tranpa jarri dira herrian zehar banatuta, eta astero egin dute tranpen jarraipena. Harrapatu duten liztor kopurua oso esanguratsua dela dio Olabarriak; izan ere, "Espainiako Estatuko daturik onenetakoak" dira Bergarakoak: "Irakurri dudanez, Estatu mailako kanpaina indartsuenetakoa izan da Bergarakoa. Martxo eta maiatz artean 5.704 liztor asiar harrapatu ditugu, eta horietatik %40 inguru erreginak dira. Oso datu esanguratsuak dira". Herrigunean eta landa-eremuetan jarri dituzte tranpak; datu bat aipatzearren, apirileko bigarren astean harrapatu zen liztor asiar gehien: 1.608, hain zuzen. Kanpainako asterik baxuena, berriz, tranpak jarri eta hurrengoa izan zen, 68 ale bakarrik harrapatu ziren eta.

### Askotariko tranpak

Erabili diren tranpak komertzialak dira, pertsonentzat kalterik eragiten ez dutenak. Zuhaitzetan jartzen dira, normalean, eta substantzia bat botatzen dute ontzira, liztor beltza erakartzen duena, baina ez erlea; horrela ekiditen da erleak ere hiltzea. Likidoak erakarri egiten ditu eta, ondoren, han itotzen dira liztor beltzak. Bestelako intsektuak kaltetzea saihesteko, tranpei moldaketa txikiak egiten dizkie arduradunak. "Hainbat tranpa mota erabiltzen ditugu; batzuk erabat selektiboak dira eta beste batzuk, ez horrenbeste. Bertako erlea babesteko saiakeretan, moldaketa batzuk egiten dizkiegu tranpa komertzialei; bertako erlea babestu eta zaindu beharra dago bai edo bai, bertako ekosistemarentzat ezinbestekoa delako".

Hain zuzen ere, bertako erleekin denboraldi ona izan dutela gaineratu du erlezain bergararrak: "Oso gustura gaude, sasoi ona ari da izaten. Eztia ere lortu dugu, eta, beraz, ezin gara kexatu".

### Puntu beroei jarraipena

Olabarriak azaldu duenez, asko lagundu du aurten ere aurretik leku asko identifikatuta zituela dagoeneko Bergarako Udalak, Udaltzaingoak egindako lanaren bitartez, eta horrek lana eraginkorragoa izatea ahalbidetu du. Puntu bero horietan egin dute lan; izan ere, urtez urte kokaleku berberak erabiltzen dituzte liztor beltzek habiak kokatzeko.

Aurtengo kanpaina arrakastatsua izan arren, arazoak larria izaten jarraitzen du, eta halako kanpainek hedapen handiagoa behar dutela dio Olabarriak: "Kanpaina horiek Arrasaten, Bergaran eta Oñatin bakarrik egiten badira, aukera asko egongo da liztor beltza inguruko herrietatik berriro bueltan etortzeko. Erlezain Elkartetik eskatzen duguna da kanpainek hedapen handiagoa izatea, inguruko herriak ere sar daitezela tranpatze-kanpainetan".

Udazkeneko kanpainara begira lan handia egongo dela ere gaineratu du Olabarriak: "Udazkenean ikusi beharko dugu nolako erasoak ditugun... Proposatzen dudan irtenbidea da liztor beltza lehenbailehen atera behar dela herrigunetik; bestela, egoera jasanezina bihurtuko litzateke. Ahaleginak egingo ditugu, behintzat, espezie inbaditzailearen erasoak kontrolatuta izan ditzagun. Bertako erlearen biziraupenerako beharrezkoak izango dira kanpainak".

### Baimena, Diputazioaren esku

Gogora ekarri behar da Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendutako kanpaina izan dela honako hau, Bergarako Udalak sustatu eta Gipuzkoako Erlezainen Elkartearekin elkarlanean egin dena.

**BERTAKO ERLEA ERE BABESTEKO, HALAKO KANPAINEK HEDAPEN HANDIAGOA BEHAR DUTELA DIO ADITUAK**

## Ezustekorik ez: Artola alkate

Ezustekorik gabe izendatu zuten berriz ere Gorka Artola Bergarako alkate. Udalbatza berria eratzeko osoko bilkuran aretoa goraino beteta zegoela, hamazazpi zinegotziek hartu zuten kargua; PSE-EEko Alberto Alonsok izan ezik, guztiek erabili zuten *Legeak hala behartuta* formula. EH Bilduren aldeko hamar botoekin eta oposizioaren abstentzioarekin (7) berretsi zuen alkatetza Artolak.



J.B.L.

## Sanmartzialak: lekua gordetzeko zintarik ez hilaren 30era arte

Uztailaren 2an egingo den San Martzialgo erromeriara begira Udalak gogora ekarri du mantentze-lanak egin behar dituztela, eta, beraz, kuadrillen guneak zintekin gordetzeko dagoen ohitura ezingo da egin ekainaren 30eko 15:00ak baino lehen. "Herriarena den eremu hori partekatzeko ahalegina egin behar da", gaineratu dute Udaletik.

# Sariak kirolariak kameraz ehizatzen artista direnei

Bergarako Kirol Argazkien Lehiaketako 32. edizioan Juan Antonio Unzurrunzagak eta Oskar Gaskonek irabazi dituzte sari nagusiak koloretan eta zuri-beltzean, hurrenez hurren; Emakumeen Saria, berriz, Soraya Lopezek irabazi du bi kategorietan

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA

Ekainaren 15ean banatu zituzten Arizondo Argazkizale Elkarteak Udalarekin elkarlanean antolatzen duen Kirol Argazkien Lehiaketako sariak. 32. edizio honetan 144 lan jaso dituzte, 82 koloretan eta 62 zuri-beltzean.

**Erakusketa, uztailaren 2ra arte**

Argazki horietatik guztietatik sari nagusiak honako argazkilari hauek eroan zituzten: zuri-beltzeko kategorian Oskar Gaskon izan da onena, *Criquet* argazkiarekin; eta koloretan, berriz, Juan Antonio Unzurrunzaga gailendu da, *Harrijasotzaille* irudiarekin (Ikus gaurko *Puntua* aldizkariko *Irudiz* atala). Bi kategorietan banatu dute aurten Emakumeen Saria, eta Soraya Lopezek bereganatu ditu biak, hurrenez hurren, *Rollerak Zumaian* eta *Zaldi lasterketa II* argazkiekin; Lopez ez zen sari banaketan egon, eta haren senitarteko batek jaso zituen sariak. Sari nagusi horiez gainera, aipatzekoak dira zuri-beltzeko kategorian bigarren saria irabazi zuela Agustin Gurrutxagak, *Borobilarekin* argazkiarekin, eta hirugarren saria Miguel Caverok eroan zuela, *Triathlon* lanarekin. Bestalde, koloretan bigarren saria Jose Miguel Romeroren *Esto es duro* argazkiak irabazi du eta hirugarren saria, ordea, Oskar Gaskonen *Remando el Bidasoa* erretratuak. Epaimahaia osatu dute Ordiziako argazki taldeko Angel Sakatxak, Gipuzkoako Argazkilari Elkarteko Mari Jose Cuelik eta argazkilaritzan aditua den Joxe Inazio Cuestak.

Urtero legez, lehiaketara aurkeztu diren argazki guztietatik aukeraketa egin dute antolatzaileek, eta aukeratutako horiekin erakusketa zabaldu dute Aroztegi aretoan; erakusketa uztailaren 2ra arte egongo da zabalik, ohiko ordutegian.



Saridunak eta batzuen ordez saria jaso zutenak Aroztegin, Udaleko ordezkariekin. J.B.L

## Zein da argazkiaren testuingurua?



**J. ANTONIO UNZURRUNZAGA**
LEHEN SARIA KOLORETAN

**"Emakumea eta harria... atentzioa eman zidan"**

"Beti eramaten dut argazkikamera nirekin, eta San Martin plazan aukera ona izan nuen argazkia ateratzeko; duela bizpahiru hilabete atera nuen. Kirol arlokoak izan ohi dira nire argazkiak, eta, azkenaldian, emakumeak erretratatzen saiatzen naiz; horregatik, harria jasotzen ari den emakumeak atentzioa deitu zidan. Sorta berean badut emakumea bakarrik jasota, baina uste dut gizonaren keinuarekin politago eta osotuago geratzen dela, eta horregatik aurkeztu nuen hau".



**OSKAR GASKON**
LEHEN SARIA ZURI-BELTZEAN

**"Indiako kalezulo baten topatu nuen argazkia"**

"Oso pozik nago, zuri-beltzeko sari nagusia eta koloretako bigarren saria irabazi ditudalako. Sari nagusia, *Criquet* izena jarri diodana, oso modu espontaneoan atera nuen; Indian paseatzen edozein kaletan topatu dezakezu bakarra den eszena bat; kasu honetan, kalezulo baten topatu nituen ume batzuk kriketean jokatzen. Irudiak harritu egin ninduen eta argazkiak ateratzen hasi nintzen; argi-kontrak eragiten duen umeen siluetak indar handia ematen dio argazkiari, nire ustez".



Elkarrizketatu zituztenetako batzuen aurrean egin zuten aurkezpena. MARIAREN LAGUNDIA

# Bakardadearen egoeraz jabetu ostean, gaian sakonduko dute

65 urtetik gorako herritarrekin telefono bidezko elkarrizketak egin dituzte Mariaren Lagundiko ikasleek

**J.B.L.** BERGARA

Udalarekin batera landutako proiektuan, Mariaren Lagundiko Lanbide Heziketako ikasle talde batek bakarrik bizi diren 65 urtetik gorako herritarrak elkarrizketatu ditu azken hilabeteotan, "hainbat erabilera" izan ditzakeen bakardadearen gaineko diagnostikoa egiteko. Ekainaren 15ean egin zuten aurkezpena, ikastetxean, elkarrizketatu dituzten erretiratuetako batzuen aurrean. Telefono bidez egindako elkarrizketen ondorio moduan lau proiektu diseinatu dituzte; hasiera baten, lau horietatik bi jarriko dituzte martxan: batetik, Mizpirualdeko egoiliarrekin egingo duten auto-ezagutza proiektua; eta, bestetik, belaunaldien arteko irratsaioak. Azken proiektu horretan buru-belarri aritu da Jone Gomez ikaslea; hurrengo ikasturtean egongo ez bada ere, proiektuan laguntzeko gertu agertu da: "Martxan jartzen dutenean laguntza nahi badute, ni prest. Gainera, Mariaren Lagundiko ikasleak izango dira, eta, elkar ezagutuko dugunez, erraza izango da haiekin lan egitea".

Duintasuna elkarteko Itziar Usandizaga erretiratuaren ustez, "beharrezkoak" dira halako ekimenak: "Bakardadearen gaiari buelta emateko aldaketa asko egin beharra dago; aldaketa horiek ekarriko dituzten onuretan zentratu beharko genuke".

**Ikasleak, "ilusioz"**

Gizarte hezitzailearen zikloko irakasle Maite Usabiagak dio bigarren fase horren aurrean ere "ilusioz" daudela ikasleak: Lehen fasean benetako egoera zein zen ikusi zuten, kolektiboa hobeto ezagutu zuten. Ilusio horretatik tiraka heldu dira lau proiektu diseinatzera".

UGARTE
AROZTEGIA · ALTZARIAK
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491
BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com
Proiektuak · Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak



San Martin plaza saskibaloi kantxa bihurtuko dute asteburuan; euria egiten badu, Labegaraietako kiroldegian. GOIENA

# Herriko plaza saskibaloi kantxa egiteko asteburua

Denboraldia borobiltzeko, BKEko saskibaloi sailak hiruko txapelketa antolatu du aste bukaera honetarako, herriko saskibaloia bizirik dagoela berresteko: eguraldi ona bada, San Martin plaza kantxa bihurtuko dute; eta euria egiten badu, Labegaraietan egingo da

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA
Heldu da Bergarako saskibaloi sailaren herrira begirako urteko zita garrantzitsuenetako bat, asteburuan jokatuko da-eta hiruko txapelketa. "Denboraldia borobiltzeko gure azken ekintza da, urte osoko lanaren emaitza. Saskibaloiak herrian duen ikusgarritasuna areagotu nahi dugu, Bergaran saskibaloia bizirik dagoela berretsi", adierazi du zuzendaritza taldeko Borja Elkoroberezibarrek.

**75 talde, eta nobedadeak**
70 taldek eman dute izena 15. edizio honetarako: emakumezko 25 talde, gizonezko 45 eta bost talde misto. Eguraldiak laguntzen badu, San Martin plazan egingo da, eta, bestela, Labegaraietako kiroldegian. Zapatuan, 10:00etan hasita, infantil, kadete eta junior mailetako partiduak jokatuko dira, eta, 16:00etan, senior mailako kuadrillek eta senior mailako gainerako taldeek hartuko dute parte. Domekan, 10:00etan hasita, saskibaloi eskolako eta benjamin eta alebin mailetako jokalarien txanda izango da.

15. edizio honetako nobedadeen artean dago, esaterako, senior mailako kategoria mistoa sortzea erabaki dutela. Horrez gain, datorren urtera begirako nobedade garrantzitsu bat ere iragarri du Elkoroberezibarrek: "Hiruko txapelketak antolatzen historia luzea duen kluba garenez, Gipuzkoako zirkuitu batean sartzeko eskaera egin digute. Horrela, gure klubak ikusgarritasun handiagoa izango luke eta kanpoko jokalari askoren interesa piztea ekarriko luke. Horregatik, aurten San Martin plazan, eta, betiere, eguraldiak errespetatzen badigu, FIBA [nazioarteko saskibaloi federazioa] ezaugarriak dituen kantxa eta kanasta egongo dira".

**JOKALARI GUZTIEK JASOKO DUTE KAMISETA OPARI, ETA BESTE HAINBAT SARI ERE EGONGO DIRA**

**Hamar minutu gelditu barik**
Senior mailako kuadrillen kategorian azken denboraldian federatuta egon diren bi jokalari egon ahalko dira, gehienez, eta senior mailako kategoria mistoan une oro egon beharko dute gizonezko batek eta emakumezko batek aldi berean jokatzen. Hamar minutuko partiduak izango dira eta ez da denbora geratuko; saskiratze bakoitzak puntu bateko balioa izango du –arkuaren atzetik saskiratuz gero, bi puntu–; jokalariak ez dira kaleratuak izango falta pilaketengatik, baina jarrera desegokiek kaleratzea ekar dezakete; jokalariei bereziki eskatzen zaie denborarik ez galtzeko; eta epaileak finaletan bakarrik egongo dira. Jokalariek kamiseta bana jasoko dute opari, eta, mailaren arabera, askotariko sariak banatuko dituzte.



MIKEL BARKERO

## Xake irekia kartzela zaharrean

Kartzela zaharreko 23. urteurreneko ospakizunetako egitarauaren barruan, xake txapelketa irekia antolatu zuten ekainaren 18rako. Hamalau partaide animatu ziren bost minutuko partiduak jokatzera, eta honako hauek osatu zuten podiuma: Iraitz Arizabaleta izan zen irabazlea, Ander Bolibar bigarrena eta Daniel Dorado hirugarrena.

## Bizikletak konpondu ahal izateko gune berritua Agorrosinen

Bizikletak konpontzeko gunea egokitu dute Agorrosingo atarian. Orain arte, bizikletak garbitzeko eta gurpilak puzteko zerbitzua zegoen erabilgarri. Bada, ekainaren 16a ezkero gunea egokitu dute, bizikletak norberak konpontzeko. Zerbitzu berria martxan dago dagoeneko eta erabiltzaileek giltza eskatu beharko dute kiroldegiko harreran.



Bizikletak konpontzeko aparatua. B.U.

## OHARRAK

### Solstizio gaua, Jardunen eta Udalaren eskutik
Gaur, ekainak 23, egingo dute, San Martin plazan (22:00). Zuzeneko musika, dantzak eta ipuinak egongo dira, besteak beste.

### Jabekuntza Eskola: emakume migratuak
Gaur, ekainak 23, elkartuko dira, Ehunduren bulegoan (17:30). Fernanda Callejasen saioa eta elkarrizketa irekia izango dituzte.

### Musika Bandaren kontzertua Espoloian
Domekan izango da, ekainak 25, 12:30ean hasita.

### EAJ: posta bidezko botoa emateko aukera
Uztailaren 23ko Espainiako hauteskundeetarako posta bidezko botoa tramitatzeko aukera dago batzokian astelehenetik egubakoitzera, 11:30etik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Argibide gehiagorako: 943 76 47 00 edo 645 72 27 08.

### Gorlako kantinako hurrengo kontzertuak
Ekainaren 30ean Dei taldeak joko du, 19:00etan. Uztailaren 15ean, berriz, jaialdia egingo dute, 17:00etan hasita: Bergarako Laino Beltzak eta Burugabe, Arrasateko Hankaz Gora eta El Volquete eta Gasteizko Colapso taldeek joko dute.

# Arrillaga gogoan, Bob Dylanen musikarekin

2016an zendu zen Xabier Arrillagaren omenezko kontzertua eskainiko dute datorren eguaztenean Musika Eskolako perkusio ikasleek eta Azkaiter Peloxek eta lagunek; Xabi Payak euskaratutako Bob Dylanen hamazazpi abesti interpretatuko dituzte

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA
2016ko urrian zendu zen Xabier Arrillaga Bengoa izango dute gogoan Bergarako Musika Eskolako perkusio ikasleek eta Azkaiter Peloxek eta lagunek ekainaren 28an, 18:30ean, Laino skate parkean eskainiko duten kontzertu "berezian". Arrillaga perkusio ikaslea zen eta talde bergararrarekin ikasturte amaierako kontzertuan parte hartu izan zuen. Honela mintzatu da Azkaiter Peloxeko Unai Azkarate: "Xabier Arrillagak parte hartu zuen bateria jotzen, pandereta jotzen... Eta orduan erabaki genuen omenaldi modura kontzertua gure ikasle eta lagunari egitea. Horretaz aparte, ordea, Xabierrek ezagutzen zuen gure errepertorioa buruz, eta gure abesti originalak belarrira abesten zizkigun. Urtero etortzen da haren familiako norbait eta urtero eskertzen digute haren gurasoek eta anaia-arrebek Xabierrekin gogoraraztea. Musika ere bada sentimenduak azaleratu eta halako omenaldiak egiteko".



Iazko ikasturte amaierako kontzertua, perkusio ikasleak eta Azkaiter Pelox. M.U.

### Bob Dylan euskaraz

Ordubete eta hogei minutuko emanaldia izango da eta Bob Dylanen abestiak euskaraz joko dituztela aurreratu du: "Aurten, Bob Dylan aukeratu dugu. Aste honetan, hain justu, Donostian eman ditu kontzertuak. Gainera, Xabier Payak euskaratu egin zituen Dylanen abestiak *100 kantu* liburuan, AEDk –Arrasate Euskaldun Dezagun– bultzatzen duen Jokin Zaitegi bekarekin. Liburu hori oinarri hartuta, guk Bob Dylanen zuzeneko kontzertu bat euskaratu dugu. 16-17 abesti izango dira".

Gainera, aipatzekoa da 2015eko edo 2016ko kurtso amaierako kontzertuan Xabier Arrillagak Azkaiter Peloxekin batera Laino skate parkean Bob Dylanen *Knocking on heavens door* abestia abestu zuela, Azkaraterentzat ere esanahia duena: "2008-2009a ezkero lagunak elkartzen garenean, abesti horrekin zerbait berezia sortzen da, eta kontzertu amaierarako ondo dago. Oraingoan ez da azkena izango, baina azkenetakoa izango da; euskaraz, *Zeruko atea joz*".

**2016KO ABENDUAN EGIN ZUTEN LEHENENGOZ OMENALDI KONTZERTUA**

### Azken entseguen faltan

Ikasturte hasieratik izaten dute helburu perkusio taldeko ikasleek ekainaren amaierako kontzertu hori. Horregatik, ikasturte osoa dute ikasleek kontzertua prestatzeko. Ikasturtea ixtean erabakitzen dugu datorren kurtso amaierako kontzertuaren gaia. Orduan, ikasleek etxeko lanak egiteaz gain, errepertorioa prestatzen dute", dio Azkaratek. Hori horrela izanik, lehendabizi, entseguak talde txikietan egiten dituzte: "Geroago, entsegu txikiak egiten dira, bizpahiru ikaslerekin. Gitarra, perkusioa eta ahotsa, adibidez; baxua, perkusioa eta gitarra... Orain, entsegu orokorrak egitea geratzen zaigu".

Bergarako Musika Eskolako irakaslea da Azkaiter Peloxeko bateria-jole Aitor Aranburu, eta, Azkaratek azaldu duenez, hiru bateria prestatzen ditu Aranburuk, hainbat mailatako ikasleentzat: "Bat hasierako maila duten ikasleentzat da; bestea, maila ertaina dutenentzat; eta azkena, maila aurreratuagoa dutenentzat. Horrela, kantuetan maila bakoitzeko ikasle bat jarriz gero, erritmoa ziurtatuta dago".

Bestalde, datorren urteko ikasturte amaierako kontzerturako gaia badaukate. "Urte batean nazioarteko zerbait egiten dugu, bestean euskalduna... Datorren urtean trikitiari hauspoa ematea tokatzen da", aurreratu du. "Kontzertu berezia izaten da. Gainera, Laino skate parkean, eguraldi ona bada, kanpoan egiteko aukera dago; eta txarra bada, barruan. Toki zabala da eta jende asko etortzen da". Herritarrak kontzertura joatera animatu ditu musikariak.



Debarroko Txapelketako txapeldunak eta txapeldunordeak. JOSU BILBAO

# Hirutik bi txapel bergarararrentzat Debarroko Pilota Txapelketan

Biharko lau eta erdiko finaletan kadeteena jokatuko da soilik, nagusietan pilotari tolosarrak min hartu baitu

**I.A.A.** BERGARA
74. Debarroko Pilota Txapelketaren hiru final jokatu zituzten kadete, gazte eta nagusien mailetan joan den domekan Bergarako Udal Pilotalekuan, eta bergararrek hirutik bi txapel eskuratu zituzten.

Kadete mailako partidarekin hasi ziren finalak, eta Bergarako Etxabe eta Etxeberria bikotea Aretxabaletako Otazuriren eta Errastiren aurka aritu zen. Bergararrak izan ziren nagusi partidan zehar, eta 22-11 garaitu zituzten aretxabaletarrak.

Gazte mailan, Soraluzeko Ibarra eta Caramanzana izan zituzten aurkari Bergarako Lazpiurrek eta Alberdik. Bergararrek 8-6 gerturatzea lortu bazuten ere, gehiago izan ziren soraluzetarrak eta zazpi tanto egin zituzten erreskadan (15-6). Txapela Soraluzekoentzat izan zen, bergararrak 22-8 mendean hartuta.

Nagusietan, Soraluzeko Atxotegi eta Balerdi eta Bergarako Etxaniz eta Gartzia aritu ziren. Bergararrek, galtzen hasi baziren ere, markagailua irauli zuten. Zenbait berdinketa egon ziren eta partidaren azkenetan hamazazpina jarri ziren, baina bergararrek irabazi zuten (19-22).

### Kaiolako finalak, bihar

Gipuzkoako faseko lau eta erdiko txapelketako finalak jokatuko dira bihar, 11:00etan, Bergarako Udal Pilotalekuan. Bi final ziren jokatzekoak, baina Julen Aranburu BKE Pilota saileko presidenteak adierazi duenez, nagusien 1. mailan, pilotari tolosarrak min hartu du eta ez dute ordezkorik aurkitu: "Hortaz, Etxaniz bergararra txapeldun geratuko da finala jokatu gabe". Kadeteen 2. mailan, Perurena tolosarra Bergarako Ormaetxearen kontra arituko da.

## 'Alemanaren mamua' liburuaren aurkezpena gaur arratsaldean

Angiolillo liburutegiak antolatuta, Jon Arrizabalagaren *Alemanaren mamua* liburuaren aurkezpena izango da gaur arratsaldean, 18:30ean hasita, kartzela zaharrean. Hain zuzen ere, 1950 eta 1970 urte bitartean alemaniarrek Markina-Xemeinen izandako istorioak bildu ditu markinarrak kaleratu duen lehenengo eleberrian.

## San Juan auzoko jaiak ospatuko dituzte asteburuan

21:00etan, suziria botako dute, jaiei hasiera emateko, eta San Juan suak piztuko dituzte baserrietan. Bihar, 12:00etan, meza izango da, jubilatu koruarekin, eta, ondoren, luntxa trikitilariekin. Ostean, X. lore sorta lehiaketa eta ortu lehiaketako sari banaketa, auzoko 80 urtetik gorakoei omenaldia eta auzotarren bazkaria egingo dituzte.

# Danbor hotsekin hasiko dira Kalebarrengo jaiak

19:00etan egingo dute danborrada, eta domekara arte hainbat ekintza antolatu ditu Kalebarrengo Jai Batzordeak. Ohiturei jarraituz, arbola jasoko dute eta sagar dantza egingo dute. Alabaina, batzordean parte hartzeko dei egin dute taldekideek

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ANTZUOLA

Beste urte batez, iritsi dira Kalebarrengo jaiak. Gaur hasi eta domekara arte izango da zertaz gozatu, Kalebarrengo Jai Batzordeak egitarau zabala antolatu baitu. Ohi den eran, ez dira faltako arbola jasotzea eta sagar dantza, baina, batzordekideek aurreratu dutenez, berritasun batzuk izango dira; esaterako, bertsolariak. "Adin askotariko jendearentzako ekintzak antolatu ditugu, gazteek zein nagusiek jaiez gozatu dezaten".

Bada, lehen orduetan, batez ere, herriko gazteenek izango dute gozatzeko aukera, haurren danborradak emango baitie hasiera jaiei. 19:00etan izango da hori, eta, ostean, bertan afaltzeko aukera izango da, mahaiak eta eserlekuak jarriko baitituzte. Alabaina, Jai Batzordeko kideek ohartarazi dute norberak arduratu beharko duela jatekoa eramateaz.



Kalebarrengo jaietako haurren danborrada, iaz. IMANOL BELOKI

Bien bitartean, Udazken musika taldea arduratuko da giroa alaitzeaz. Saioa Zabalo, Lierni Errasti eta Jon Mata antzuolarrek osatzen dute, eta askotariko estiloko abestiak joko dituzte saioan, 21:30ean hasita; batik bat, euskal abestiak. Amaitzeko, berriz, azken urteetan bezala, aulki-jokoa egingo dute.

**Tradizioan, hutsik ez**

Mural kooperatiboarekin hasiko dute biharko eguna, eta, ostean, ginkana egingo dute, 12:00etan. Aiastui taldeak antolatuta. Arratsaldean ere umeei zuzendutako ekintzak izango dira, lehendabizi, buruhandiak egongo baitira 18:00etan.

Tradizioari, ordea, ez diote hutsik egingo, eta, urtero legez, arbola jasoko dute, 20:00etan. Eguerdian joango dira zuhaitzaren bila, eta sorbalda gainean jaitsiko dute Kalebarrenera. Ondoren, berritasun gisa, Urko Arregi eta Aitor Sarriegi bertsolariak arituko dira bertsotan balkoitik balkoira.

Lutxurdio eta Laja trikitilariak arduratuko dira giroa jartzeaz, 23:00etan hasita, eta, amaitzeko, ohiturei jarraiki, sagar dantza egingo dute, 00:00etan.

Domekan, berriz, txistulariak, hamaiketakoa eta dantzariak izango dira goizean; eta 17:00etan, *Esan, galtzerdi maitea!* antzerki musikala.

**Parte hartzeko deia**

Kalebarrengo eta inguruetako gazteek osatzen dute Jai Batzordea, eta jaiak gerturatu ahala elkartzen dira. "Aurreko urteetako egitaraua erreferentziatzat hartuta, egin beharreko zeintzuk diren ikusten dugu, ardurak banatzeko". Hala ere, nabarmendu dute "errazago" egiten dela lan jende gehiagok parte hartuz gero. Beraz, batzarretara joateko eta parte hartzeko gonbidapena egin diete inguruko auzotarrei.

## Prest da hiru eguneko egitaraua

Gaurtik domekara arte ospatuko dituzte jaiak.

**Egubakoitza**
- **19:00** Haurren danborrada.
- **21:00** Herri afaria.
- **21:30** Udazken taldea.
- **00:00** Aulki-jokoa.

**Zapatua**
- **11:00** Mural kooperatiboa.
- **12:00** Ginkana.
- **18:00** Buruhandiak.
- **20:00** Arbola jasotzea.
- **20:30** Bertsolariak.
- **21:30** Herri afaria.
- **23:30** Erromeria.
- **00:00** Sagar dantza.

**Domeka**
- **10:00** Txistularien goiz-eresia.
- **11:45** Meza ondorengo salda eta txorizoa.
- **12:00** Oinarin dantza taldeko dantzari gazteak.
- **17:00** *Esan, galtzerdi maitea!* antzerki musikala, Zapotxinen eskutik.

Herri afarirako norberak eraman behar du jatekoa.

# Arbola jasotzea, dantza eta sua, San Juan egunaren bezperan

20:00etan hasiko da ekitaldia gaur, Herriko Plazan, eta ongietorria egingo diete herrira iritsitakoei

**A.R.K.** ANTZUOLA

San Juan egunaren bezpera da gaur, eta ospakizunak izango dira nagusi arratsaldean; suaren inguruan batzeko aukera izango dute herritarrek.

20:00etan hasita, arbola jasoko dute lehendabizi Herriko Plazan. Udaleko ordezkari eta langileetako batzuk arituko dira zeregin horretan, baina laguntzaile izango dituzte hainbat herritar ere, soketatik tiraka, ez baita lan erraza izaten zuhaitz bat jasotzea eta, ahal den heinean, zuzen mantentzea.



San Juan zortzikoa, 2019an. GOIENA

Oinarin dantza taldeko kideen txanda izango da ostean, San Juan zortzikoa dantzatuko baitute arbolaren inguruan, eta baita soka dantza ere.

Gaueko hamarretan, berriz, sua piztuko dute plazan.

**Iritsitakoei ongietorria**

Horrez gainera, ongietorria egingo zaie atzerritik iritsitako herritarrei ere gaur, ospakizunen aldi berean. Antzuolako Udalak 37 laguni bidali die gutuna parte hartzeko gonbidapenarekin, baina, gaur-gaurkoz, ez da jakinekoa zenbatek hartuko duten parte.

Olatz Lezeta alkatea arduratuko da hitz batzuk esateaz, eta, amaitzeko, Oinarineko dantzariek agurra dantzatuko diete parte hartzen dutenei, Herriko Plazan.



AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ KORTABARRIA

# Hartu du kargua Olatz Lezetak

Ezustekorik gabe, Olatz Lezetak hartu zuen ekainaren 17an alkate kargua, udalbatza eratzeko ekitaldia egin baitzen orduan. Beñardo Kortabarria alkate ohiak eman zion zumitzezko uztaia Lezetari, eta hunkituta jaso zuen. Eskerrak eman zizkien ingurukoei eta babestu dutenei, eta herritarrei batzordeetan parte hartzeko dei egin zien.




Kortabarria, Arietaleaniz, Fernandez, Legorburu eta Berraondo, 2022-2023ko aldiko batzarkide batzuk. ARROLA MENDI ELKARTEA

# Urtearen balorazio "ona" egin du Arrola elkarteak

Batzar orokorra egin berritan, iaz eginikoak errepasatu dituzte elkarteko kideek; hain justu, 50 urte bete zituen, eta estreinako hainbat ekintza egin zituzten. Aurten izango direnen berri ere eman dute; gainera, batzarkide berriak arituko dira lan horretan

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ANTZUOLA

2023ko batzar orokorra egin zuen Arrola mendi elkarteak hilaren 15ean, eta batzordekideek jakinarazi dutenez, urteko balorazio "ona" egiten dute. "Gainera, irteera batzuetara gazteak erakarri ditugu; esate baterako, eskiatzera. Beraz, espero dugu dinamika berberarekin jarraitzea datozen urteetan".

2022an eginiko irteerak eta ekintzak nabarmendu zituzten. Urtero egin ohi dituztenak mantendu ziren iaz, hala nola Urteberri eguneko irteera Arrolara, Pirinioetara asteburu pasa irailean eta Aketegira irteera abenduan. Alabaina, 50. urteurrena izanik, ohi baino ekintza gehiago egin zituzten; horietako asko, inoiz egin gabekoak izan ziren. Esaterako, Iñigo Ramirez de Okarizek idatzitako *Arrola 50 urte mendiz mendi* liburuaren aurkezpena egin zen martxoan, baina elkartearen mende erdia aitzakiatzat hartuta egin ziren ekintza gehiago ere; besteak beste, *Txistu eta kantuz mendira* ekitaldia ekainean; Arrola eguna urrian; eta *Mendi elkarteak aurrera begira* mahai ingurua abenduan. Azken hartan bailarako mendi elkarteetako kideek hartu zuten parte.

### Batzarkideen aldaketa

Mendi elkarteko batzarkideek bi urteko agintaldia betetzen dute batzordean, baina urtean behin aldatzen dira batzarkideetako batzuk, erreleboa errazago emateko. Kasu honetan, Onintza Legorburu, Oier Peñagarikano eta Sara Arietaleaniz bi urtez egon dira batzordean, eta ekainaren 15ean amaitu zuten eginbeharra. Ander Arbuluk, Alazne Jauregik eta Miren Karmele Iparragirrek hartuko dute orain haien lekukoa, eta alboan izango dituzte Mariñe Etxaniz, Jon Fernandez, Larraitz Berraondo eta Unai Kortabarria.

**ELKARTEAK OHI BAINO GAZTE GEHIAGO ERAKARRI DUTE, ETA HORRELA JARRAITZEA ESPERO DUTE**

Hain justu, urtebeteko esperientzia dute azken lau horiek, eta datorren urtean amaituko dute agintaldia. Haien ordez beste lau batzarkide hautatuko dituzte federatuta daudenen artean; boluntariorik ez bada, zozketa egingo dute.

### Gerora begirakoak

2023an hiru ekintza egin dituzte, eta, horrez gain, beste bi ere antolatu dituzte, baina parte-hartze baxua zela-eta ez dituzte egin.

Datozenei dagokienez, asmoa da uztailean goiz-pasa bat egitea mendian; Pirinioetara ere joango dira, irailean; eskalada ikastaro bat egingo dute, urrian; azaroaren 13tik 19ra bitartean, berriz, mendi astea antolatuko dute; eta abenduan Aketegira irteera izango da.

# Ikuspuntuak partekatuta amaitu du ikasturtea irakurle taldeak

Taldekideek azaldu dutenez, "pozik" daude egin dituzten saioekin, eta irailean hasiko dute ikasturte berria

**A.R.K.** ANTZUOLA

Ekainaren 15ean amaitu zuen ikasturtea Antzuolako irakurketa taldeak, eta Gaztelu-Gain elkartean bildu ziren, afari-merienda egin baitzuten solasaldiaren ostean.

Azaldu dutenez, Arantxa Urretabizkaiaren *Azken etxea* izan zuten mintzagai azken saioan, baina liburu gehiago izan dituzte aztergai ikasturtean. "Taldea bi hilabetean behin bildu da urtean zehar, hainbat euskal idazleren obrak komentatzeko, eta oso pozik gaude. Ikuspuntuen aniztasuna eta irakurketari esker partekatu ditugun gogoetak eta emozioak azpimarratuko genituzke".

Besteak beste, Eider Rodriguezen, Bertol Arrietaren, Kirmen Uriberen eta Alaine Agirreren lanak izan dituzte oinarri ikasturtean, eta, hain justu, Agirre bera arduratu da taldea dinamizatzeaz.



Irakurle taldeko kide batzuk. PILAR ETXANIZ

### Irailean itzuliko da

Irailaren 14an hasiko dute ikasturte berria, eta parte hartu nahi duenak udal liburutegian eman dezake izena.

## Greba feminista orokorrerako bilera egingo da eguenean

Zaintzarako eskubide kolektiboa ardatz, greba feminista orokorrerako prozesuan da Euskal Herriko Mugimendu Feminista, eta horren berri emateko informazio bilera egingo du Andramanuelak emakume taldeak ekainaren 29an, Olarango bigarren pisuko gelan, 18:30ean.

Adierazi dutenez, herriko eragileek zein norbanakoek prozesuarekin bat egiteko nahia dute, greba egunak aldarrikatzeko balio duen arren nabarmendu baitute prozesu osoari begiratu nahi lioketela datozen hilabeteetan egingo duten lanketan: "Grebaren oinarriak antolakuntzan, aktibazioan, saretzean, politizazioan, interpelazioan eta harremanetan jarri nahi ditugulako". Erantsi baitute helburua grebara begira egingo den aurretiazko lana dela.

Horrez gainera, jakinarazi dute taldeko kamisetak eta poltsak saltzen izango direla gaur arratsaldean Herriko Plazan eta Kalebarrenen.

## Eskulanen erakusketa izango da ikusgai asteburuan Olaranen

Eskulanen ikastaroan aritu dira zenbait herritar ikasturte honetan zehar, eta, orain, amaitzeko, tarte horretan eginiko lanak erakusteko aukera izango dute, erakusketa egingo baitute Olarango areto nagusian asteburu honetan. Bihar hasi eta etzira arte izango dira lan horiek ikusgai han, 18:30etik 20:30era bitartean.

## Jubilatuen bazkariko txartelak erosteko aukera izango da

Uztailaren 9an, domeka, egingo dute bazkaria, eskolako barruko patioan, 14:15ean, eta astelehenean eta martitzenean erosi ahalko dira txartelak, 16:30etik 18:00etara artean, Landatxope jubilatuen elkartean. Zizka-mizkak, legatza, txekor konfinatua eta postrea izango dira jateko, hamar euroren truke, eta dantzaldia ere egingo dute.

# "Garrantzitsua da odola ematea; udan ere bai"

**SABIN URZELAI** GIPUZKOAKO ODOL BANKUKO ARDURADUNA

Oporrak tarteko, odol-ateratzeak nabarmen jaisten dira udan eta nabaritu egiten da erabilgarri dauden odol erreserbetan. Dei berezia egin dute Gipuzkoako odol bankutik

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Odol bankuetako erreserbak ohikoaren azpitik daude uda hasiera honetan. Gipuzkoako odol bankuko arduraduna da Sabin Urzelai (Caracas, 1955). Martitzenean egin zuen hitzaldia herrian, Elgetako odol emaileen elkarteak gonbidatuta.

**Larria al da odol bankuen egoera?**

Une honetan ondo gaude, baina ekaina da, eta, kontuan hartuta opor sasoian odol-emateak jaitsi egiten direla, abuztuan sortu daiteke arazoa. Ohiko mailetatik behera gaude eta dugun premiari aurre egiteko 400 bat poltsa odol atera behar ditugu egunero. Odola ematea oso garrantzitsua da; udan ere bai. Denok pentsatzen dugu odola jasotzea eskubidea dela, eta, eskubidea bada, denon ardura ere izan beharko luke.

**Emaileek emandako odolak ze prozesu jarraitzen du gero?**

Odol emaileak emandako odola poltsa batean jasotzen da, eta eramaten da Galdakaon dagoen zentro batera. Han makina batean sartzen dira poltsak eta hogei bat minutuko prozesu batean bereizten dira globulu gorriak, plaketak eta plasma. Bakoitzak bere kontserbazio premiak ditu eta horien arabera gordetzen dira, behar direnerako.



Gipuzkoako odol bankuko arduradun Sabin Urzelai. L.Z.L.

**"ODOL BANKUETAKO ERRESERBAK OHIKOAREN AZPITIK DAUDE UDA HASIERA HONETAN"**

**Odola ezin da ez saldu ez erosi.**

Legeak horrela jasotzen du. Hemen, dena den, sistema oso ona dugu. Ni Uruguain jaioa naiz, eta han ebakuntza bat egin behar duzunean lauzpabost odol emaile eraman behar dituzu zure izenean odola emateko. Lagunek doan egiten dute, baina bada jendea diru truke egiten duena.

**Eta zer da plasmaferesia?**

Plasma lortzeko sistema bat da. Odola aterata ere lortzen da plasma, baina sistema horrekin gehiagotan eman daiteke. Plasma gero eta gehiago beharko da, immunitate arazoak dituen jende gero eta gehiago dagoelako. Paziente haiek immunoglobulina behar dute sendatzeko. Hilero behar dute injekzio bat. Oraingoz, hiriburuetan bakarrik egin daiteke plasmaferesia.

## Sendabelarrek ere interesa pizten dute

Osasun kontuekin lotuta, sendabelarren gaineko ikastaroa egin du *Sendabelar baratzea* liburuaren egile Garbiñe Larreak liburutegian. Jendea kanpoan gelditu da, eta beste saio bat egingo du uztailaren 6an.

Liburutegian, bestalde, sendabelarren erakusketa bat dago ikusgai, eta gaiaren gaineko liburuekin interesgunea jarri dute.



Garbiñe Larrea ikastaroa egiten, eguaztenean, liburutegian. ELGETAKO LIBURUTEGIA



L.Z.L.

## Udalbatza berria eratu dute

Elgetan ere eratuta dago udalbatza berria, eta, EH Bilduko sei ordezkarien botoekin, Ibon Unzetabarrenetxeak hartu zuen alkate-makila zapatuan. EAJk ez zuen alkategairik aurkeztu eta abstenitu egin zen Unzetabarrenetxearen aldeko bozketan. Laster egin gura du lehen osoko bilkura alkate berriak. Seguruenik, uztail hasieran izango da.



IMANOL SORIANO

## Bergarako Banda Elgetan

Baziren gutxienez 66 urte Bergarako Bandak ez zuela Elgetan jotzen, eta domekan kalejira eta kontzertua egin zituen, Xalbadorpe elkarteak eta Udalak elkarlanean antolatuta. Elgetako ereserkia jo zuen Bandak kalez kale. Antzokiko kontzertuan, berriz, ehun bat lagun elkartu ziren. Litekeena da bisita gehiago ere egitea; urtean bat egitea da asmoa.

## San Juan bezperako ospakizunak gaur iluntzean Elgetan

San Juan sua egiteko piloa egiten hasiak dira Elgetan. Gaur gauean piztuko dute, behin iluntdutakoan. Aurretik, disko-festa egingo du DJ Xaiborrek (17:30) eta ogitartekoak banatuko ditu Maala guraso elkarteak eskolako ikasleen artean (20.00). Eskolak, guraso elkarteak, Udalak eta liburutegiak elkarlanean antolatutako egitaraua da.

## OHARRAK

### Liburutegia

Liburutegi zerbitzuak udako ordutegia izango du irailaren 10era arte. Abuztuan itxita egongo da. Ordutegia ikusgai dago webgunean.

### Udalekuak

Astelehenean zabalduko da udaleku zerbitzua. 09:00etatik aurrera izango dira ateak zabalik. Lau astez emango du Udalak zerbitzua.

# JAIETAKO EGITARAUA

## EGUENA 29
### MOZORRO EGUNA

**12:00** BURUHANDIEI ONGIETORRIA. Udalekuak.

**19:30** MOZORRO JAITSIERA Elgetako trikitilariekin, alkate txikiak bidea zabalduz.

**20:00** BURRUNBAZALE txaranga.

**20:00** TXOSNA IREKIERA.

**23:00** Erromeria plazan MUGI PANDEROA taldearekin.

**00:00** LARRAIN DANTZA. Ondoren, erromeriak jarraituko du 01:00ak arte.

**01:00** KONTZERTUAK TXOSNAN. Corda Rota eta Iluminatizz.

## EGUBAKOITZA 30,
### UMEEN ETA ERRETIRATUEN EGUNA

**11:00** Umeentzako puzgarriak eta jolasak.

**11:15** KUADRILLEN HAMAIKETAKOA Intxorta elkartean.

**12:00** EUSKAL PENTATLOIA plaza barrenean. Imanol Albizuren erakustaldia.

**13:00** MEZA, iazko jaietatik hil diren jubilatuen alde. Xalbadorpek antolatuta.

**13:40** ERRETIRATUEN ARGAZKIA.



Jaiei hasiera emateko, mozorro jaitsiera. IMANOL SORIANO

**14:00** JUBILATUENTZAKO BAZKARIA Espaloian. Ondoren, bingo-jolasa.

**14:00** UMEENTZAKO BAZKARIA plazan.

**15:30** PUZGARRIAK ETA JOLASAK umeentzako.

**18:00** TALDE JOLAS PARTE-HARTZAILEAK kuadrillentzako. Kantxan.

**18:30** BURUHANDIAK.

**19:30** BEASAINGO ZANPALDUNAK (Gazte Asanblada).

**20:30** KONTZERTUA txosnan. Kimak.

**23:00** ZEZENSUZKOA.

**23:15** KONTZERTUA PLAZAN, Iheskide taldearekin.

**01:00** KONTZERTUA TXOSNAN. Burugabe eta No Limits.

## ZAPATUA 1
### HERRI EGUNA

**07:00** GAUPASERO ARGAZKIA Gazte Asanbladaren eskutik.

**11:15** ESNA DEIA.

**11:30** KUADRILLEN HAMAIKETAKOA Ozkarbi elkartean.

**12:00** JAIOBERRIEI HARRERA udaletxean.

**12:30** BERGARAKO ERRALDOIAK.

**13:00** EUSKAL DANTZAK Elgetako haurren eskutik. Ondoren, soka dantza.

**14:30** HERRI BAZKARIA plazan: paella erraldoia eta saiheski errea.

**17:00** ERROMERIA Jainaga eta Narbaizarekin.

**18:00** BURUHANDIAK.

**19:30** PINTXO MORUNOAK Intxortako Lehoiak peñaren eskutik.

**22:00** GOTX ELEKTROTXARANGA.

**23:00** Zezensuzkoa. Ondoren, elektrotxarangak jarraituko du, ordu bata arte.

## DOMEKA 2

**09:00** FERIXA NAGUSIA: ganadu erakusketa, artisauak eta baserritarrak.

**11:30** ATHLETIC-REALA partida herrikoiak, Intxortako Lehoiak peñak antolatuta.

**17:00** Haur eta gaztetxoentzako GORA BIHOTZAK IKUSKIZUNA plazan.

**17:00** PILOTA PARTIDUA. Sanferminetako torneoko Baikokoen finala, eta, harekin batera, binakakoak.

**18:30** BURUHANDIAK.

**20:00** PARRILLADA plazan.



Mugi Panderoa taldearekin erromeria, egubakoitzean. GOIENA

LAIBE
Dísfrutatu Elgetako jaietan!
MAKINA ERREMINTA SL Elorrio bidea z/g, Elgeta



**2019ko feriaren irudi bat.** AITOR AGIRIANO

# Berriro ere idiak izango dira Ferixa Nagusian

Elgetako azokako ikurra dira idiak; bada, azken urteetako hutsunearen ondoren, idi-pareak ikusteko aukera egongo da berriro ere jaietan. Uztailaren 2an egingo duten azokan artisauak eta barazki-postuak ere ez dira faltako herriko kaleetan

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ELGETA

Elgetako jaiei izena ematen dien feriak edo azokak idiak berreskuratuko ditu aurten. Pandemiaren eraginez lehenengo, eta iaz, aldiz, Diputazioarekin azken orduko arazoak izan zituztelako, azken urteetan ez da ganadu feriarik egin jaietan. Bada, Elgetako Udalak eguaztenean jaso zuen aurtengo jaietako feria antolatzeko baimena.

"Iaz ez genuen izan denborarik azoka antolatzeko, eta protesta moduko bat egin genuen. Aurten, aldiz, normaltasunez egingo dugu ganadu azoka", dio Agustin Beretxinagak. 10:00etan hasiko da herriko eta Debagoieneko artisau eta ganadu azoka. Berraondokuan jarriko dute ikusgai ganadua: 30 idi-pare, bi behi-pare, 30 bat behi –Elgetakoak–, ahuntz azpigorriak, behorrak, txerriak... egongo dira. "Idiak etorriko dira ia Euskal Herri osotik: Hondarribia, Aia, Errezil, Bergara, Elorrio, Orozko...", dio Beretxinagak.

Elgetako azokako berezitasuna idiak izaten dira: "Ez da beste inon horrelako feriarik egiten". Azokak aukera ematen die baserritarrei euren ganadua erakusteko.

### Askotariko postuak

Barazki-postuak eta artisauak ere egongo dira uztailaren 2an. "Eskaera gehien egiten dutenak artisauak izaten dira", dio azoka antolatzen ibiltzen den Sebas Arantzabalek. Aurtengo azokarako eskaera egin dute 40 bat artisau edo nekazarik. Denetariko produktuak dastatzeko eta erosteko aukera egongo da: barazki ekologikoak, gazta, eztia, kontserbak, ogia, berakatza, burdindegiko produktuak...

Elgetako artisauek ere jarriko dute postua: "Bi artisau postu jarriko dituzte elgetarrek, eta baita janaria ere, marokoar jatorriko janaria eta gozogintza". 10:00etatik 14:00etara bitartean egingo dute azoka plazan eta inguruko kaleetan. Jendea animatu nahi dute jaietako domekan azokaz gozatzera.

## Lehengo udalbatza eta berria, elkarrekin soka dantzan

Zapatuan izango da ekitaldia, 13:00etako haurren dantzen ondoren; larrain dantza eguenean izango da

**A.E.G.** ELGETA

Udalbatza berriak eta orain artekoak elkarrekin egingo dute soka dantza jaietako zapatuan, Herri Egunean. Udalbatzako kide izateak, ardura politikoez gainera, herriko jaien bueltan herritarren aurrean dantza egitea ere badakar. Bada, lan horiek ahalik eta ondoen egiteko entseguetan ibili dira Elgetako udalbatzako kideak azken asteotan. Irati Kortabitarte irakaslearekin egin dituzte entseguak.



**Zinegotzien entsegua.** TXOMIN MADINA

### Alkate aldaketa

Aurtengo egoera berezia izango da. Orain arte alkate izandako Iraitz Lazkanok banakoa dantzatuko du sokan azkeneko postuan joango den Jone Elkoro zinegotzi gazteenarekin; modu horretan, pasoa emango dio Ibon Unzetabarrenetxea alkate berriari. Unzetabarrenetxeak agurra dantzatuko dio herriari.

Bestalde, jaietako lehen egunean, eguenean, larrain dantza egingo dute herritarrek, 00:00etan. Barikuetan egiten dituzte entseguak. Mugi Panderoa erromeriaren tartean izango da.

## Tripa betetzeko eskaintza handia egongo da jaietan

Ferixa Nagusiko jaietan ez da faltako jatekoa eta edatekoa. Barikuan, Umeen eta Erretiratuen Egunean, kuadrillen hamaiketakoa eskainiko dute Intxorta elkartean, 11:15ean. Egun berean, bai umeek eta baita erretiratuek ere bazkaria izango dute. Erretiratuek Espaloian izango dute bazkaria, 14:00etan; eta, ondoren, bingoan jolastuko dira. Umeek, aldiz, plazan bazkalduko dute elkarrekin.

Zapatuan, kuadrillen hamaiketakoa Ozkarbi elkartean izango da, 11:30ean. 14:30ean, herri bazkaria izango dute plazan: paella eta saiheski errea –txartelak Karrajun: 5 euro eta 3 euro, hurrenez hurren–. 19:30ean, txitxi-burruntziak banatuko dituzte Intxortako Lehoiak lagunartekoek.

Domekan, parrillada izango dute herriko plazan, 20:00etan, gazte asanbladak antolatuta.



# Ondo pasatzeko egunak izango dituzte umeek

Ferixa Nagusiko jaietan Izei Arizmendiarrieta izango da alkate txikia; aginte-makila hartuko du ordu batzuetarako. Bestalde, Umeen Eguna barikuan izango da: bazkaria izango da plazan, 5 euroren truke. Txartelak Karrajun eros daitezke

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ELGETA

Herriko txikiendako egun bereziak izaten dira herriko jaiak. Bada, ondo pasatzeko eta gozatzeko tartea izango dute aurten Ferixa Nagusiko jaietan.

Eguenean, Mozorro Egunean, hasiko dituzte jaiak, buruhandiei ongietorria eginda, 12:00etan. Arratsaldean, aldiz, ofizialki hasiko dituzte, jaiak mozorro jaitsierarekin. Alkate txikiak izango du bidea zabaltzeko ardura: dagoeneko eskolan egin dute bozketa LHko seigarren mailakoen artean, eta aurtengo jaietako alkate txikia Izei Arizmendiarrieta izango da. Aginte-makila hartuko du ordu batzuetarako.


Iazko jaietan, gaztetxoak puzgarrietan. AITOR AGIRIANO

**Umeen Eguneko bazkaria**

Barikua izango da Umeen Eguna. "Betiko lekuan jarriko dituzte bost jolas", azaldu dute udal ordezkariek. Udalak ordainduta izaten dira umeen eguneko puzgarri eta jolasak; barikuan 11:00etan eta 15:30ean izango dira horiek: eguraldiaren arabera, botika ondoan edo frontoian.

Barikuko umeendako bazkaria plazan izango da, 14:00etan. Bazkarirako txartelak Karrajun daude salgai, 5 euroren truke: makarroiak, haragi-bolak eta izozkia izango da umeen menua.

**Jaioberriei ongietorria**

Herri Egunean, zapatuan, azken urtean Elgetan jaiotako haurrei harrera egingo diete udaletxean. 2022ko jaietatik aurtengo jaietara sei haur jaio dira Elgetan; bada, haiek eta haien gurasoek udaletxean izango dute harrera, 12:00etan.

12:30ean, Bergarako erraldoiek kalejira egingo dute: bigarren urtez egingo dute umeek hain gustuko duten ekitaldia. Bergarako erraldoi handiak eta txikiak eramango dituzte eta kalejira egingo dute.

**Euskal dantzak**

Elgetako umeek euskal dantzak egingo dituzte zapatuan, 13:00etan; Bergarako Moises Azpiazu dantza taldekoen gidaritzapean ibili dira entseguak egiten azken hilabeteetan. 40 bat gaztetxok dantza egingo dute, bi taldetan banatuta; talde bakoitzak hiru dantza egingo ditu. Ondoren izango da udalbatzaren soka dantza.

**'Gora bihotzak' ikuskizuna**

Jaietako azken egunean, domekan, 17:00etan, Bilboko Eidabe ekimen kulturalak *Gora bihotzak* lana aurkeztuko du plazan. Leire Sanjurgo, Iratxe Bilbao eta Aitzol Iraola izango dira taula gainean dantzan ibiliko diren aktoreak. Ordubete inguru iraungo du ikuskizunak eta Inun-en kanta eta Xabier Payaren bertsoak eskainiko ditu, besteak beste.

Ferixa Nagusiko jaietako kartelaren egilea ere gaztetxo bat da: Lili Arantzabalek proposatutako *Jaietan jai* kartelak lortu zituen boto gehien. Emandako 78 botoetatik 34 jaso zituen Arantzabalen kartelak.



# Gazte Asanbladak ere badu bere egitaraua

Elgetako Gazte Asanbladak txosnagunerako egitaraua osatu du, aurtengo berritasun nagusi bezala, eta eguenetik domekara arte askotariko kontzertuez, jolasez eta ekitaldiez gozatzeko aukera izango dute bertaratuko diren guztiek

**Julen Murua** ELGETA

Datorren eguenean, hilaren 29an, emango diete hasiera elgetarrek Ferixa Nagusiko jaiei. Aurten, azken urteetan ez bezala, Gazte Asanbladak txosnagunea iragarri du, eta lau egunetan zehar askotariko ekitaldiak eskainiko dizkie bertaratuko diren guztiei.

Eguenean 20:00etan ateak irekiko ditu txosnaguneak, Burrunbazale txarangarekin, eta, ostean, Kordarota eta Iluminatizz taldeen kontzertuak izango dira. Bariku arratsaldean, Umeen eta Erretiratuen Egunean, elgetarrek kuadrillen arteko herri-jolasetan parte hartzeko aukera izango dute kiroldegiko kantxan. Ostean, Beasaingo Zanpaldunek ekitaldia egingo dute txosnagunean, eta, eguna amaitzeko, Kimak, Burugabe eta No Limits taldeen kontzertua izango da.

Goizeko zazpietan ateratako gaupasero argazkiarekin hasiko dute zapatuan Herri Eguna elgetarrek, eta, eguerdian plazan izango den herri bazkariaren ostean, Gotx elektrotxarangaren emanaldia izango da. Jaiei amaiera emateko, Elgetako eta Debagoieneko artisau eta ganadu azoka izango da domeka goizean, eta parrillada batekin esango diete agur elgetarrek 2023ko Ferixa Nagusiko jaiei.



Burrunbazale txarangako kideak. BURRUNBAZALE TXARANGA

### Musika ekitaldiak plazan

Txosnaguneko musika emanaldiez gain, Elgetako plazan ere hainbat talderen kontzertuez gozatzeko aukera izango dute bertaratutako guztiek. Hain zuzen ere, Mugi Panderoa eta Jainaga eta Narbaiza erromeria taldeak eta Iheskide euskal punk rock taldea izango dira kontzertuak emango dituztenak.

## Txosnagunea gaztetxeko zabalgunean

2018a ezkero zeramatzaten elgetarrek Gazte Asanbladа barik. Aurten, berriz, hainbat urteren ostean, urte hasieratik lanean jardun eta txosnagunea irekitzea erabaki zuten: "Herriko eragile izateko eta herriak ikus dezan hemen gaudela eta lanean ari garela", azaldu du Gazte Asanbladako Unai Andresek.

Asanbladako kideak "oso pozik" daude: "Orain arte antolatutako ekintzetan herriaren erantzuna oso ona izan da, eta haren babesa erakutsi digu". Gehitu dute txosnagunean ez dela inolako erasorik onartuko; eraso sexisten kontrako puntu morea egongo da.




Elena Elkorok zorionik beroenak opa dikizue elgetar guztioi eta bertaratzen zareten guztioi!

# Herri kirolak Umeen eta Erretiratuen Egunean

Euskal pentatloiko txapelketa antolatu du Jai Batzordeak, eta plaza barrenean izango da; horren ostean, Imanol Albizuren erakustaldia izango da han bertan

**Julen Murua** ELGETA

Aurreko urtean izandako harreraren ostean, aurten ere herri kirolen erakustaldia antolatzea erabaki du Jai Batzordeak, Umeen eta Erretiratuen Egunean. Karmele Gisasolak eta Ioritz Gisasolak errepikatuko dute aurten ere, eta buruz buru lehiatuko dira barikuan plaza barrenean.

Ekitaldi hori antolatzen den bigarren urtea dela kontuan izanda, "aurten ere harrera oso ona izatea" espero dutela adierazi du Ibon Unzetabarrenetxeak, Elgetako alkateak. "Giro ederra sortzen duen erakustaldia izan ohi da", eta herritar asko bertaratuko den zalantzarik ez du Unzetabarrenetxeak.



Imanol Albizu harria jasotzen. GOIENA

## Ostean, Imanol Albizu

Imanol Albizu *Goikoetxe*-k egindako erakustaldiarekin amaituko dira Ferixa Nagusiko herri kirolak. "Denbora luzez geldi" egotea ez da eragozpena izan harentzat, eta elgetarrendako erakustaldia egiteko prest dago.

"Lana dela-eta" lehenagoko entrenamenduen erritmo berbera jarraitzea "zaila" dela dio Albizuk, nahiz eta tarteka "entrenamendu saio bat edo beste" egiteko tartea ateratzerik izan duen. Edozelan ere, elgoibartarrari ilusio berezia egiten dio Elgetan erakustaldia egiteak: "Nire jaioterria ez bada ere, urte asko daramatzat Elgetan bizi izaten, eta ilusio puntu hori nabari dut".

# Athleticzaleen eta realzaleen arteko partidua, urtero moduan

Intxortako Lehoiak lagunarteak antolatutako 'euskal derbia' izango da Elgetan jaietako domekan

**J.M.** ELGETA

Azken urteetan ez du hutsik egin Ferixa Nagusiko jaietan Intxortako Lehoiak lagunarteak antolatutako zuri-gorrien eta txuri-urdinen arteko partiduak, eta aurten ere ez da salbuespena izango.

Uztailaren 2an, domeka, 11:30ean hasita, Elgetako athleticzaleek eta realzaleek elkarren arteko norgehiagokak jokatuko dituzte lagunarteko erara, eta, antolakuntzaren arabera, "lehenik eta behin, neska-mutikoen partidua jokatuko da, eta, ostean, emakumezkoena eta gizonezkoena".



*Athletic* eta *Reala* aurrez aurre. GOIENA

## Giro paregabea

"Urteroko giro berbera" espero dute antolatzaileek aurten. Harrera izugarria izan ohi du ekitaldiak, eta Bolatoki alboko kantxara bertaratzen diren herritarrek "giro ederraz eta egunaz gozatzea" nahi dute lagunarteko kideek.

Javi Gamarrak, Intxortako Lehoiak peñako lehendakariak, dio partiduen ostean gaztetxoenek eskuragarri izango dituztela "gozokiak eta edariak", ekitaldia amaitzeko.

MOZORRO JAITSIERA ZUZENEAN
'GOIENA.EUS'-EN ETA GOIENA TELEBISTAN
EKAINAREN 29AN, EGUENA, 19:15EAN
ELGETAKO HERRIKO PLAZATIK 'HEMEN DEBAGOIENA, JAIETAN' SAIOA
DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!
goiena
Zu hemen zaude.






ELCORO Decoletaje
TOPAC MARTILLOS NEUMÁTICOS
Ferixa Nagusiko Jaixak primeran pasatzea espero dugu!
Pagatza Parke Industriala 5, Salla E · Elgeta, Gipuzkoa
www.elcoro.com

# Emakumion Etxiaren espazioak, zehaztuta

Altzari mugikorrak izango ditu, eta erabilera askotariko gelak, zerbitzuetarako bulegoak, egoteko espazioak, sormen-gunea eta sukalde bat egongo dira eraikinean; unearen arabera modu batera edo bestera erabili ahal izateko moduko espazioak

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Ari da itxura hartzen Oñatiko Emakumion Etxia. Barne antolaketa nola egingo duten adosten ibili dira erabakitze faseko azken hiru saioetan. Eguazten iluntzean egin zuten azkena, eta eraikin barruan zer eta nolako espazioak egongo diren eztabaidatu eta erabaki zuten.

**Eztabaida eta adostasuna**

Barne espazioak definitu eta aurrekoetan adostutako premisak berretsi eta zalantza gehiago sorrarazten zituzten ertzak argitzeko saioa izan zen eguaztenean Eltzian egindakoa. Esaterako, eraikina dituen hiru solairuen irekieraz edo publikotasunaz hitz egin zuten joandakoek, espazio irekiagoak eta pribatuagoak edo intimoagoak berezitu zituzten, eta horren arabera antolatu espazioak.

Espazioak zehaztuta, gune hauek izango ditu etorkizuneko Emakumion Etxiak: erabilera askotariko gelak, zerbitzuetarako bulegoak, egoteko espazioak, sormen-gunea eta sukalde bat. Azken zerbitzu hori izan zen eztabaida handien sortu duen gaia, hain zuzen ere. Kokalekuak, batetik, eta izan beharko lukeen pribatutasun edo publikotasun mailak, bestetik, sozializatzeko eta ahalduntzeko espazio interesgarria izan daiteke-eta, askoren iritziz.

**Altzari mugikorrak barruan**

Espazioen izaeren inguruan, egonkorrak ez izaten saiatu dira; hau da, ez izatea helburu edo erabilera bakarrera lotuta egoteko guneak, baizik eta unearen arabera modu batera edo bestera erabiltzeko modukoak izatea. Horregatik, eraikinean altzari mugikorrak jartzea proposatu dute, baita mugikorrak izan daitezkeen beste elementu batzuk ere, intimitatea edo akustikoki moldatzeko aukera eskaintzen dutenak.

**UZTAILAREN 12AN EGINGO DUTE SAIO IREKIA, PROPOSAMEN DEFINITIBOA AURKEZTEKO**

**Funtzionamendua hurrengo**

Etxearen dinamizazioaz ere hitz egin zuten, eta baita harrera-bulegoaren beharraz ere. Barne antolaketari dagozkion erabakiak hartuta, proiektuaren proposamena egingo du Juntura arkitekto taldeak, eta horren aurkezpen irekia egingo dute uztailaren 12an, Eltzian. Datorren ikasturtean erabakitze faseko saio gehiago egingo dituzte: arauak, ordutegia, funtzionamendua eta baliabide pertsonalak eta materialak adostuko dituzte, besteak beste.

Barrua diseinatzeko prozesuak aurrera jarraitzen duen bitartean, eraikina barrutik husten ari dira eta argindarra eta halako oinarrizko baliabideak sartzen ari dira.



Eguazten iluntzean Eltzian egindako bileran, espazioen neurriak irudikatzen. TA PUNTU



OIHANA ELORTZA GOROSTIZA

## Agintaldi berrirako udal taldea

Ekainaren 17an egin zuten 2023-2027ko agintaldirako udal talde berria eratzeko osoko bilkura. Orduan egin zuten karguaren zina udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotziek, eta Izaro Elorza Arregi aukeratu zuten alkate datozen lau urteetarako. Etxekoek, udal ordezkari izandakoek eta alderdikideek bete egin zuten osoko bilkuren aretoa.

## Astelehenean hasiko dira umeak herriko udalekuetan

Astelehenean, ekainak 26, hasiko dira aurtengo ume eta gaztetxoendako Udalak prestatutako aisialdi programak: udaleku irekiak, arte udalekuak eta kirol kanpaina. Uztailaren 21era bitartean egingo dituzte hirurak, bakoitza bere espazioan, eta era askotako jardunak egingo dituzte. Udaleku irekietan, esaterako, ur jolasak, irteerak eta eskulanak egingo dituzte; arte udalekuetan, berriz, marrazkigintza, eskultura, margotzea eta beste arte adierazpen batzuk egingo dituzte; eta kirol kanpainan, aurrez izena eman duten kirolaz gozatu ahal izango du gaztetxoak: tenisa, patinak edo igeriketa, besteak beste.

## Herriko jai nagusietarako lehen deialdiak egin dira

San Migel eta Errosaixo jaietarako lehen deialdiak, izen-emateak eta lehiaketak zabaldu ditu Udalak astean. Esaterako, Herri Egunean taloen taberna kudeatu gura duen eragileak uztailaren 7a aurretik eman behar du izena kultura etxean. Artisau azokan lanak erakutsi eta saldu gura dituenak, berriz, uztailaren 3tik 16ra bitartean egin behar du, udal webgunean sartuta. Salmenta postuak jartzeko eskaerak ere online egin behar dira, uztailaren 17tik aurrera.

Jaietako egitarauaren azal lehiaketa dagoeneko zabalik dago, eta jaietan zer eta non egin adosteko bilera irekia uztailaren 4an da, 18:30ean, kultura etxean.

## Eskolara Oinez ekimenak arrakasta, beste behin

**Goiena komunitatea**
Urgain / OÑATI

Aurreko aste osoan Errekaldera oinez eta elkarrekin joateko dei egin zuen Guraso Elkarteak, eta primeran erantzun zuten Urgain Herri Eskolako HHko eta LHko ikasle eta familiek. Asko izan ziren eskolarako ibilbidea "era egokienean" egitea sustatu nahi duen ekimena babestu zutenak.



Eskolara, oinez. URGAIN



Udako solstizioaren ospakizuna Foruen plazan 2017an. GOIENA

# Olaitturrin emango diote gaur su txondorrari

Txantxiku ikastolako guraso talde batek agertu du prestutasuna San Juan sua Udalarekin, Oñatzekin eta Aita Madina txistulari taldearekin batera antolatzeko, eta horrela egingo dute, 22:30ean, Olaitturrin, lau urteko hutsunearen ondoren

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Txantxiku ikastolako guraso talde batek bakarrik erantzun zion Udalak San Juan sua antolatzeko laguntzaile bila egindako aurtengo deialdiari, eta bien artean prestatu dute gaurko San Juan sua, Oñatzeko dantzariekin eta Aita Madina taldeko txistulariekin elkarlanean. Olaitturrin izango da aurten, 22:30ean.

**Zereginak banatuta dituzte**

Udal brigadako langileak goizean hasiko dira gauean erreko dituzten oholak eta bestelako materiala Olaitturrira eraman eta txondorra prestatzen. Dena gertu uztea eta dena jasotzea izango da Udalaren eginkizuna, eta sua piztea, ekitaldian zehar zaintza lanak egitea eta sua itzaltzea, berriz, Txantxiku ikastolako guraso taldearen lana.

Olaitturri plazaren erdigunean egongo da txondorra eta inguruko altueretatik ikusteko moduan egongo dira herritarrak. Sua bera, eta baita dantzak ere. Oñatzeko dantzariek beti hartu dute parte San Juan suko ekitaldian. Zita berezia izaten da, gainera, eurendako. Nagusien taldera pasatzen diren dantzari gazteen lehen plaza izan ohi da. Aurten ere hartuko dute parte Oñatzeko dantzariek, txistularien doinuak lagunduta dantza eginez. Koplak ere abestuko dituzte.

**Jarraipena emateko asmoarekin**

Txantxiku ikastolak 55 urte bete ditu aurten eta askotariko ekitaldiak ari da antolatzen urteurrena ospatzeko; Beskoitzeko ikastolarekin egindako harremana, Elbira Zipitriari buruzko dokumentalaren emanaldia eta ikasle ohien bazkaria, esaterako. San Juan sua egitea beste ekitaldi bat izan zitekeela pentsatu zuten guraso kontseiluko kideek, eta ikastolako beste langile batzuekin batera hamar bat laguneko taldea osatu dute tradizio handiko ekitaldi hori antolatzeko. Aurten urteurrenarekin batera tokatu arren, baina, aurrerantzean ere antolatzen jarraitzeko prest daudela esan dute. "Euskal kulturaren eta ohituren transmisioan bete-betean sartzen da, eta pena litzateke su hori itzaltzea. Horrek, noski, gaia bera ikasleekin lantzea ere badakar, eta egingo da lanketa hori".

**BADUTE ASMOA HURRENGO URTEETAN ERE ANTOLATZEKO, "TRANSMISIOAN LAGUNTZEKO"**

**2018an azkenengoz**

2018a ezkero ez da egin. 2019an Corpus ospakizuna ekainaren 24an tokatu zen eta ezinezkoa izan zitzaien bezperan txondorra egitea plazan. Dantzariek ere zaila zuten parte hartzea, Corpus dantzetako agerraldiak zituztelako. Pandemia izan zen 2020an eta 2021ean ez egitearen arrazoia; 2022an ez zen inor aurkeztu.



NIRE USTEZ

ASIER UGARTE IMAZ

## Futbolaren argi-ilunak

Badaukagu joera bat inor aurkezterakoan pertsona hori identifikatuko duen hitz bat erabiltzeko. Nire kasuan, *futbolaria* izan da sarri entzun izan dudana. Eta beti eman dit zer pentsatua; ez zait inoiz gustatu. Futbolariaren alde ilunak gehiago ikusten baititut argiak baino. Gizonkeriatik, matxismotik, zakarkeriatik eta indibidualismotik gehiago baitu gaur egungo futbolariak kontratik baino. Eta zer esanik ez gaur egungo futbolaren sistemak berak; gizartearen erakusleiho nagusienetakoa izanik, ez gara gai epaileak eta jokalariak iraintzen direnean edo deiadar arrazistak edo homofoboak entzutean ahotsa altxatu eta hori salatzeko. Albistea lehen lerroan dagoenean, orduan bai, orduan denok gara eredugarriak.

Inoiz ez naiz futbol talde baten jarraitzaile sutsua izan, futbola ikusi eta jokoaren emozio horren aldekoa baizik. Urteetan kirol ikuskizun horren parte izan naiz, eta taldekideen laguntasunaz, harremanez eta jokoaz gozatzea izan ditut helburu, futbolak badituelako bere alde onak, pizti jarreretatik aparte jende eredugarrien golak ospatzeko gogoa ematen dutenak.



AITZIBER ARANBURUZABALA

## 'Betia', sarean etzitik aurrera

Xup! antzerki taldeko kideek websail bihurtu dute duela bi urte antzezlan moduan jaiotako proiektua eta hamabost minutuko zortzi atal ekoiztu dituzte. Egubakoitzean egin zuten lehen atalaren aurrestreinaldia Santa Anan. Danak Gaztea Irratiko Youtube kanalean egongo dira ikusgai ekainaren 25ean –lehen lau atalak–, eta uztailaren 2an –azken laurak–.

AUTLAN® EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.




Jasone Elorza, Miren Urkiola, Susana Arrese eta Ainara Diaz de Gereñu antolatzaileak. ABIXARAN TORREAUZO

# Hazten ari den herri krosa da Torreauzokoa

Zortzigarren aldiz antolatu du domekako lasterketa Abixaran Torreauzo taldeak, eta bilakaera izan duela diote. Aurten ere gonbidapen berezia egin diete emakumeei, herritarrei eta muga fisikoak dituztenei. 10:00etan aterako dira lehenengoak

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Tourragatik, astebete lehenago egingo dute 24. Torreauzoko krosa: domekan. Abixaran Torreauzo taldeak antolatzen duen zortzigarrena izango da.

**2016tik hona**

Antxintxiketa atletismo taldearen erreleboa hartzeko proposamenari baietz esan zion Abixaranek, eta, kideen artean taldetxo bat sortuta, 2016an antolatu zuten lehenengo aldiz.

Ordutik hona lasterketak izan du bilakaera, eta emaitza horrekin pozik dago Abixaran Torreauzo taldea. "Parte-hartzea eta, batez ere, emakumeen partaidetza sustatzea eta gehitzea zen gure hasierako asmoa. Abixaran taldea bera ere horrela sortu zen, emakumeak taldean kirola egitera ateratzeko helburuarekin, eta Torreauzoko krosean ere horixe gura izaten dugu".

Eta parte-hartze datuek erakutsi diete Abixaran Torreauzo taldeko kideei asmo hori ari dela betetzen. 2016an, adibidez, lasterketan parte hartu zuten korrikalarien %27 ziren emakumeak; 2017an jaitsi egin zen pixka bat eta partaidetza bera igo; 2018an ia %31; 2019an %30; eta joan den urtean hirutik bat zen emakumea.

**Oñatiarrak ere gero eta gehiago**

Partaidetza kopuru handiena ere joan den urtean lortu zuten: 243 lasterkari. Haietatik 81 ziren emakumeak; 52, oñatiarrak. Izan ere, herritarren korrikalari kopurua ere hazten ari da; 151 izan ziren joan den urteko lasterketan parte hartu zutenak. "Gonbidapen berezia egiten diegu emakumeei taldeetan parte hartzeko. Baita muga fisikoak dituztenei ere; behintzat, oñatiarrei. Aurten ere aterako dira. *Handbike*-ean bi, Iñaki Igartua eta Joseba Azkarate, taldekide duten Alfonso Lopez atletismoko aulki egokituan eta Josu Egaña hanka bakarrekin patin gainean".

**MIRUERREKARA HELDU AURRETIK DAGOEN IGOERAN ESKAINIKO DUTE URA AURTEN ERE, BUELTAN**

**Herriko zerbitzuekin batera**

Buru-belarri ari dira lanean Abixaran Torreauzo taldeko kideak domekan egingo den lasterketa antolatzen. Eurez gain, Abixaran taldeko kide gehiago izango dira domekan, eta beste hainbat herritar. "Eta, noski, herriko komertzio eta zerbitzu asko ere bai. Eurek emandako opariak zozkatuko ditugu; erdiak gizonen artean eta beste erdiak emakumeen artean. Horrek ere egiten du berezi kros hau. Eta guztiei eskerrak eman gura dizkiegu lerro hauen bitartez; bai euren produktuak eman dizkigutenei, baita domekan laguntzen ibiliko diren herritarrei ere. Eskerri asko denoi".



Festa-gunea egongo den zelaia, Udana mendatearen barrenean. O.E.G.

## Festa eta lo-guneak hartuta Tourra bertatik bertara ikusteko

Udana azpian, Aldabeko bidegurutzean egongo da festa-gunea; eta Aiastui parean lo egiteko kanpalekua

**O.E.G.** OÑATI

Uztailaren 2an pasako da Frantziako txirrindularitza lasterketa Oñatitik, eta Mikel Lizarraldek eta konpainiak Tourra herrian ikusteko gonbidapena egin dute: festa antolatu dute. Dagoeneko lotuta dituzte festa-gunea eta kanpalekua muntatzeko eremuak: Udana mendatearen hasieran, Aldabeko bidegurutzean, dagoen zelaian jarriko dituzte sukaldea, taberna eta karpak; Aiastui baserri aurreko zelaian lo egiteko kanpalekua egokituko dute eta Aldabe baserri ondoko beste eremu batean autokarabana eta furgonetendako tokia prestatuko dute.

Bezperan, uztailaren 1ean, herriko plazatik Olabarrietako festa-gunera 18:00etan egingo den bizikleta martxarekin hasiko da festa. Behin gunera helduta, trikitilariak eta bertsolariak egongo dira eta afaria antolatzen hasiko dira. Domekan, gosaria, hamarretakoa eta bazkaria egingo dituzte. Festara joan gura duenak izena eman behar du Lizarralde Kirolak dendan, edo 943 78 29 86 telefono-zenbakira deituta. Prezioa: 70 euro; hamazazpitik beherakoek, 30 euro.

### Hiruko saskibaloi txapelketa egingo dute bihar Olakuan

Hiruko saskibaloi txapelketa egingo dute bihar Olakuako kirol kantxan. 16:30etik 21:00etara izango da eta gazteek zein helduek har dezakete parte, kategoria bakarra izango du, eta antolatzaileek dei berezia egin nahi diete neskei, jokatzera anima daitezen. Izen ematea doakoa da eta ez da saririk izango. Saskibaloiarekin gozatzeko aukera eskaini gura dute antolatzaileek. Gehienez, hamasei talde izango dira eta bi taldetan banatuko dira. Partida guztiak zazpi puntura jokatuko dira eta denbora-muga bat ezarriko da. Finala hamaika puntura jokatuko da. Izen ematea: *olakua3x3@gmail.com* edo Instagram.

## OHARRAK

### Pilota eguna

Aloña Mendik antolatuta, maila bakoitzeko finalak, *barruka* popularra, sari banaketa eta pilotari eta gurasoendako luntxa. Zapatuan, 16:00etan, plazako frontoian.

### Erakusketa

Txirrindularitzaren gaineko filatelia erakusketa antolatu du Zeka elkarteak. Ekainaren 26tik uztailaren 2ra, 18:00etatik 20:00etara, kultura etxean.

### Fitnessa uztailean

Fitness saioak egongo dira uztailean Zubikoan. Izena kiroldegiko harreran eman daiteke; azken eguna: hilak 23.

# SAN JUAN JAIAK GOIENAN



## MAKALAREN IGOERA

**GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN**
BEZPERAN, EKAINAREN 23AN, EGUBAKOITZA, 17:45EAN
**ZUZENEKO EMANALDIA ARRASATEKO PLAZATIK**

ZUZENEKOA



## SAN JUAN GAUA

**GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN**
BEZPERAN, EKAINAREN 23AN, EGUBAKOITZA, 22:15EAN
**ETB-REKIN ELKARLANEAN, ZUZENEKO EMANALDIA ARRASATEKO PLAZATIK**

ZUZENEKOA



## SAN JUAN EGUNEKO ENTZIERROA

ZUZENEKOA

**GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN**
EKAINAREN 24AN, ZAPATUA, 08:45EAN
**ZUZENEAN ENTZIERROA ARRASATEKO KALEETAN ZEHAR ETA ONDOREN BIGANTXAK ZEZEN-PLAZATIK**



## 'HEMEN DEBAGOIENA' JAIETAN

**ARRASATEKO SANJUANAK**
EKAINAREN 26AN, ASTELEHENA, 18:00/20:00 ETA 22:00
**SANJUANEK ASTEBURUAN EMANDAKOA ETA JAIEN AZKEN EGUNEKO KONTAKIZUNA**



## 'JAIAK' SAIO BEREZIA

**ARRASATEKO SANJUANAK**
EKAINAREN 27AN, MARTITZENA, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
**AITOR AGIRIANOK, OIHAN LOITIK ETA ANDREA GONZALEZEK AURKEZTUTAKO SAIOA**

DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.

# Profesionaletan debuta egin du Maialen Gallardok

**BORROKA ARTEAK** Arrasatekoak Espainiako Kickboxing Txapelketan egin du profesional moduan debuta. Zapatuan izan zuen borrokaldia, Badalonan, eta puntuetara galdu zuen, Sheila Gutierrezen kontra: "Ordutegi aldaketak ez zidan batere mesede egin"

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Maialen Gallardok (Arrasate, 1998) zazpi borrokaldi behar izan ditu profesional mailara jauzi egiteko, eta zazpigarren hau borrokaldi onena izan ez badu ere, Arrasatekoak GOIENAri aitortu dio Badalonatik gauza asko ikasita itzuli dela. "Nahiz eta galdu, halakoetan beti ikasten dira gauzak. Garbi neukan Sheila Gutierrez etxean jokatzen zebilela, bere zaleen aurrean, eta hura mendean hartzeko K.O bat behar nuela. Eta ez nuen halakorik lortu, borrokaldi parekatua izan zen eta epaileek puntuatara erabaki zuten garaipena hari ematea".

### Azken ordukoen eragina

*Fight for Glory* izeneko jaialdiak 1.500 lagun inguru batu zituen zapatuan Llefiako kiroldegiko harmailetan. Jaialdia 15:00etan hasi zuten, eta arratsaldetik goizaldera bitartean hainbat Europako Txapelketa, Nazioarteko Mediterraneoko Txapelketa eta Espainiako Txapelketa jokatu zituzten. Eta titulu horiekin batera, beste hamar borrokaldi ere egon ziren.

Horrenbeste borrokaldiren artean, egunean zehar ordutegiak aldatu zituzten, eta horrek bete betean eragin zuen Arrasatekoak profesional moduan egin zuen debutean. Hasiera batean Gallardo eta Gutierrez 22:00etan igo behar ziren ringera, baina esan moduan, ordutegiekin azken orduko aldaketak egon ziren. "Beste borrokalari batzuek nazioarteko txapelketak jokatu behar zituzten, eta horiek ofizialak izan zitezen derrigor jokatu behar zituzten gauerdia baino lehen, bestela nazioarteko araudiak ez zituen kontutan hartuko. Hori horrela, gure borrokaldia goizaldeko 01:00etara pasa zuten, eta egia esan, ni ordu horretan ohera joateko moduan nengoen", dio arrasatearrak umorea galdu barik. "Kontua da borrokaldira begira hartu beharreko elikadura-osagarriak, kafeina... hartu nituela pentsatuz 22:00etan borrokatuko ginela, eta pentsa, hiru ordu geroago izan zen borrokaldia... Hasi ginenerako jandako horiek guztiak ez zidaten ezertarako balio izan, eta nekea sumatzen hasita nengoen. Horregatik diot halakoetatik ere asko ikasten dela".

**ESPAINIAKO TXAPELKETA BOST ALDIZ IRABAZITAKO SHEILA GUTIERREZ IZAN ZUEN AURREAN**

### Esperientzia handiko kontrarioa

Gallardok ondo zekien aurrean izan behar zuen borrokalaria ez zela nolanahikoa, Sheila Gutierrez bost aldiz izan da Espainiako txapeldun, eta Munduko Txapelduna Low Contact modalitedean: "Nirekin alderatuta garaiera handiko borrokalaria da Sheila, eta hanka oso indartsuak ditu, kontuz ibili behar da haren ostikoekin. Sheilak 70 borrokaldi egin ditu eta igarri egin zen esperientzia hori. Borroka nire aldera ekarri nahi nuenean, ukabilkadetara, heldu egiten ninduen eta epaileak eten egiten zuen borrokaldia. Etengabe ibili zen horrela, bere aldera eraman zuen borroka, eta ezinean ibili nintzen ni, nire indarguneak erakutsi ezinda".

### Hemendik aurrerakoak

Profesional moduan lehenengo borrokaldia galdu izanak ez du batere eragin Arrasatekoaren asmoetan: "Dagoeneko profesional mailara salto egin dut. Horrek esan nahi du seriotasun handiagoarekin hartu behar dudala hau guztia. Borrokaldiak gogorragoak izango dira, eta errekuperatzeko denbora gehiago beharko dut. Eta horretaz jabetu nahiz jada [Barreak]. Domekan esnatu nintzenean... Ufala, gorputz osoa neukan minduta. Profesionalen borrokaldietan hatz-koskorretan jartzen diren babesak gogorragoak dira, eta noski, ukabilkadek min handiagoa egiten dute. Eta horrekin batera aurpegian ez dugu babesik eramaten.


Gallardo, borrokaldi batean. M.G.

# Arriolabengoarendako izan da Euskalduna Txapelketa

**ZIKLISMOA** "Defentsa lana egin behar izan dut, baina merezi izan du", aitortu dio eskoriatzarrak GOIENAri

**X.U.** ARRASATE

Euskalduna Txapelketa osatzen duten hamazazpi lasterketetan neurria eman eta gero lortu du Julen Arriolabengoak maillot urdina irabaztea. Azkeneko lasterketa zapatuan izan zuten, Tolosan, eta Arriolabengoak astelehenenekoeko *Harmailatik* saioan aitortu zuen lehenengo kilometroetan egurra egon zela ihesaldia egiteko, baina hura sortu zenean lasai hartu ahal izan zuela arnasa: "Normalean baino gehiago kosta zen ihesaldi ona egitea; Iker Mintegik egin behar zuen hori egin zuen, niri eraso egiten saiatu –zortzi puntuko aldea zegoen bien artean–, baina ihesaldia sortu zenean ikusi zuen aukera barik geratu zela, eta lasterketa amaiera lasai egin ahal izan genuen".

Eskoriatzakoak aitortu du defentsa lan hori egitea baino nahiago izaten duela lasterketak irabazteko lehiatu, baina, kalkulagailua eskuan, buruaz jokatzeko asteak izan direla hauek. "Maillot hau lortzeko borrokatzea ez zen urte hasierako asmoa, baina merezi izan du; pozik geratu naiz lortutakoaz".


Arriolabengoa podiumean. GOIENA

## MENDI LASTERKETAK Ainara Urrutia podiumera igo da Madeiran

Europako txapelketara begira egindako lanak emandako sasoi puntuarekin gozatzen dabil Ainara Urrutia, joan den zapatuan Madeiran (Portugal) jokatutako skyrace lasterketan aretxabaletarra hirugarren sailkatu zen eta. 45 kilometroko lasterketan Emma Cook-Clarke izan zen onena, eta Oihana Azkorbebeitia sailkatu zen bigarren.


Urrutia, eskuman.

## MENDI LASTERKETAK Ehun Miliak lasterketa, uztailaren 7tik 9ra

Gertu dute aurten ere Debagoieneko lurretatik pasako den –Antzuolatik eta Bergaratik– Ehun Miliak lasterketa. Antolatzaileek atzo, eguena, egin zuten prentsaurrekoan azaldu zuten uztailaren 7tik 9ra bitartean ultra distantziako lasterketarekin batera Goierriko Bi Handiak eta Marimurumendi ere antolatuko dituztela.

## PILOTA Jaialdia egingo dute Elgetan uztailaren 2an

Elgetako jaien bueltan, pilota jaialdia antolatu du Aspe enpresak. Uztailaren 2an izango da (17:00), eta, atarikoan, Larrazabalek eta Imazek Alberdi II.aren eta Mariezkurrena II.aren kontra jokatuko dute. Jarraian, sanferminetako lau eta erdiko txapelketa barruan jokatuko dute Baiko enpresako adarreko kanporaketa partidua.

# "Albarritzako aldapa izango da zailena"

ATLETISMOA

**IÑAKI IGARTUA LOITI** 'HANDBIKE' LASTERKARIA

Gaixotasun batek utzi zuen Iñaki Igartua oñatiarra aulki gurpildunean, 2021ean

**Arantzazu Ezkibel Galdos** OÑATI

Torreauzoko lasterketak dituen 7,5 kilometroak egiteko prest dago Iñaki Igartua oñatiarra. Haren lehen lasterketa izango da *handbike* modalitatean.

**Domekan izango da lasterketa; nolakoak izan dira azkeneko entrenamendu asteak?**

Oso ondo sentitu naiz. Hasita nengoen entrenatzen, eta martitzenean lasterketako ibilbide osoa egin nuen. Gustura geratu nintzen; gorputzak ondo erantzun dit.

**Momentuaz gozatzea da helburua?**

Bai; nik, behintzat, derrigorrezko ikusten dut hori. Egiten dudanarekin disfrutatuko ez banu, ez nuke egingo.

**Zergatik animatu zara Antxintxika Triatloi Egokituko taldean sartu eta *handbike*-an lehiatzera?**

Buruan nuen zerbait zen. *Handbike* modalitatea probatu gura nuen, uste nuelako gustatuko zitzaidala. Aukera izan dut probatzeko eta aurrera egin dut. Bere garaian kirola egindakoa naiz, bizikletan, baina lehenengo aldia izango da Torreauzoko lasterketa egingo dudana.

**Nolakoa izan da *hanbike*-ra egokitzea? Zer izan da zailena?**

Hasiera batean, zailena egin zaidana izan da besoaren mugimenduarekin batera arnasa hartzea. Ohituta ez nengoen mugimendua da... Arrabolean aritu naiz eta oso samurra da; baina *handbike*-an probatzeak errespetua ematen zidan. Gainera, berriro ere errepidera irtetea... Horrek ere gurpilak ditu, baina ez du bizikletaren antzik.

**Torreauzotik Olaterako ibilbidean zein tramu da zailena?**

Zailen ikusten dudan zatia Albarritzako aldapa da. Abiaduran sartu behar da; han blokeatuz gero, abiatzea kosta egingo zait. Bestalde, bihurgune guztiak fin hartu beharko dira.

**Ikusle asko erakartzen dituen lasterketa da. Karreraren inguruan sortuko den ikusminak urduritu egiten zaitu?**

Ez dut urduritasunik; neure buruarekin gozatzera noa, eta helmugara iristea izango da nire helburua. Jendeak esan dit ikustera joango dela... Domekan bertan ikusiko dugu urduritzen naizen edo ez.

**Antxintxika taldeak ematen duen laguntza ezinbestekoa izango da lehiatu ahal izateko.**

Gure egoeran gaudenentzat zortea da horrelako elkarte bat izatea. Kirol materiala oso garestia da, milaka euro balio duena; Antxintxika elkarteak uzten digu probatzen, ikusteko ea benetan gura dugun honetan jarraitu. Aitor Rementeriak pila bat lagundu dit; niretzat egokia den posizioa jarri, nola funtzionatzen duen esplikatu... Aukera eman dit kirola egin eta parte hartzeko.

**Torreauzokoaren ondoren, egongo dira gehiago?**

Egunetik egunera joan nahi dut, gozatu eta saiatzen. Sufritu ere egiten dut, baina baita sufritzearekin gozatu ere. Hasiera da, eta espero dut amaiera ez izatea.



Iñaki Igartua oñatiarra, aulki gurpildunean. 'KONTZEJUPETIK'

## Izen-ematea, online

Domekan, ekainaren 25ean, izango da Torreauzoko lasterketa Oñatin, 10:30ean. Aurtengo berrikuntza da izen-emateak online bakarrik egin daitezkeela, *www.herrikrosa.eus* atarian. Bi kuota egongo dira: gaur, barikua, 22:00ak arte 10 euro kostako da izena ematea; eta ekainaren 25eko 09:00ak arte, 18 euro. Korrikalariak taldean korrika egitera animatu nahi dituzte antolatzaileek, eta, horretarako, taldekako opariak egongo dira. Izena ematerakoan taldeka izena eman besterik ez da egin behar –gutxienez, hiru korrikalari–. Taldekideek ez dute lasterketa batera egin beharrik izango; amaieran, taldeentzat opari berezia egongo da. Gainera, iragarri dute sari banaketa ekitaldiaren ondoren Torreauzoko krosa berezi egiten duen oparien zozketa egongo dela.



Unai Arrieta, Barakaldoko kamisetarekin. GOIENA

# Arrietak eta Ugartek ez dute orain arteko taldeetan jarraituko

FUTBOLA Bergararrak Barakaldo utziko du eta oñatiarrak ez du akordiorik lortu Sestao River taldearekin

**A.E.G.** ARRASATE

Bukatu da 2022-2023ko futbol denboraldia; eta, horrekin batera, agurrak eta talde aldaketak etorriko dira. Orain arte jokatutako taldearekin jarraituko ez dutela esan duten debagoiendarrak dira, besteak beste, Unai Arrieta bergararra eta Andoni Ugarte oñatiarra.

Bergararra iazko udan fitxatu zuen Barakaldok. Urtebete egin du Bizkaiko taldean Arrietak, eta, hasierako hamaikakoan ohikoa ez izan arren, jokalari garrantzitsua izan da hainbat partidutan, eta sartutako golek Barakaldo mailaz igotzea ahalbideratu dute. Sei gol sartu ditu bergararrak Barakaldorekin.

**Andoni Ugarte**

Andoni Ugartek ez du Sestao River taldean jarraituko datorren denboraldian. Atzelari oñatiarrak Bizkaiko taldearekin Federazio Lehen Mailara igotzea lortu zuen maiatzean; baina, etorkizunera begira, ez du klub berde-beltzarekin akordiorik lortu. Taldean minutu gehien jokatutako jokalarietako bat izan da oñatiarra; Aitor Calle entrenatzailearentzat oso jokalari garrantzitsua.

# Ane Herrero entrenatzailea saritu du Eskubaloi Federazioak

ESKUBALOIA Emakumezko entrenatzaile onenaren saria eman zioten arrasatearrari Federazioaren galan

**A.E.G.** ARRASATE

Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak antolatuta, 2022-2023ko denboraldiko gala egin zuten ekainaren 16an. Hainbat sari eta oroigarri banatu zituzten ekitaldian, eta emakumezko entrenatzaile onenaren saria Ane Herrero arrasatearrak jaso zuen. Ana Mari Kreye izena jarri diote lehen aldiz banatu duten sariari; 60ko eta 80ko hamarkadetan aitzindaria izan zen Kreye eskubaloia nesken artean sustatzen Gipuzkoan. Horregatik jarri diote haren izena.

Arrasateko Eskubaloi klubeko senior mutilen eta gazteen taldeko nesken entrenatzailea da Herrero. Arrasateko elkartetik adierazi dute Gipuzkoako klubek emandako botoei esker izan dela saritua. Modu berean, euren entrenatzailea zoriondu dute: "Zuzendaritza taldeak, Aneren senior eta gazte mailetako jokalariek eta kluba osatzen dugun partaide guztien artean zorionak eman nahi dizkiogu, egiten duen esfortzua eta duen jakintza besteekin partekatzeagatik. Mila esker, Ane!".

# "Malkoren bat aterako zait domekan, seguru"

**PERU ALTUBE KAZALIS** HUNTZA TALDEKO BATERIA-JOLEA

Huntza seikotea agur biran murgilduta ari da; domekan Arrasateko txosnagunean izango dira, 22:00etan. La Furia eta J Martina formazioekin partekatuko dute oholtza

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**
ARRASATE

Hamar urteko ibilbidea eginda, 2024ko otsailean azken emanaldia egingo du Huntza seikoteak Bilbon; taldeko bateria-jole arrasatearra "irrikaz" dago domekan Debagoieneko zaleen aurrean jotzeko.

**Ze sentsazio dituzu?**

Azken bira egiten ari garela-eta, nostalgia apur bat, egia esan. Une oso biziak eta politak izan ziren, dena berria zen guretzako, eta argi eta poztasun pila batekin gogoratzen ditut hastapenak.

**Otsailean iragarri zenuten urtebeteko agur bira abiatuko zenutela; nekea da agur esateko arrazoia?**

Oso gazte hasi ginen taldearekin, urte asko izan dira zurrunbilo zoragarri baina nekagarri honetan. Bizitza aldatu egiten da, taldekideak ere aldatu egin gara, taldeaz gain bakoitzak bere proiektu pertsonalak ditu eta batzuetan ez da dena bateragarria; hortaz, erabaki dugu ahalik eta ondoen uztea. Gustura gaude gu, lanak ondo egin ditugun sentsazioarekin, eta horregatik planteatu dugu urtebeteko bira, zaleak ganoraz agurtzeko.

**Azken kontzertuetako bat izango da Arrasatekoa. Bertakoa izanik, bereziki bihotza uzkurtuko dizun kontzertua izango da, ezta?**

Duda barik; nire herrian agur esateko modu paregabea da, eta, gainera, herriari horrenbeste ematen dion txosnagunean. Malkoren bat aterako zait, seguru.

**Ibilbidean zehar *hit* pila bat sortu dituzue; *Aldapan gora,* adibidez. Non dago arrakastaren gakoa?**

Ez dakit, egia esan; abesti bakoitzak bere gakoa duela esango nuke, eta batzuetan asmatzen da eta beste batzuetan ez. Kantu gehienak Josunek abiatutakoak dira. Abesti horretan kontatzen den moduan, Biologia ikasketak egiten ari ziren Josunek eta Uxuek unibertsitateko irteera bat egin zuten, eta aldapan gora eta behera ibili ondoren sortu zitzaien ideia, eta lokalean eman genion guztion artean forma gero. Zortea izan dugu; unean uneko salbuespenak salbuespen, orokorrean, oso ondo jakin dugu elkarrekin, giro sanoan, hau guztia eramaten. Oso aberasgarria izan da pertsonalki eta talde moduan.


Peru Altube bateria-jolea. GAIZKA PEÑAFIEL

**Zein da gustukoen duzun kantua?**

Erritmo azkarreko kantuak gustatzen zaizkit, bereziki; ez zait bakarra aukeratzea gustatzen. Esango nuke disko guztietan daudela, bereziki, bihotza ukitzen eta eragiten nauten pare bat.

**Ehunka kontzertu egin dituzue Euskal Herrian eta nazioartean; esaterako, 2017an Japonian.**

Oso eskertuta gaude, mundua ezagutzeko aukera asko izan ditugulako. Kontzertu gogoangarri asko gordetzen ditugu gure memorian. Espero bakoa izan zen Japoniara joatea eta baita Latinoamerikara zein Europako herrialde askotara ere. Ikaragarria da bizitako guztia.

**Zale asko dituzue kontzertutik kontzertura jarraitzen. Eskertzekoa?**

Hori da, gauza politenetako bat, nire ustez. Oso zainduta sentitzen gara. Bihotzez, eskerrik asko!

**Otsailaren 3an Bilbao Arena Miribillan egingo duzue azkeneko emanaldia. Eta gero zer asmo?**

Pertsonalki, ez dut asmo zehatzik, oraingoz. Iruñeko Goi Mailako Kontserbatorioan ari naiz bateria-jazz ikasketak egiten. Oso gustura ari naiz, gauza pila bat ikasten. Alde horretatik, Huntzak asko lagundu dit zer dudan gustuko jakiteko.

**Arrasateko The Potes taldean ere izan zara. Halako rock proiekturik izango duzu etorkizunean?**

Izan daiteke; rock esparrua da nire esparru naturala eta beti izango dut punka eta rockaren grina hori. The Potes nire bizitzako etapa garrantzitsua izan da, eta, akaso, eurak barik ez nintzatekeen Huntza moduko proiektu batera animatuko. Beste proiektu batzuk izan nituen aurretik; lagunartean sortu genuen Garraxi, adibidez.

**Talde askok egin dituzte zuen kantuen bertsioak. Pozik?**

Zalantza barik; gure herriaren eta kulturaren identitatean aztarna utzi dugula adierazten du horrek, modu baten, eta ikaragarria da hori, eta eskertzekoak dira gure kantuen bertsio guztiak! Beste batzuek erakutsi duten moduan, guk ere ikusi dugu gure hizkuntza, euskara, ez dela muga inora heltzeko.

**Musikari gazte askorentzako erreferente zarete. Gomendiorik?**

Bidean ahalik eta gehien gozatzea, duda barik, helburu zehatzetan tematu barik; etorri behar duena etorriko da eta.

## Kantu arrakastatsu asko

Bilboko Alde Zaharrean, ikasle mugimenduaren baitan, ezagutu zuten elkar Josune Arakistainek, Uxue Amonarrizek, Aitor Huizik, Aitzol Eskisabelek, Peru Altubek eta Inhar Eskisabelek. 2014an abiatu zuten Huntza taldea, eta, harrezkero, hamar urteko ibilbide "arrakastatsua" egin dute, lau disko argitaratuta eta Euskal Herrian eta nazioartean ehunka kontzertu eskainita.


Huntza seikotea, lepo betetako Durangoko Landakogunean. GAIZKA PEÑAFIEL

**"ESKERTZEKOAK DIRA MUSIKARI GAZTEEK EGITEN DITUZTEN GURE KANTUEN BERTSIO GUZTIAK"**

LETAGIN, EKIN ETA EKIN
ERREPORTAJE BEREZIA
EKAINAREN 24AN, ZAPATUA, 16:00ETAN ETA 22:00ETAN
EKAINAREN 25EAN, DOMEKA, 12:00ETAN, 18:00ETAN ETA 23:00ETAN
OÑATIKO LETAGIN TALDEA, BARRUTIK, EKINEZ JAIALDIAN
DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!
goiena
Zu hemen zaude.




Bea Asurmendi, erdian, Bea Quintet taldearekin. BEA ASURMENDI

# Ikasitakoak erakusteko ilusioz Bea Asurmendi

Bea Asurmendi musikari aramaioarra taldearekin etorriko da Euskal Herrira, lehen aldiz. Aramaioko Azkoaga auzoan egingo dute kontzertua, bihar, 19:30ean. Domekan, Donostiako Miramar Jauregian joko dute, 18:00etan, Musika Parkean jaialdian

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO

Orain dela urte batzuk, maleta hartu eta Londresera bizi izatera joan zen Bea Asurmendi musikari aramaioarra; profesionalki hazi eta hezi, horiek ziren ametsak. Bada, urteekin, profesionalki bakarrik ez, pertsonalki ere hazi da. Londresko Guildhall School eskolan ikasitakoak etxekoen aurrean erakutsiko ditu bihar, Azkoagako San Juan jaietan.

Taula gainera igoko dira boskote formatuan: Bea Asurmendi, ahotsa; Giovanni Cresseri, baxua; Gianluca Corona, gitarra; Milena Granci, pianoa; eta Filippo Galli, bateria. *"World music*-a, jazza eta folka fusionatzen dituen euskarazko, gaztelaniazko eta ingelesezko abesti propioen bilduma aurkeztuko dugu", azaldu du Asurmendik.

### Euskal Herrian

Bea Asurmendi Quintet formatuan lehen aldiz joko dute Euskal Herrian. Azkoaga auzoko jaietan izango da lehen emanaldia, zapatuan, 19:30ean; eta, horrez gain, Donostiako Musika Parkean jaialdian ere izango dira, Miramar jauregian, domekan, 18:00etan. "Euskal Herriarekin lehenengo hartu-emana izango dela esan genezake; negurako bira luzeagoa prestatzen ari gara, diskoaren aurkezpen bira ofiziala izango dena", dio Asurmendik.

Ilusioz gainezka datorrela dio, eta biharko emanaldia hunkigarria izango dela nabarmendu du. "Duda barik, oso berezia izango da; etxean nire musika jotzen dudan lehen aldia izango da". Etxean eta etxekoen aurrean; musikarekin lehen kontaktua izan zuen jendearen aurrean, eurentzat eta eurak gogoan dituela. Hunkigarria izango da, bai; eta baliteke taula gainean sorpresaren bat egotea.

**DISKOA GRABATU BERRI DUTE; ORAIN, ARGITARATU ARTEKO PROZESUAN LANEAN DABILTZA**

### Diskoa eta master amaiera

Diskoa grabatu berri dute; orain, diskoak argia ikusi arteko prozesuan lanean dabiltzala dio: "Hasierako ideia diskoa udan kaleratzea zen, baina konturatu nintzen horretarako presaka ibili behar genuela; beraz, argitaratze data atzeratzea nahiago izan dut, nire lehentasuna diskoaren sormen prozesuaz gozatzea delako. Behar eta merezi duen denbora eta mimoa eman nahi diot, abesti hauek oso bereziak dira-eta niretzat".

Ikasketak ere amaitzear ditu: martitzenean dauka master amaierako errezitaldia: "Ez dut gezurrik esango, oso gogorra eta nekagarria izan da batzuetan. Baina, balantzan jarrita, duda barik, merezi izan du. Erronka aberasgarria izan da".

Goienakideen txokoa
EKAINEKO SARIAK
Liburu-irakurgailua
Kobo Nia e-booka
Parte hartzeko sariaren izena: ebook
EROSKI ARRASATE
Sarrerak
ARRIKRUTZ
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz
Otarrea
www.harremandenda.org
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea
PARTE HARTZEKO:
Posta elektronikoz: Whatsapp: GOIENAKIDE
"goiena app"-a / zozketa atalean.
Irabazi bi lagunendako otordua
SIRIMIRI JATETXEARI ESKER
Begiratu Puntua aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: ekainak 27
943 25 05 05 goienakide@goiena.eus 'Goiena app'-a / zozketa atalean.
GOIENAKIDE Jatetxea
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...
BAZKIDETZA KUOTA: 65€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus
DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!
goiena kide
Okm: batzen gaituen distantzia

OROIGARRIA

## Araitz Garai Mondragon



*Zuk erakutsi diguzu bizitzak merezi duela.*
*Bizitzen jakin duzu azken unera arte.*
*Gugan zaude. Lagunen oroimenean bizi dena ez da inoiz hiltzen.*

Mondragon familia.
Aretxabaletan, 2023ko ekainaren 23an.

OROIGARRIA

## Araitz Garai Mondragon



2023ko ekainaren 16an hil zen.

*Patuak batzen omen du jendea,*
*eta odolak egin familia.*
*Gu bizitzak batu gintuen,*
*eta familia bihurtu, bizia.*
*Horren maite dugun Urkulu*
*lehortu zaigu ia.*

*Zure gorputzak esan du,*
*honaino iritsi gara, maitia.*
*Baina euriak Urkulu bete bezala,*
*gure malkoek*
*bizi-bizirik mantenduko dute*
*zure irribarria.*

Mikel eta Amaia, Gentzane eta Aitor, Kepa eta Miriam, Maren, Iradi.
Arrasaten, 2023ko ekainaren 23an.

OROIGARRIA

## Araitz Garai Mondragon



*Azkarra izen zara beti eta bizitza hontako lanak azkar in ditxuzula emuten dau.*
*Baine ze azkar juen zaren!*
*Gugan geratzen da zure bizitzeko indderra ta umore berezi hori.*
*Zure hazixek ereinda geratu die ta ziur gaz gure arimak berriz elkartuko diela.*
*Utzi dozun maitxasun eta bakiek ondion gehixau elkartu gaitxu.*
*Benetako plazera izan da.*
*Eskerrik asko.*

Zure Aramaixoko familixie.
Aramaion, 2023ko ekainaren 23an.

OROIGARRIA

## Rosa Mari Lazcano Iñarra



2023ko ekainaren 21ean hil zen, 77 urte zituela.

*Ama, zaila izango da utzi duzun hutsunea betetzea,*
*Baina zutaz oroitzen garenean,*
*irribarre bat irteten da gure aurpegietan.*
*Bihotzean eramango zaitugu.*

Zure seme alabak: Joana, Iban, Alain, Mireia eta Asier.
Bergaran, 2023ko ekainaren 23an.

ESKER ONA



## Julian Llodio Gamboa



2023ko ekainaren 19an hil zen, 79 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan
babesa eta gertutasuna
adierazi, hiletara etorri eta
gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez
besarkada handi bana,
familiaren izenean.

*Txapela buruen,*
*lanien ortuen,*
*goxo kantuan,*
*erakutsitakua goguan.*
*Beti gurekin eukiko zaittugu,*
*aittaitta!*
*Eskerrik asko!*

Etxekuen partez.
Arrasaten- Aretxabaletan, 2023ko ekainaren 23an.

ESKER ONA

## Gloria Lasanta Uribarren



2023ko ekainaren 16an hil zen, 71 urte zituela.

Mila esker egun hauetan gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko ekainaren 23an.

# GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE *EGUNEZ***

Egubakoitza, 23 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Zapatua, 24 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
Domeka, 25 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Astelehena, 26 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Martitzena, 27 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Eguaztena, 28 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30
Eguena, 29 AZKOAGA: Ferrerias 1 / 943 79 15 15

**BERGARA *EGUNEZ***

Egubakoitza, 23 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Zapatua, 24 URRITIKOETXEA: Oxirondo 4 / 943 76 11 74
Domeka, 25 URRITIKOETXEA: Oxirondo 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 26 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Martitzena, 27 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
Eguaztena, 28 ESTELLA: Matxiategi 3 / 943 76 19 63
Eguena, 29 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

**OÑATI *EGUNEZ BAKARRIK***

Egubakoitza, 23 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapatua, 24 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 25 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 26 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Martitzena, 27 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztena, 28 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguena, 29 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

**ARRASATE *GAUEZ EGUNERO***
***(22:00etatik 09:00etara)***

2023 osoan: JUNCAY: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99

**BERGARA *GAUEZ EGUNERO***
***(22:00etatik 09:00etara)***

2023 osoan: MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

**Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:**
*COF Gipuzkoa* aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**
edo *eskelak@goiena.eus*

▶ Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 200 € / Goiena Klubeko bazkideendako 175 €
▶ Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 175 € / Goiena Klubeko bazkideendako 155 €

**Goiena: irakurriena Debagoienean.**






**Bihar ezkonduko dira**
Jon *Txiki* Muñoz eta Rebeka Payo bergarararrak ekainaren 24an ezkonduko dira. "Zorionak, bikote! Primeran pasa zuen eguna eta oso zoriontsu izan. Lagunen partetik".



**Omenaldia**
Oñatiko Erretiratuen Egunean, Maria Pilar Biain eta Andres Agiriano senar-emazteak omendu zituzten. Zapia eta txapela jaso zituzten, senitartekoek babestuta.

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



**MAKALAREN IGOERA, ZUZENEAN**
Sanjuanak hasteko, Arrasateko gazteek makala jasoko dute, eta Herriko Plazatik zuzenean egingo du saioa Goiena telebistak.
***'Bereziak'** Egubakoitza, 17:45*



**SAN JUAN GAUA**
San Juan sua piztu, errementari dantza... ETBrekin elkarlanean, zuzeneko emanaldia Arrasateko Herriko Plazatik.
***'Bereziak'** Egubakoitza, 22:15*



**ENTZIERROA, ZUZENEAN**
Sanjuanetako lehen entzierroa zuzenean emango dute Arrasateko kaleetan, eta, ostean, bigantxak, zezen-plazatik.
***'Bereziak'** Zapatua, 08:45*



**'LETAGIN, EKIN ETA EKIN' ERREPORTAJEA**
Taldea barrutik eta gertutik ezagutzeko aukera. Ekinez jaialdian egindako kontzertuaren harira, oñatiarrekin bizi izandakoak jasotzen dituen lana.
*Zapatua, 16:00 eta 22:00; eta domeka, 12:00, 18:00 eta 23:00*



**'FRANTZIAKO TOURRA, HEMENGOEN BEGIETATIK'**
Tourra egin duten Aranzabalen, Alonsoren, Odriozolaren, Irizarren eta Velascoren berbak jasotzen dituen lana.
***'Berezia'** Astelehena, 21:15*

GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
***goiena.eus/telebista***
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

# AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 23

**LEINTZ GATZAGA San Juan gaua**
11:00etan, ira prestatzea; 17:00etan, Gurelekin *Altxorraren bila;* 18:00etan, bola txapelketa herrikoia; 21:00etan, pintxoak, eta, 22:30ean, sua piztu.
*San Migel plazan.*

**ELGETA Udako solstizioa**
17:30ean, DJ Xaibor; 20:00etan, ogitarteko banaketa, eta gero, sua.
*Elgetan.*

**BERGARA Emakume Migratuen Topaketa**
17:30ean, Fernanda Callejasekin elkarlana; eta, 18:30ean, elkarrizketa irekia pertsona migratuen erregularizazioari buruz.
*Ehunduren bulegoan.*

**ARETXABALETA San Juan bezpera**
18:00etan, Leizarra musika eskolakoen emanaldia; 19:15ean, buruhandiak; 20:45ean, Bide Batez taldea; 22:15ean, kalejira eta San Juan sua. Ostean, Santa Ageda neska-mutilek tantaia altxatuko dute.
*Herriko Plazan.*

**ARAMAIO San Juan jaiak**
18:00etan, *Gora txopue*; 19:00etan, umeendako jolasak; 20:30ean, parrillada; eta, 22:00etan, sua eta sorgin kalejira trikitilariekin.
*Azkoaga auzoan.*

**ESKORIATZA San Juan sua**
18:00etan, *Txorimaloaren bila;* 19:30ean, buruhandiak; 22:00etan, tantaia jasoko dute 2006an jaiotakoek; 22:30ean, San Juan sua; eta ostean, erromeria txistulariekin.
*Fernando Eskoriatza plazan.*

**BERGARA 'Alemanaren mamua' liburuaren aurkezpena**
Jon Arrizabalaga egilea egongo da ekitaldian.
*Kartzela zaharrean, 18:30ean.*

**ANTZUOLA San Juan bezpera**
Oinarin dantza taldekoek San Juan zortzikoa dantzatuko dute.
*Herriko Plazan, 20:00etan.*

**OÑATI San Juan jaiak Garagaltzan**
Gaztelondo baserriaren ondoan sua piztuko dute. Etxafuegoak eta brindisa.
*San Juan auzoan, 21:00etan.*

**BERGARA Solstizio gaua**
Zuzeneko musika, dantzak, ipuin kontaketa eta beste.
*San Martin plazan, 22:00etan.*

**OÑATI Udako solstizioa**
Oñatz dantza taldeak San Juan sua dantzatuko du Aita Madina Txistulari taldearekin.
*Olaitturrin, 22:30ean.*

## ZAPATUA 24

**ARRASATE San Juan eguna**
Egitaraua osorik *Goiena.eus*-en.
*Arrasaten.*

**ESKORIATZA Kontzejupe pilota txapelketa**
10:00etan, 16 urtez azpikoena; eta 14:30ean, nagusiena.
*Fernando Eskoriatza plazan.*

**BERGARA San Juango jaiak**
Meza, luntxa, auzoko 80 urtetik gorakoei omenaldia, lore eta ortu lehiaketak eta auzo afaria Tartufon.
*San Juan auzoan.*

**ANTZUOLA Kalebarrengo jaiak**
11:00etan, mural kooperatiboa; 12:00etan, ginkana; 18:00etan, buruhandiak; 20:00etan, arbola jasotzea; 20:30ean, bertsolaria; ostean, afaria; eta 23:00etan, Lutxurdio eta Laja trikitilariekin erromeria.
*Kalebarrenen.*

**OÑATI Peruko egoerari buruzko jardunaldiak**
Bideo batzuk, kontzertu txiki bat eta edari eta janari perutarrak.
*Gaztetxean, 12:00etan.*

**ARAMAIO San Juan jaiak**
12:30ean, meza; 13:00etan, parrillada trikitilariek lagunduta; 17:00etan, briska eta mus txapelketa, umeendako jolasak, magia...; eta, 19:30ean, Bea Asurmendiren kontzertua.
*Azkoaga auzoan.*

**OÑATI San Juan jaiak**
13:30ean, etxafuegoak; 14:00etan, bazkaria; eta ostean, dantzaldia, mus txapelketa eta haurrendako jolasak.
*Garagaltzan.*

**OÑATI Pilota Eguna**
Maila bakoitzeko finalak, sari banaketa eta luntxa, Aloña Mendiren eskutik.
*Plazako frontoian, 16:00etan.*

## DOMEKA 25

**ARRASATE San Juan jaiak**
Gaur, haur eta gaztetxoen festa. Egitaraua osorik *Goiena.eus*-en.
*Arrasaten.*

**OÑATI Torreauzoko krosa**
7,5 kilometroko ibilbidea.
*Torreauzon, 10:00etan.*

**ANTZUOLA Kalebarrengo jaiak**
10:00etan, diana txistulariekin; ostean, meza, salda eta txorizoa; 12:00etan, dantzariak; eta, 17:00etan, kale-antzerkia.
*Kalebarrenen.*

**ELGETA Elgetako historiari buruzko erakusketa**
Argazkiak, liburuxka berriak, Elgetaren historia jasotzen duen liburua... egongo dira ikusgai.
*Zeramika gelan, 11:00etan.*

**OÑATI San Juan jaiak**
12:00etan, meza; ostean, luntxa eta umeendako jolasak.
*Garagaltza auzoan.*

**BERGARA Musika Bandaren kontzertua**
Espoloian izango da. Euria egiten badu, pilotalekuan.
*Espoloian, 12:00etan.*

**ARAMAIO San Juan jaiak**
13:00etan, meza; 14:00etan, auzo-bazkaria; eta ostean, erromeria.
*Azkoaga auzoan.*

**ANTZUOLA Eskulanen erakusketa**
Ikasturtean egindako erakutsiko dituzte.
*Olaranen, 18:30ean.*

## ASTELEHENA 26

**OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Foruen plazan, 12:00etan.*

**ANTZUOLA Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*Herriko Plazan, 12:00etan.*

**BERGARA Pentsiodunen elkarretaratzea**
Pentsio duinak eskatzeko.
*San Martin plazan, 12:00etan.*

**OÑATI 'Munduko Ziklokros Txapelketa' erakusketa**
Frantziako Tourra Oñatitik pasatzen dela aprobetxatuz, ziklismoaren inguruko filatelia erakusketa antolatu du Ceca taldeak. Gaurtik domekara arte egongo da ikusgai bilduma.
*Kultura etxean, 18:00etan.*

**OÑATI Ate irekiak Ortuzabalan**
12 urte egin dituen proiektua ezagutzeko aukera izango dute herritarrek.
*Ortuzabalan, 18:00etan.*

## MARTITZENA 27

**OÑATI Bingo jokoa**
Erretiratuendako, opariekin.
*Lagun Lekun, 17:00etan.*

**ARETXABALETA 'Azken eguzkilorea' antzezlana**
Maskarekin eta umorez eta irudimenez jositako abentura, Patata Tropikala taldearen eskutik. Debalde.
*Mitarte kalean, 19:00etan.*

KRITIKA

**Extraña forma de vida** ★★☆☆☆
**Zuz.:** Pedro Almodovar. **Herr.:** Espainia (2023). **Aktoreak:** Ethan Hawke, Pedro Pascal. **Iraupena:** 31 minutu.

### Pasio erreprimitu baten istorioa

**ANTONIO ZABALA**

Duela hiru urte, Pedro Almodovar zuzendariak ingelesez filmatutako 30 minutuko film laburra zuzendu zuen. Horren oinarria Jean Cocteauren *La voz humana* lana izan zen. Orain, *Extraña forma de vida*-ren bitartez, 30 minutuko westerna zuzendu du. Filmak 1959. urtean John Sturgesek egindako *El último tren de Gun Hill* filma dakarkigu burura. Film horretan, sheriff batek bere emazte indiarra bortxatu eta hil duen gizona atxilotu behar du. Hiltzailea herriko jauntxoaren semea da. Jauntxoa eta sheriffa iraganean oso lagun minak ziren arren, elkarren kontra borrokatu beharko dute, lehenengoaren semearengatik. Sturgesek oso ondo erabiltzen zuen denbora, tentsioz eta intentsitatez beteriko filma burutzeko.

Oraingoan, Almodovarrek bi gizonen arteko adiskidetasuna pasio erreprimitu handi baten istorio bihurtzen du. Mantxako zuzendariaren filma azalean geratzen da. Denbora gutxi dauka istorio sendo bat behar duen bezala garatzeko, eta irudiek ez dute indar berezirik. Horren adibide flashbackeko eszena daukagu. Film laburrak zinema-genero zaila dira. Ez da erraza minutu gutxitan istorio bati sakontasuna ematea. Hori lortu nahi bada, zuzendariak oso argi izan behar du ideiak nola garatu. *Extraña forma de vida* film laburra arazorik gabe ikusten da, baina Almodovarren lan bat denez gero, lau samarra geratzen da.

## EGUAZTENA 28

**ESKORIATZA San Pedro bezpera**
11:00etatik aurrera askotariko ekintzak, jaietako lehen egunean. Egitaraua osorik 18. orrian.
*Eskoriatzan.*

**BERGARA Musika eskolakoen kontzertua**
Xabier Arrillagaren omenezko emanaldia egingo dute.
*Laino Skate kanpoan, 12:30ean.*

**BERGARA Eguaztenetako azoka**
Herriko baserritarren garaiko produktuak erosteko aukera.
*Oxirondon, 18:00etan.*

**BERGARA 'Master gardener' pelikula**
Jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
*Seminarixoan, 20:00etan.*

## EGUENA 29

**ESKORIATZA San Pedro eguna**
Jaietako egun handia. Egitaraua osorik 18. orrian.
*Eskoriatza.*

**ELGETA Ferixa Nagusiko jaiak**
Mozorroen jaitsierarekin hasiko dituzte jaiak. Egitaraua osorik 31. orrian.
*Elgetan.*

**BERGARA Kirol argazki lehiaketako erakusketa**
Domekara arte ikusgai.
*Aroztegin, 18:00etan.*

**OÑATI Zubillagako jaiak**
San Pedro Eguna ospatuko dute. Meza eta luntxa egingo dituzte.
*Zubillagan, 19:00etan.*

## EGUBAKOITZA 30

**ESKORIATZA San Pedro jaiak**
Egitaraua osorik 18. orrian.
*Eskoriatzan.*

**ELGETA Ferixa Nagusiko jaiak**
Umeen eta Erretiratuen Eguna. Egitaraua osorik 31. orrian.
*Elgetan.*



BEA ASURMENDI

**ARAMAIO Bea Asurmendi Quintet**
Londresko Guildhall School eskolan ikasitakoak etxekoen aurrean erakutsiko ditu musikari aramaioarrak, boskote formatuan: Bea Asurmendi, Giovanni Cresseri, Gianluca Corona, Milena Granci eta Filippo Galli.
*Bihar, zapatua, Azkoaga auzoan, 19:30ean.*

**BERGARA 'Iragana ilustratzen: Mauricio Anton eta Paleoartea' erakusketa**
Abuztuaren 2ra arte ikusgai.
*Laboratoriumen.*

**ARETXABALETA 'Catarsi feminista' erakusketa**
Gaur da azken eguna.
*Arkupen, 18:00etan.*

**OÑATI Zubillagako jaiak**
18:30ean, jaien hasiera; ostean, pilota txapelketako finala; 20:30ean, barbakoa; eta, 22:30ean, Youtn United, Korda Rota eta Beranduegi taldeen kontzertuak.
*Zubillagan.*

**BERGARA Dei taldea**
Debalde.
*Gorlako kantinan, 19:00etan.*

**OÑATI 'Gerraren oihartzunak' ikuskizuna**
Parte hartuko dute: Ganbara eta Hots abesbatzak, Miel Guridik, Xabier Regueirok eta Amaia Zipitriak.
*Plazako frontoian, 22:00etan.*

## ZAPATUA 1

**ESKORIATZA San Pedro jaiak**
Egitaraua osorik 18. orrian.
*Eskoriatzan.*

**ELGETA Ferixa Nagusixak**
Herri Eguna ospatuko dute gaur. Egitaraua osorik 31. orrian.
*Elgetan.*

**OÑATI Zubillagako jaiak**
11:00etan, meza; 12:30ean, dantzariak eta auzoko erretiratuei omenaldia; 17:0etan, mus eta toke txapelketak, eta umeendako eskulanak: 18:00etan, Sebastian erraldoiari ongi-etorria; 18:30ean, txokolate-jana eta txorimaloak; 19:30ean, Gauargirekin erromeria; eta 23:30ean, mozorro lehiaketako sari banaketa.
*Zubillagan.*

**ANTZUOLA San Martzial jaiak**
16:30ean, herri mailako plater tiroketa; 17:00etan, umeendako krosa; 21:00etan, afaria, eta ostean erromeria, suzko erruberak eta izozkia.
*Lizarragan.*

## DOMEKA 2

**ELGETA Ferixa Nagusiko jaiak**
Azoka eguna. Egitaraua osorik 31. orrian.
*Elgetan.*

**BERGARA San Martzial erromeria**
Trikitilariak, bertsolariak, aurreskua, herri kirolak, erromeria...
*San Martzialen.*

**ANTZUOLA San Martzial jaiak**
11:00ean, txistulariak; 11:30ean, San Martzialgo igoera; 14:00etan, bazkaria, eta ostean, erromeria Ansorregi eta Larrañagarekin. Iluntzean, urdaiazpikoaren zozketa.
*San Martzialen.*

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es



AZKEN BERBA



IZAR ODRIOZOLA

## Behera behera

Etxetik irtetean zapaltzen dugun zorua ez da neutrala, eta horrela azaltzen du Itziar Gonzalez Viros urbanistak: kalea ez da espazio publikoa, administratiboa baizik, eta murrizketa urbanistiko, estatal eta polizialek arautzen dute.

Arau horietako bat, zalantzarik gabe, herriak ikur eta eskultura kolonizatzailez betetzea da. Horrela, eskultura horiek narratiba kultural dominantea eraikitzen dute, eta herria goitik behera bustitzen du kolonoaren kontakizun ustez epikoak. Diskurtso horrekin blaituta, eskulturak estetizatu eta naturalizatzen ditugu, askok Bergarako frontoia monolito gabe imajinatu ezin duten gisan. Naturalizazio horrekin, harrizko eta metalezko forma horiek dakarten biolentzia kognitiboa antzemateari uzten diogu.

Guztiz busti gaitu zapaltzailearen narratibak edo garaiz gabiltza aterki dekoloniala irekitzeko? Noiz arte itxaron behar dugu eskultura kolonial guztiak eraitsi eta debaldeko min hau proiektatzeari uzteko? Hori konpondu bitartean, norbaitekin zita monolitoan lotu eta pote bat hartzera Domingo Irala konkistatzailearen kalera joaten den gizarte konplizea izango gara.

BUKATZEKO

# Lemoizko alkatetza, bergarar baten eskuetan

1996an Lemoizera bizi izatera joan zen Jesus Mari Arizmendi bergararra izendatu dute Lemoizko alkate berri. 40 urte ostean, ezker abertzaleak inoiz lortu ez duena lortu du aurten EH Bilduk: oposiziotik irten eta lehenengo indar bihurtzea

**Miren Arana Pagaldai** BERGARA

Historian lehenengoz irabazi du Lemoizen ezker abertzaleak, EH Bilduk; herriko makila eskuz aldatu da –EH Bilduk 5 zinegotzi eta EAJk 4–eta bergarar baten eskuetara iritsi da. Jesus Mari Arizmendi da 1.314 biztanle dituen Bizkaiko kostako herriko alkate; boto gutxigatik bada ere, EH Bilduk EAJ baino zinegotzi bat gehiago eskuratu zuen udal hauteskundeetan: bost EH Bilduk eta lau EAJk. Arizmendiren hitzetan, "inoiz lortu ez dena" lortu dute aurten: ezker abertzaleak irabaztea.



Jesus Mari Arizmendi, zapatuan, alkate-makilarekin eskuetan. LEMOIZKO UDALA

### Lemoizen eta alkate

"Unibertsitate garaian irten nintzen Bergaratik", dio alkateak; Leioan ikasi ostean, han aritu zen lanean, eta 96an joan zen Lemoizera, ezkondu ostean. Zerrendetan sartu aurretik, euskal eskolaren alde borrokan aritu zen Arizmendi, herrian zegoen guraso mugimenduan; eta, behin sortuta, haurrak eskolan zirela, guraso elkartean ere aritu zen "buru-belarri" lanean. Militantzia handia eskaini dio herriari iritsi zenetik: "Haurrek eskola amaitu zutenean, Gure Eskun ere parte-hartze oso handia izan nuen, eta, azkenean, duela lau urte erabaki nuen zinegotzi aurkeztea".



Lemoizko EH Bilduren taldea zapatuan. LEMOIZKO UDALA

Bergararekiko lotura "guztiz hautsi" ez den arren, jaioterrian "oso gutxitan" izaten dela adierazi du: "Etxea mantentzen dugu anaiak eta biok, baina ez gara maiz joaten Bergarara; hala ere, behar edo nahi dugunean badaukagu nora joan. Beraz, lotura ez dago guztiz apurtuta".

### Gogoratzeko eguna

Zapatuan jaso zuen Jesus Mari Arizmendik Lemoizko alkatearen makila, eta eguna "hunkigarri eta ahaztezin" bezala gogoratzen du: "Lemoizen inoiz ez du ezker abertzaleak irabazi; oraindik lur hartu gabe gaude, nahiz eta momentuko euforia amaituta egon. Sentimendu kontraesankorrak dituela ere adierazi nahi izan du, "arduratuta baina ilusioz" dagoela EH Bilduren taldea: " Nahastu egiten zaizkit sentimenduak; herriak gugan jarri du konfiantza, eta, kalerik ez egiteko, ilusioz eta gogoz egingo dugu lan".

### Aurrera begira

Alkatearen hitzetan, zapatuan egin zuen diskurtsoa "motza baina esanguratsua" izan zen; EH Bilduren alde lan egindako guztiei aitortzak eta eskerrak tokia izan zuten, baina "aurrera begirako lanak" hartu zuen protagonismoa: "Datozen lau urteetan lan egiteko modua aldatu egingo da; gure programan argi adierazita dago herri txikia izanik beste modu batean funtzionatu beharko genukeela. Herritarren parte-hartzea bultzatu eta talde politikoen arteko elkarlana sustatu beharra dago".

FRANTZIAKO TOURRA, HEMENGOEN BEGIETATIK
ERREPORTAJE BEREZIA
EKAINAREN 26AN, ASTELEHENA, 21:15EAN ETA 23:00ETAN
DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!
goiena
Zu hemen zaude.

